



Paul Urkijo
zinema-zuzendariari
elkarriketa

KZguneak,
arrakala digitala
murrizten



Martxoaren 8ko manifestazioa Oñatin, eguaztenean. XABIER URZELAI

Aldarri feminista ozen entzun da kalean M8an

Zaintza ereduak eta sistema aldatzea izan da aurtengo Emakumeen Egunaren aldarrikapen nagusia; herri guztietan egin dituzte mobilizazio jendetsuak / 2



GOIENA TELEBISTA:
SASOI BERRIA / 23

SINADURAK

 UNAI ETXENAUZIA / 6	 MALENA GONZALEZ ALTUNA / 14
 JOSU ZUGASTI / 10	 ITZIAR ALONSO / 29
 JESUS ARREGI BENGOA / 13	 AINTZANE OIARBIDE / 40



Ura bezain garbia



T.- 943 71 48 45



MARTXOAK 8



Arrasaten, Debagoieneko Ospitale aurretik pasatzen. ARGAZKIAK: GOIENA



Bi emakume Eskoriatzan.



Bergarako manifestazioa.



Aramaioko elkarretaratzea.



Debagoieneko Itaiaren manifestazioa Bergaran.



Oñatin.



Elgetako udaletxe aurrean.



Antzuolan, bandera morea.



Gatzagako omenaldia.



Aretxabaletan, zahar etxeko egoiliarak manifestarien zain.

Erronka, zaintza ereduak aldatzea

Mugimendu feminista osasuntsu eta indartsu dagoela argi geratu zen Martxoaren 8an Debagoieneko herri guztietan egindako mobilizazioetan. Bizitzak erdigunean jartzea eta zaintza publiko eta komunitarioa izatea aldarrikatu zuten emakumeek

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Borroka feministak beste indar-erakustaldi bat egin zuen herenegun, Emakumeen Nazioarteko Egunean. Emakume debagoiendarrek aldarrak morez josi zituzten bederatzi herrietako kaleak, arreta zaintza sistemen eraldaketan jarrita eta "inflexio-puntua" sortzeko unea dela azpimarratuta. Elikadura, zaintza eta osasuna moduko

bizitzeko oinarritzko arloak negozio-interesetatik aldenitu eta eredu publiko eta komunitarioa hurbiltzea eskatu zuten.

Bergaran, Martxantera taldeko Ainhoa Narbaizak adierazi zuen zaintza "bizitzako etapa desberdinetan sortzen diren beharrak erantzuteko tresna" dela, eta beharrezkoa dela "denon eskura" egotea. Arrasateko Mugimendu Feministako Ainara

Balderdik, ildo beretik, azpimarratu zuen aurtengoa abiapuntu aproposa dela "zaintzaren birplanteaketa egiteko, gizonak eta erakundeek euren erantzukizunak hartzetik hasita". Itaiako Maddi Aldazabalek, berriz, egungo testuinguruan emakume langileen zapalkuntza gero eta gogorragoa dela aipatu zuen, eta horri "klaserik gabeko gizarateak" emango diola buelta.

Erantzun aparta

Errebindikazioak egiten goiztiarrenak ikasleak izan ziren; Arrasaten, esaterako, ozen esan zuten Neska* Gazteek eta Ikamak: "Hezkuntza sistemak ez gaitu zaintzen".

Arratsaldean zehar, Aramaion, Itur-Zuri Emakume Elkartek eta Aramaioko Feministek deituta, landa-eremuko emakumeendako zaintza eta ingurune duina eskatu zuten.

Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Taldekoek ohorezko zapia eman zioten Marcelina Plazaolari, 99 urteko *sorginari*, haren etxean. Asteburuan ere topera ibiliko dira taldekideak: gaur, *Erraiak* dokumentalaren proiektzioa egingo dute, 18:30ean, Gatz Museoko informazio-gune-

ko eraikinean; eta, zapatuan, urteroko bazkaria egingo dute Toki Eder elkarteak.

Eskoriatzan *Zaintzarako eskubide kolektibo baten alde* irakur zitekeen manifestazioko pankartan. Ekitaldia amaitzeko, borobilean batu ziren, eta egunerako prestatutako aldarrikapenen irakurketa egin eta dantekin amaitu zuten hitzordua.

Aretxabaletan eta Arrasaten mobilizazioak osasun-etxeetatik eta zaharren egoitzetatik pasa ziren, "guk ez dugu sistema hau zainduko" oihuen artean.

Antzuolan, Elgetan eta Oñatin ere herritarrak hutsik egin gabe ateratu ziren kalera, beste herrietako aldarrikapenekin bat eginez.

Izan ere, Euskal Herriko Mugimendu Feminista *Denon bizitzak erdigunean* dinamikan murgilduta dago, "zaintza-lanen merkantilizazio eta pribatizazioa bukatzeko". Greba orokorra egiteko asmoa erakutsi du; hain zuzen, herriz herri indarrak artikulatu ostean egingo dute publiko noiz izango den.

**AURTENGO M8-A
ZAINZA
BIRPLANTEATZEKO
ABIAPUNTUTZAT
HARTU DUTE**



Sariak eta enpresetako eta erakundeetako ordezkariak. TXOMIN MADINA

Sariak Lanbide Heziketa euskaraz bultzatzeagatik

Lanbide Heziketa Duala Euskaraz egitasmoko partaide diren Gipuzkoako erakundeen ordezkariak batu zen astelehenean Garaia Parke Teknologikoan; iazko praktika onak aitortu zizkieten Antzuolako Erreka enpresari, Miguel Altuna LHri eta Mondragon GEPri

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Lanbide Heziketa Duala Euskaraz ekimenaren bigarren aitortza-ekitaldia egin zuten joan den astelehenean Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan. Erakunde publikoetako, enpresetako eta Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxeetako ordezkariak batu zen horren aitzakian. Ekitaldia antolatu zuten Lanbide Heziketa indartu eta hobetzeko Elkartek (Lane-ki), Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak eta Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketa arloek.

Lantokiek euskararen alde egiten duten lana azpimarratze-

ko orduan, Antzuolako Erreka enpresa izan zen hiru aukeratu-etuak bat. Hala, enpresarekin harremana duten Miguel Altuna Lanbide Heziketako eta Mondragon Goi Eskola Politekniko-ko kideek ere jaso zuten aitortza. Oihana Elortza, Errekako Giza Baliabideetako arduraduna, pozik eta ilusioz agertu zen, "urte askotako ibilbidea" izan dutela kontuan.

Bi mahai inguru ere egin zituzten, bata euskaraz hezkuntzan duen tokia aztertze eta bestea lan-esparrua euskalduntzen diharduten enpresetako ordezkarien iritzia elkarbanatzeko. Fagor Automationeko, Mondragon Goi Eskola Politekniko-

Aretxabaletako Lanbide Eskolako eta Erreka kooperatibako kideek parte hartu zuten, besteak beste. Ordezkari politikoek ere hitza hartu zuten gaiari buruzko hausnarketak plazaratzeko. Esaterako, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak esan zuen "lantokietara doan jendeak euskaraz tresna moduan eta bere mingainean lehen hizkuntza moduan baldin badauka guztiontzat errazagoa" izango dela aurrerapausoak ematea.

Iazko datuak

2022ko datuen arabera, Gipuzkoan 8.300 ikasle eta 2.822 lantegi zeuden Lanbide Heziketa Duala Euskaraz programan.

Adingabeendako zentro berezia

Babesgabezia dauden eta osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeendako zentroa irekiko dute Arrasateko San Juan de Diosen. Zentro berritzaile eta aitzindaria da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu du. Hamar plaza izango ditu. Markel Olano diputatu nagusia eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea izan ziren atzo, eguna, zentroa ikusten.



JOKIN BEREZIARTUA

GARAIA Topagune Teknologikoa

Garaia Parke Teknologikoak networkinga, lankidetzak eta nazioartekotzea bultzatzen jarraitzen du bere komunitatean, bere enpresen arteko topaketak sortuz.



GARAIA Parke Teknologikoa, Avilesko Parke Zientifiko Teknologikoarekin batera, bi komunitateen arteko topaketa antolatu du martxoaren 20rako, 09:00-10:00 artean.

Ekitaldi hibridoa izango da, eta honako enpresa hauek eta horien buru diren profesionalak ezagutu ahal izango dira:

- **Nefab (PTGaraia)**: Enbalaje industrialaren fabrikatzailea eta hornitzailea.
- **Mondragon Centro de Promocion (PTGaraia)**: Ekintzailetasuna, dibertsifikazioa eta enpresa-jarduera berrien sorrera sustatzeko Mondragon Korporazioaren plataforma korporatiboa.
- **Aritu (PTGaraia)**: Ingeniaritza Mekanikoa. Informatika Ingeniaritza, PLM. Proiektu eta aktibo digitalak kudeatzeko irtenbideak.
- **ROOM 2030 (PCTAviles)**: altzairuzko etxe modularrak fabrikatzen dituen enpresa teknologikoa.
- **To Infinity (PCTAviles)**: IARTE proiektuarekin 3D inprimaketaren abantailak defendatzen ditu artea eta irisgarritasuna konbinatuz. Material plastikoz egindako mihise zeharrargien (PLA) inprimaketan oinarritzen da. Erliebezko inprimaketari eta argi-itzalaren konbinazioari esker, irudi ikusgarriak sortzeko gai da.
- **Pinayalo (PCTAviles)**: Zerbitzu integrala fluido industrialekin lan egiteko ekipoen arloan (balbulak eta instrumentazioa).

Martxoaren 20an 09:00etatik 10:00etara



IZENA
EMAN
HEMEN



200 haritz-landare lapurtu dituzte Antzuolan

Santi Etxezarretak Uzarraga auzoan duen lursailean landatu zituen landareak urtarrilean. Egubakoitzean igo zen berriro ere lekura, eta konturatu zen haritz-landareak falta zirela. Uste du hartara dedikatzen den norbait izan dela lapurra

Arantzazu Ezkibel Galdos ANTZUOLA
Antzuolako Benitua baserriko Santi Etxezarretari urtarrilean landatu zituen 200 haritz-landare lapurtu dizkiote. "Uzarraga auzoan duen lursailean izan da. Pinudia bota ondoren, haritza sartzea erabaki genuen. Urtarrilean sartu nituen, haritzak eta baita astigar zuriak ere,

platano faltsuak deiturikoak. Kontua da zapatuan beste landaketa batzuk egin behar genituela, eta egubakoitzean igo nintzen landareak eta tresnak eramatera. Orduan konturatu nintzen urtarrilean landatutako haritzak ez zeudela", dio Etxezarretak. Landaketa egin zutenetik ez da igo lursaila duen

tokira; hortaz, ez daki noiz lapurtu dizkioten landareak.

Argi duen bakarra da lapurreta egin duenak badakiela zertan zebilen: "Platano faltsuak atera dituzte lurretik, baina hemen utzi dituzte, ez dituzte eraman. Lapurtzera etorri denak bazekien zer nahi zuen".

Salaketa jarri du

Ertzain-etxera joan zen salaketa jartzera, eta ertzainak lekuan bertan izan dira argazkiak atera eta gertatutakoa ikertzen. "Nik uste dut hartara dedikatzen den norbait izan behar dela. Izan ere, partikular bat ez da lapurretan ibiliko. Dirulaguntzak lortzeko landatutakoaren fakturak aurkeztu behar dira eta", argitu du antzuolarrak. Nabarmendu du ez dela samurra lursailera iristea; autoz igotzen da Etxezarreta, bidea ondo ezagutzen duelako, baina bidea ezagutzen ez duenarentzat ez dela samurra dio.

Dagoeneko landatu ditu berriro ere haritz-landareak: "Lehen, landatu nituen takodunak, urtebete-ko landareak. Horiek samur atera daitezke lurretik eta beste nonbait sartu. Orain, berriz, haizagoak landatu ditut, eta zailagoa da ateratzea. Izan ere, lurretik ateratzen badituzu, zuztarra hondatu daiteke eta ez dute balio berriro ere landatzeko".



Santi Etxezarreta eskuetan landarea duela. A.E.G.

Bizirik dauden gerrako umeei omenaldia martxoaren 18an

Intxorta 1937 Kultur Elkartearen eta Aldundiaren arabera, 140 daude bizirik; tartean, 44 debagoiendar

A.E.G. ARRASATE

Intxorta 1937 Kultur Elkartek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 36ko gerrako ume gipuzkoarren memoria identifikatu eta berreskuratzeko ikerketa amaitu dute; ikerketari amaiera emateko, omenaldia egingo diete bizirik dauden gerrako 140 umeei, martxoaren 18an, Donostiako Kur-saalean, 11:00etan.

Europa osoko hainbat artxibotan bilatu eta erbesteratuen eta haien senideen testigantzak eta datuak jaso ondoren, Intxorta 1937 Kultur Elkartek 10.000

haur baino gehiago identifikatu ditu, guztira: 5.053 gizon eta 4.960 emakume. Intxorta 1937 Kultur Elkarteko Julia Mongeren arabera, kontabilizatu dituzte 140 direla gaur egun oraindik ere bizirik dauden gerrako umeak; tartean daude Arrasateko 23, Aretxabaletako hiru, Bergarako hamahiru, Antzuolako bat, Eskoriatzako bi eta Oñatiko bi. Norbaitek gonbidapena jaso ez badu, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jartzeko eskatu dute, 943 11 39 65 telefono-zenbakira deituta.

Aspegi Konektatuz proiektuaren lehen aldia gaur Garaian

Emakume ekintzaileen bizipenak eta esperientziak partekatzeko mahai-ingurua egingo dute, 13:00etan

A.E.G. ARRASATE

Emakume Profesional, Enpresari eta Zuzendarien Gipuzkoako elkarteak Aspegi Konektatuz proiektuaren lehen edizioa egingo du gaur Arrasaten, 13:00etan, Garaia Parke Teknologikoan. Helburua da Debagoieneko ekonomia eta enpresa-sarean dauden emakumeen presentzia ikusaraztea. Mahai-ingurua egingo dute, emakume berritzaileen eta ekintzaileen bizipenak eta esperientziak partekatzeko. Parte hartuko duten emakumeak izango dira: Irrika Gluten Free en-

presaren sortzaile Ainara Abasolo Mujika; Arizmendi Ikastolako umezaintza guneko zuzendari ohi Arantza Lejarraga Marco; eta Abantail kooperatibaren zuzendari nagusi Sonia Ortubai Balanzategi.

Lehenengo aldi horretako esperientziekin hiru ildo jorratuko ditu Aspegik: hezkuntza, ekintzailetza eta STEM arloa; hirurak Debagoiengan kokatuak. Arrasateko alkate Maria Ubarretxena eta Emakundeko ordezkari Mari Jose Etxegoien izango dira ekitaldian.

Komunikazio Campusa 2023

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

mn
Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Bideo-podcasta

Sorkuntza eta zabalkundea sare sozialetan

Anima zaitetz eta eman izena!

Isaias Carrasco omentzeko ekitaldiak

Martitzenean bete ziren hamabost urte ETak Arrasateko zinegotzi sozialista erail zuela. Senideek, alkateak eta alderdi sozialistako kideek lore-eskaintza egin zioten osoko bilkura hasi aurretik. Domekan ekitaldia egingo dute sozialistek Arrasaten

Larraitx Z.L. / Eneko A. ARRASATE

Martitzenean egin zuen martxo-ko ohiko osoko bilkura Arrasateko udalbatzak; Carrascoren erailketaren 15. urteurrena bete zen egunean. Haren omenez osoko bilkuren aretoaren sarreran dagoen plakan lore-eskaintza egin zuten senideek, alderdi sozialistako kideek eta Maria Ubarretxena alkateak. Carrascoren alargun Marian Romerok lore-sorta utzi zuen, eta arrosa bana gainerako parte-hartzaileek. "Familiak eskatuta, arrosa batzuk utzi ditugu plakaren ondoan, haren oroimenez, ez ahazteko gure laguna zena", azaldu zuen alderdi sozialistako zinegotzi Johanna Sanchezek. "Urteurrena baliatuz, alderdi sozialistak eta familiak gonbidatu gintuzten omenaldi-ekitaldian parte hartzera, eta, familiarekin bizi izan dugun prozesua medio, guk ere egoki ikusi dugu parte hartzea", gehitu zuen Maria Ubarretxena alkateak.

Minutu bateko isilunea

Osoko bilkuraren amaieran, sozialisten bozeramaile Aritz Muruak minutu bateko isilunea eskatu zuen Carrascoren omenez. Zutik jarrita egin zuten isilunea, baina EH Bilduko zortzi zinegotziak ez ziren zu-



Sanchez, Murua, Fuentes eta Ubarretxena martitzeneko lore-eskaintzan. E. AZURMENDI

titu. Jarrera hura aurpegiaratu zien publikoan zegoen Matilde Martin sozialistak. "Lezetxikigatik bihotza zatituta zeneukatela adierazi zenuten aurreko osoko bilkuran. Gaur ni naiz bihotza zatituta daukana", esan zien. EH Bilduko bozeramaile Maider Morrasede azaldu zuen ez zekitela ezer omenaldiaz, ez ziela inork abisatu eta "penaz" hartu dutela hori. "Ez genekien omenaldia zegoenik ere, eta, are gutxiago, minutuko isilunearena. Oso gauza zatarra izan da gurekiko, eta momentu latza

izan da, gaia oso sentibera delako". Podemos Arrasateko Eva Abuin, zutitu zen arren, minduta azaldu zen: "Triste gaude, PSE-EEk eta EAJk ez baitute gaia Bizikidetza Batzordera eramanean, normalean egiten den moduan".

Euskadiko sozialistek urteroko ekitaldia iragarri dute domekarako, Arrasateko Navas de Tolosa kalean; Carrasco erail zuten lekuan. Ekitaldia 12:00etarako deitu dute eta PSE-EEko idazkari nagusi Eneko Anduezak hitz egingo du.

"Gure miseria betikotzen dutenen aurka egin behar dugu"

JOANES PLAZAOLA ETXEBIZITZA SINDIKATUA
Hurrengo asanbladara joateko dei egin du

Larraitx Zeberio Lekuona BERGARA

Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatuko kide da Joanes Plazaola bergararra. Kolektiboaren ustez, onartezinak dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jaso ahal izateko ezarritako azken kontrol-neurriak.

Salatu duzue 2022an onartutako DBEren erreforma-legeak ilegalak ziren praktikak legeztatu dituela.

Salatu dugu alderdi politikoen lege berria aurrerapen gisa saldu izana, Ertzaintzaren miaketak, Lanbideren poliziaren sorrera... Ulertzen dugu enpresarien gaur egungo beharrei erantzutera datorrela lege berria, lanik izango ez duen hori miseria mantentzera... Bai, miseriazko errenta-sistemak baditu kontrol-funtzioak, baina harago doala uste dugu.

Helburua zein da?

Laguntza horiek orokortzen joango dira langileak prest egon daitezen edozein unetan lanik negargarriena ere hartzeko. Irizpideak malgutzen dituzten itxurapean, eskubiderik oinarritzkoenak ere urratzea normalizatzen da: intimitaterako eskubidea, etxebizitzaren bortxazintasuna eta errugabetasun printzipioa. Dena, aurrerakoitzat ditugun agente horien inolako aurkakotasunik gabe.

Zein neurri hartzea proposatzen duzue?

Duela pare bat hilabete aurkeztu genuen Kontseilu Sozialistako Etxebizitza Sindikatua bailaran. Ulertzen dugu pixkanaka



Joanes Plazaola. L.Z.L.

gure miseria betikotzen dutenen aurka egin behar dugula; etxejabe handi edota bankuetatik hasita, etxejabe txiki eta instituzio publikoetara arte. Etxebizitzaren arloan antolatu beharra daukagu etxejabeen prezio igoeren, etxegabetzeen eta kontratu-aldaketen aurrean. Etxebizitza kalitatezko, doako eta unibertsalaren alde egin behar dugu. Hau da, sozialismoaren alde. DBEri kontrajarriz, uste dugu baldintzarik gabeko kalitatezko errenta unibertsalaren alde egin behar dugula, gaur egungo produktio-baldintzek pertsona iza-tearren soilik kalitatezko bizitza bat izateko aukera irekitzen dutelako. Gehiago jakin nahi duenari Etxebizitza Sindikatua-ren hurrengo asanbladara joateko dei egiten diogu. Data zehatza zein den aurrerago zabalduko dugu.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

HARIRA

MARTXOAREN 14AN, MARTITZENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN
GONBIDATUAK: VICENTE ATXA MU-KO
ERREKTOREA ETA IDOIA PEÑAKOBA
MU-KO IDAZKARI NAGUSIA
GOIATZ ARANAK ZUZENDUTAKO
ELKARRIZKETA-SAIOA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





ZABALIK

UNAI ETXENASIA

Oroitarazteko, beste barik

Atzera begiratzea aurrera egiteko? Izan naizena, gaur naizena eta bihar izango naizena. Gutxiegi pentsatzen dut horretan, akaso. Egia esan, iragana (gehiegi) oroitzea saihesten duen pertsona bat naiz. Esperientzia eta bizipen gozoak oroitzen ditut, gaziak ez hainbeste, baina, zuek bezala, txarretik ikasten saiatzen naiz. Beharrezkoa da pasarte ilunak memorian presente izatea, horietan ainguratuta geratu barik. Halere, horrek ez du ziurtatuko egindako akatsak edo egoera latzak berriz errepikatuko ez direnik. Horregatik, are garrantzitsuagoa da egoerak, pertsonak, ideiak eta abar ezabatze edo aldatzeko jarrera aktiboa izatea. Eta mantentzea, noski.

Egoera txarrak hausnartzeko denbora hartu behar da. Baina gaizki egindakoak edo sufrimendu uneak burutik ez kentzeak

DAMUAK EZ DU BALIO, BERRIZ EZ ERREPIKATZEKO BORONDATE ERREALIK EZ BADAGO

ez du ezer aldatuko, berriz ez errepikatzeko bermeak edo tresnak lantzen ez badira. Bai, badaude saihestezinak diren egoerak, eta norberaren esku ez daudenak. Halere, norberak alda lezake norberaren esku dagoena. Autokritika segituan egin

behar dela uste duen horietakoa naiz –ahal bezain pronto, behintzat; egoeraren arabera aldatu daiteke–, ez baitago besterik aurrera egin nahi bada. Ez du ezertarako balio bizitzako pasarte ilunak barruan iltzatuta mantentzea, horri buruz hausnartzen ez bada.

Oroimenak eta damuak ez du ezertarako balio, berriz ez errepikatzeko borondate errealik ez badago. Ahanzkorrak gara, horregatik barneratu behar dugu dena, oroitzeak bakarrik ez duelako berriro gertatuko ez dela ziurtatzen. Kasu batzuetan arriskutsua eta guzti izan daiteke, aurrera egiteko oztopo bihurtzeraino. Damuak edo penak ez du ezertarako balio, denbora batera berriz gertatzeko edo harri berarekin estropezu egiteko arriskua badago. Ez galdu denborarik sufritzen eta damutzen. Kontziente izan eta berriro errepikatuko ez dela ziurtatu. Jarrera pasiboa da oroimenean galtzea. Aktiboa izan!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Gu

PALOMA MARTINEZ
ARETXABALETA

Euskararen ezaugarrietako bat da *gu* adierazteko *-ok* deklinazioa erabiltzen dela. Niri ikaragarri gustatzen zait *-ok* erabiltzea eta *-ok* horren barne sentitzea. Dena dela, emakume arrazializatua izanik, behin baino gehiagotan *-ok* edo *gu* horietatik at geratzen naiz.

Batzuetan, nahiko garbi adierazten da bereizketa hori; beste batzuetan, airean geratzen den zalantza-laino bat da. Horiek dira mingarrienak; izan ere, inork –eta, askotan, nik barne– ez du ulertzen egoera horiek gizarte edo

sistemaren indarkeriak direla, baizik eta nik daukadan arazo pertsonala.

Zapatuan Aramaiora joan nintzen, alaba txikiarekin batera, bilera agroekofeminista batera. Zaintza zerbitzua bazegoen, baina alde zurretik abisatu behar zen eta nik ez nuen abisatu. Dena dela, alaba txikia gurekin egon zen bilera osoan. Ongi etorriak izan ginen biok. Alaba ez zen aspertu; interesa piztu zion hor geunden emakumeok esaten genuenak. Hitz batzuen esanahiak galdetzen zizkidan. Birritan galdetu nion ea marraztu edo irakurri gura zuen, eta ezetz, bilera interesatzen zitzaiola.

Pozik eta hunkituta irten nintzen: alde batetik, une oro taldearen parte sentitu nintzelako; eta, bestetik, alabak izan zuen bizipenagatik. Hau da, emakumeok kezkatzen gaituzten gaiez berbetan ikustea, hari taldean besteo bezala leku bat ematea, emakume guztiek begiradaz, hitzez edota keinuz zaindu egin zutela, eta haren presentziari garrantzia ematea.

Bileraren helburu bat zen etorkizunerako alternatibak proposatzea. Bueno, nik argi ikusten dut horrelako guneak eta lan egiteko era badirela irtenbidea! Bidea luzea da, baina elkarrekin baleike!

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Baraualdia eta itxialdia

ITZIAR USANDIZAGA
DEBAGOIENEN PENTSIODUNEN
MUGIMENDUA
DEBAGOIENA

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) baraualdia egingo du Bilbon martxoaren 13tik 18ra. Arrazoa: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa.

Bost urte baino gehiago daramatzagu 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen –hamalau ordainsaritan–. Zahartzaroan bizitza duina izateko oinarritzko diru-sarrera bermatzeaz gain, pentsioetan dagoen genero-arrakala murrizteko neurri eraginkorra da.

1.080 euroko gutxieneko pentsioaren premia azpimarratzeaz gain, emakume pentsiodunen egoera larria nabarmendu nahi dugu. Izan ere, Hego Euskal Herrian 280.000 pentsio 1.000 eurotik behera daude eta EAEen 72.000 emakumek 700 eurotik beherako pentsioak dituzte. Beraz, emakume horiek miseria eta pobrezia pentsioekin bizi dira. Haietako askok familia eta zaintza lanak egin zituzten bere garaian, eta haien lanaren ondorioz sistema sostengarria izan zen. Orain, 400 eta 700 euro arteko pentsioak jasotzen dituzte, eta gobernuek erantzun beharra dute.

Horregatik guztiagatik, EAEko eta Nafarroako gobernuei gutxieneko pentsioa 1.080 eurora arte osatzeko eta

neurri hori berehala ezartzeko eskatzen diegu.

Ez dago aitzakiarik EAEko eta Nafarroako gobernuek 1.080 euro arteko gutxieneko pentsioa ez osatzeko. Urte hauetako borrokaren ondorioz ez dira inoiz hain gertu egon 1.080ak! Horregatik, garrantzitsua da denon konpromisoa lortzea.

Martxoaren 18an, zapatua, manifestazioa izango da Bilbon, 12:00etan Plaza Eliptikotik irtenda.

Antzuolako 8 Miliak: hamar urte

GURUTZ ZABALO EROSTEGI
ANTZUOLA

Otsailaren 25ean, Antzuolako 8 Miliak lasterketaren hamargarren ekitaldiaz gozatu ahal izan genuen, eguraldia lagun. Urtero bezala, txapeldunak izan zituen, nahiz eta ikusleen berotasunarekin parte-hartzaile guztiok sentitzen garen txapeldun.

Hamargarren ekitaldia ospatzeko, hamarrak hasi eta bukatu ditugun bi korrikalari –tartean, ni neu– saritu zituzten. Baina benetan saritu behar direnak antolatzaileak dira, hamar ekitaldiotan sekulako lana egin dutelako, benetako lan borobila; eta ez bakarrik korrikalarien ikuspegitik: antzuolar harro bezala ere bai. Bene-benetan, txapeldunak eta saritu beharrekoak zuek zarete. Zorionak eta eskerrik asko!

Era berean, urte hauetan boluntario ari diren guztiak aipatu nahi nituzke: anoa-

puntuetan, bidegurutzeetan, kontsignetan... Eta, nola ez, lasterkariak animatzera etortzen zareten guztiok: zuei ere zorionak!

Antolatzaileekin bat eginez, Irimoko inguruetan egin nahi duten deskalabrua gaitzetsi nahi dut; inguru paregabea suntsitu nahi dute. Utzi Irimo bakean!

Martxoaren 8a: aldarrikapen eguna

MAITE GURIDI ELEXPURU
DUINTASUNA ELKARTEAREN IZENEAN
DEBAGOIENA

1.080 euroko gutxieneko duintasunezko pentsio baten alde borrokatzen gara.

Mugimendu Feministak zaintza sistema mahai gainean jarri du Martxoaren 8ko aldarrikapen nagusi gisa. Izan ere, emakumeak gara oraindik zaintzen ardura gure gain hartzen dugunok.

Zaintza sisteman aldaketa gutxi izan dira azken urteetan, eta egindako gehienak okerrerrako izan dira; tartean, zaintzan lan egiten duten emakume migranteen egoera.

Bestalde, bere garaian zaintzara dedikatu ziren emakume jubilatuen egoera ez da batere ona. Zaintzak ez dira errekonozitu, eta emakume haien pentsioa miseriazkoa da.

Euskal Herrian 200.000 baino gehiago dira 1.000 eurotik beherako pentsioak dituzten emakumeak, eta horietako asko ez dira 700 eurora iristen. Miseriazko pentsio horiekin

nola zaindu daiteke emakume bat duintasunez bizitzeko?

Ezinbestekoa da zaintza-lana lan gisa antolatzea eta dagozkion eskubide guztiak bermatzea. Hori gabe ezingo delako bermatu duintasunez zainduak izateko eskubidea.

Hori guztia aldarrikatzeko eta pentsioetan dagoen genero-arrakala eta zahartzaroan dagoen genero-indarkeria salatzeke, plazetara irten gara.

Guztion indarra beharrezkoa da zaintza sistema heteropatriarkala irauli eta sistema publiko duina martxan jartzeko.

Bergarako Udalak bertan behera uzten ditu bertako bizilagunak

JOSE ANTONIO ALTUNA
ARRASATEKO ALKATE OHIA
ANGIOZAR (BERGARA)

Gutun ireki honen bidez, gure instituzioak gobernatzen dituzten politikariek nazkatuta nagoela publiko egin nahi dut –Bergarako Udala eta Gipuzkoako Diputazioa–. Askotan entzuten ditugu honelako esaldiak: "Herriarren zerbitzura gaude, landa-eremua laguntzen dihardugu..."

Bergarako Udalak guztiz baztertuta dauka Goimendi auzoa, zerbitzu publiko basiko gabe. Hona hemen adibide batzuk: Goimendi auzoak ez dauka ur-sare publikorik; hau da, ez dauka ur edangarririk. Politikariek auzoan urarekin dagoen arazo horrek osasun

arazo larriak sortu izan dituela jakin arren, Udalak eta Diputazioak ez dute ezer egin. Baserrietarako bideei dagokienez, bide publikoak guztiak partez josita daude eta entitate publikoek behin ere ez dute mantentze-lanik egiten.

Auzora ez da banda zabal ultraazkarra iritsi eta Interneterako konexio-bideak oso prekarioak dira. Hala ere, harrigarriena zaborraren aferra da. Izan ere, Goimendi auzoan Zabor Industrien Epeleko planta dagoen arren, bertako bizilagunok ez daukagu zaborra biltzeko zerbitzurik.

Gure egoera txarraren aurrean Bergarako Udalak ezertxo ere egiten ez duen bitartean, badira inguruko herrietako hainbat udal landa-eremuko bizilagunen bizi-baldintzak hobetzen dihardutenak. Esate baterako, Antzuolako Udalak bertako baserri guztiak ur sare publikora lotzeko lanak egin ditu; Oñatikoak, Arantzazu inguruko baserrietara ur-sare publikoa eramateaz gain, hainbat bide asfaltatu eta konpondu ditu...

Bitartean, Angiozarko Goimendi auzoa bakartuta eta baldintza txarretan dago. Eta zer egiten du Bergarako Udalak egoera hori hobetzeko? Ezer ere ez. Eta, dirudienez, asmorik ere ez. Aurretik azaldutako honi guztioni soluzioa jartzeko aldera, espero dut ordezkari municipal zein foralek beraien agendetan Goimendi auzoari tartetxo bat emango dietela.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





Aurreproiektuko infografiatako bat. Hegoaldeko ikuspegia erakusten du, eraikin berria aurrean duela. ISEA KOOPERATIBA



Pasabideetako bat erakusten duen infografia. I.K.

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE ISEA kooperatiba ari da aurreproiektua egiten, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Adinberri fundazioaren finantzaketarekin, eta, funtsean, aurreproiektu horren helburua da Mesedeetako ikastetxea izan zen lekuan *cohousing* edo etxebizitza komunitarioak egitea; belaunaldiartekotasuna erdigunean jarrita, betiere. Modu horretan, egungo eraikina birgaitu eta beste erabilera bat emango liokete, gazteendako zein adineko pertsonendako bizitoki bilakatuta.

Etxebizitza komunitarioa edo *cohousing* kontzeptua, azken batean, bizitegi-modalitate bat da, non sukaldea edo atsedenukuak partekatzen diren eraikin berean, auzo-komunitate bateko kideen artean gizarte-harremak sustatzeko.

66 apartamentu edukiko lituzke

Aurreproiektuak 8.000 metro karratu hartzen ditu, eta horietatik 1.000 espazio berri batekoak izango lirateke, zeinak eraikin berri bat edukiko lukeen. Hala, logela bakarreko, bi logelako eta hiru logelako 66 apartamentu jasotzen ditu aurreproiektuak. Hala, egungo eraikinaren bi hegaletan, logela bakarreko 34 apartamentu, bi logelako zortzi apartamentu eta hiru logelako sei apartamentu proiektatu dituzte. Eraikin berrian, aldiz, logela bateko bederatzi apartamentu eta bi logelako bederatzi egongo lirateke. Azkenik, hainbat gune komunitario egongo lirateke, hala nola egongelak, kafea hartzeko guñeak, jangela, gimnasioa, zerbitzu medikoak eta abar.

Bereziki logela bakarreko apartamentuak izango direla nabarmendu du Aitor Orobengoak, ISEA kooperatibako kidea. "Proiektua pentsatuta dago, gehienbat, pertsona bakarrendako edota pertsona bakarra eta

Mesedeetako ikastetxea izandakoan 'cohousing' eredua ezartzeko lanean

Mojen ikastetxe izandako eraikinean etxebizitza komunitarioak egiteko aurreproiektua aurkeztu du ISEA kooperatibak; 8.000 metro karratuko espazioan 66 apartamentu egitea da asmoa, belaunaldiartekotasuna, komunitatea eta berrikuntza ardatz hartuta



Jose Luis Iñarra kalean dago Mesedeetako ikastetxea. Eraikin horretan egin gura dituzte etxebizitza komunitarioak. E.A.B.

haren laguntzailearendako. Izan ere, ikerketen arabera, geroz eta jende gehiago bizi da bakarrik. Hori dela eta, ahalegin berezia egin dugu logela bakarreko apartamentuak egiteko, eta, ondorioz, apartamentuen %60 logela bakarrekoak dira. 56 metro karratukoak izango lirateke horiek, bederatzi metro karratuko terrazarekin". Bestalde, bi logelako apartamentuak %28 izango lirateke eta gainontzeko %12ak, hiru logelakoak.

ISEAko kideak gaineratu duenez, formula bera mantentzen

Finantzaketa, oraindik zehazteke

Finantzaketari dagokionez, hainbat gauza zehazteke daudela azaldu du Orobengoak: "Batetik, eraikina mojena da, eta, beraz, haiek zehaztu beharko digute eraikinaren truke gura duten diru kopurua. Bestetik, oraindik ez dakigu proiektuak izango duen kostua". Etxebizitza komunitarioak izan ahal izateko, eraikinak jabetza publikoa izan behar duela gaineratu du Orobengoak, eta Maite Peña foru diputatuak zera dio horren harira: "Proiektu estrategikoa da guretzat eta ez daukat zalantzarik oztopo guztiak gaindituko ditugula hau aurrera eramateko". Hala, behin proiektua amaitutakoan eta izango duen aurrekontua zehaztutakoan, Udalak, Aldundiak zein Jaurilaritzak negoziatu egin beharko dute haren finantzaketa nork eta nola egingo duen.

da apartamentu guztietan; hau da, guztiek dute logela, komuna, egongela eta sukaldea. "Horrez gain, espazio komunak ere egongo dira solairu bakoitzean".

Erakina, "oso egoera onean"

2008ra arte ikastetxea izan zen eraikina 60ko hamarkadan egindakoa da eta garai hartan "ikastetxe berritzaileenetakoa" zela dio Orobengoak. "Guk lan egin izan dugu LKS Kreetan enpresako arkitektoekin, eta haiek gorai-patzen dute oso egoera onean dagoela eraikina oraindik, bere garaian erabilitako materialak eta teknikak oso aurreratuak izan zirelako. Kanpotik begiratu irudi lezake hondatuta egon daitekeela, baina egitura barrutik oso ondo dago. Ez da zantzurik agertzen aluminosia edo halako gaixotasunena, eta hori funtsezkoa da proiektua aurrera eraman ahal izateko".

Eraikinak duen beste abantaila bat da erdigunetik "oso hurbil" dagoela, Orobengoaren esanetan, "igogailua erabiliz, lau minutu eta erdira", hain zuzen. "Horrez gain, hegoaldera begira dagoen eraikina da, eta, beraz, oso eguzkitsua. Herriaren goialdean egonik, halaber, oso ikuspegi ederrak ditu, Arrasate osoa ikusten baita. Beraz, aurreproiektuan ere hala jaso dugu, iparretik hegora begira". Modu horretan, logela gehienetan eguzkiaren argia sartuko litzateke.

Sare komunitarioa helburu

Eraikinaren arkitektura eta egitura garrantzitsuak badira ere, horien gainetik proiektuak daukan "balio kualitatiboa" nabarmendu du Maite Peñak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatuak. "Proiektu garrantzitsua da Arrasaterentzat, baina baita Gipuzkoarendako ere. Halako esperientzia lokalak martxan izateak ahalbidetzen digu lurralde mai-



Aparkalekuak mantendu egingo lirateke. I.K.



Hegoaldean lorategiak eta paseatzeko lekuak joango lirateke. ISEA KOOPERATIBA

lara hedatu ahal izatea eta onurak biderkatzea, jende gehiagorengana iritsiz", dio.

Haren esanetan, berrikuntza eta komunitatea daude proiektuaren oinarrian. "Belaunaldien arteko harremanak sendotuko ditugu, baina berrikuntzatik abiatuta eta komunitateak duen balioa azpimarratuz. Pertsonen beharrak hartuko dira kontuan, perspektiba oso batetik, eta hori da pertsonalizazioa. Beraz, helburu bikoitza du proiektuak: erabiltzaileei bizileku egonkorra ematea, bizi-kalitatea lehenetsiz,

eta gainerako kideekiko zein komunitatearekiko ingurune kolektiboa sortzea".

Elkarlanaren fruitua da


Aldundiko Kudeaketa Estrategikoko zuzendaritzatik bultzatutako proiektua da, Adinberri fundazioak diruz lagunduta, eta ISEA lantzen ari dena. Azken horrek bidelagun izan ditu MU, EHU, LKS Krea eta Lur Paisajistikak, besteak beste. "Elkarlana funtsezkoa ari da izaten proiektu hau errealitate bihurtzeko", azaldu du Peñak. Era berean,

Arrasateko Udal Gobernuaren-tzat ere proiektu estrategikoa eta beharrezkoa da eta oposizio-indar nagusi EH Bilduk ere begi onez ikusten du.

Proiektua, sanjuanetarako prest

Orobengoak dio proiektua sanjuanetarako izango dutela prest. "Arrasateko Udalak eskatzen digun plan berezia sakontzen ari gara, eta barne diseinua ere hobetu behar dugu". Halaber, erakusketa eta hitzaldiak egingo dituzte, proiektua azaltzeko eta proposamenak jasotzeko.

1.000 metro karratuko espazio berri bat



Egungo eraikinak 7.000 metro karratu ditu eta 1.000 metro karratuko azalera gehigarri bat jasotzen du aurreproiektuak, eraikin berri batekin –guztira, 8.000 metro karratu–. Espazio berri horretan ingurune berde bat egitea proposatu dute, lorategi batzuekin eta paseatzeko ibilbidetxo batzuekin.

Eraikin berria.

IRUDIAK: I.K.

200 arbola berri landatu dituzte; azkenak, Garibai etorbidean

Joan den egubakoitzean egin zuten landaketaren azken fasea, Garibai etorbidean arteak eta urkiak landatuta



Udal langileak landaketa egiten joan den egubakoitzean. I.B.K.

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko udal lorezainek Garibai etorbideko landaketekin bukatu dute 200 zuhaitzen landaketa. Markuleten, Mugarriten, San Kristobalen eta Fagor San Andresen lanean aritu ostean, Garibai etorbidean gauzatu zuten azken fasea joan den egubakoitzean. Hain zuzen ere, hementziko 56 zuhaitz autoktono landatu dituzte: haltzak, lizarrak, sahasak eta astigarrek. Fagor San Andresen, berriz, 10-12 zentimetroko hiru haltz. Halaber, Mugarritea errepidearen aldean 32 haltza eta lizar landatu dituzte; horietako hamasei baso-tamainakoak eta beste hamasei 10-12 zentimetrokoak. Horrez gain, Mugarritea saihesbidearen aldean zortzi astigar jarri dituzte; horietatik lau baso-tamainakoak eta beste lau 10-12 zentimetrokoak. San Kristobal hilerriaren kanpoaldeari dagokionez, tamaina ertaineko hogeitaz haritz eta arte eta tamaina ertaineko 23 astigar landatu dituzte. Azkenik, Ferrerriasko plazatxoan 10-12 zentimetroko astigar bat landatu dute.

Era horretan, beraz, 200 zuhaitz berri jarri dituzte azken asteetan lorezainek. Markulete ibai-eremuan baso tamainako 60 zuhaitz autoktono eta 10-12 zentimetroko 56 zuhaitz autoktono landatu dituzte: haltzak, lizarrak, sahasak eta astigarrek. Fagor San Andresen, berriz, 10-12 zentimetroko hiru haltz. Halaber, Mugarritea errepidearen aldean 32 haltza eta lizar landatu dituzte; horietako hamasei baso-tamainakoak eta beste hamasei 10-12 zentimetrokoak. Horrez gain, Mugarritea saihesbidearen aldean zortzi astigar jarri dituzte; horietatik lau baso-tamainakoak eta beste lau 10-12 zentimetrokoak. San Kristobal hilerriaren kanpoaldeari dagokionez, tamaina ertaineko hogeitaz haritz eta arte eta tamaina ertaineko 23 astigar landatu dituzte. Azkenik, Ferrerriasko plazatxoan 10-12 zentimetroko astigar bat landatu dute.

Zuhaitzak moztu zituzten

Uztailan, lorezainen grebaren testuinguruan, hainbat zuhaitz moztu zituzten Garibai etorbidean, eta, horregatik, hain zuzen, berriz ere inguru hori landatu behar izan dute. Udaletik orain-

dik ez dute ulertzen gertaera haren zergatia. "Ez dakigu lorezainen greba babesteko egin zituzten ekintza haiek, baina, hala izanda ere, uste dugu grebari babeserakusteko beste modu batzuk daudela. Ekintza haiek zentzugabekoak izan ziren", adierazi du Victoriano Fuentes zinegotziak.

Gune hura berriz landatzeak 7.900 euroko kostua izan du. "Kostu ekonomikoaz gain, beste leku batean landatzekoak ginen zuhaitzak Garibai etorbidean landatu behar izan ditugu".

Lanean jarraitzeko asmoa

Fuentesek dio landaketa berriek aukera ematen dutela "Arrasate berdeago, klima-aldaketaren aurkako babestuago eta hiri-garapen iraunkorraren helburuekin konprometituagoa" izateko. Halaber, datozen asteetan beste zona edo auzo batzuetan ere zuhaitz berriak landatzeko asmoa dutela aurreratu du, hala nola Makatzenan eta San Andresen.



MARTXOAK 8

Eta orain, eraldatzen eta saretzen jarraitzera

Eguazteneko mobilizazioen ondoren, hausnarketa feminista eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko parekidetasuna aldarrikatzeko askotariko ekintzak egongo dira datozen egunetan Arrasaten, herri mailan zein EAE mailan antolatutakoak

Hasier Larrea ARRASATE

Emakume Txokoak hilabete osoan izango diren ekintzez betetako egitaraua ondu du, eta, egunik indartsuena igaro den arren, gaurtik martxoaren 23ra bitartean emakumeen askapenarekin lotutako kontu ugaritan parte hartzera animatu ditu herritarrek, "jendarte parekide bat lortzeko bidean elkar ikusteko" ilusioarekin.

Sudur gorridun umorea

Gaur, hilak 10, 19:00etan hasita, Bea Egizabal clownak eta Ane Labaka, Oihana Bartra eta Miren Artetxe bertsolariek publikoa barrez lehertzen jarriko dute Kulturaten. Umora feminista hausnarketarako tresna dela jakitun, emakumeen ahal-duntzea "ikuspuntu ez hain serio batekin" landuko dute.

Zapatuan azoka

Martxoaren 8aren bueltan garrantzia ematen dioten hitzordua da emakume artisau eta nekazarien azoka. Bihar goizean, Seber Altuben, emakume debagoiendarren sorkuntza propioko arropak eta lehen sektoreko jakiak egongo dira erosgai, 10:00etatik 14:00etara.

'Emakumeak gora!' kanpaina

Datorren astean, astelehenetik eguenera, lan eta ikasketa esparruan emakume eta gizonen arteko desberdintasunak agerian uzteko kanpaina ikusgai jarriko dute Seber Altuben, *Emakumeak gora!* izenekoa. Emakumearen Euskal Institutuak (Emakunde) garatu duen ekimena da, eta horrela azaldu ditu Udaleko Berdintasun zinegotzi Johanna Sanchezek nondik norakoak: "Hiru eskailera moretan idatzitako datuen bitartez, emakumei enpresetako lidergo-postuetara berdintasunez iristea eragozten



Martxoaren 8an, iluntzean, Biteri plazan jendetza batuta. TXOMIN MADINA

'ELKARTU, SARETU ETA ERALDATU!' LELOPEAN, HILAREN 23RA ARTE IZANGO DIRA EKINTZAK

dieten oztopo nagusiak eta mito faltsuak azalaraziko ditugu".

Badaude-eta zenbait estatistika adierazgarri; adibidez, EAEn goi-mailako ikasketak dituzten pertsona guztietatik ia %60 emakumeak izanik, gerentzia-postuak %6k bakarrik betetzen dituztela. Zaintzari dagokionez ere bi generoen arteko aldea nabaria da; esaterako, senitartekoren bat zaintzeko hartzen diren lan-eszedentzien %73 emakumeek eskatutakoak dira.

Datu horietan oinarrituta salatuko dute, besteak beste, "boterea gizonen kontu gisa ikusten" jarraitzen dutela, "emakumei perfekzioa eskatzen zaiela erantzukizun-postuetara iristeko eta erakundeetan pribilegio eta rol maskulinoak betikotzen direla". Errealitate horren harira, gi-

zarte honek erabaki eta eragin postuetan emakume gehiago behar dituela aldarrikatuko du kanpainak.

Iraganeko iruditeria

Udal Bibliotekak ere egingo dio ekarpena egitarauari, Raquel Manchado gonbidatu baitu martxoaren 16an Kulturateko areto nagusian misoginiari eta indarkeria sinbolikoari buruz berba egiteko, 19:00etan. Zehazki, iraganeko emakumeen irudien trataerak gaur egun dituen eraginak azalduko ditu.

Abortua ikus-entzunezkoan

Ekitaldi-sortak martxoaren 23ra arte iraungo du, abortuaren gaia lantzeko *Nuestra libertad* dokumentala emango baitute egun horretan Kulturaten, 19:00etan hasita. Teodora Vasquez da filmeko protagonista, eta lehen eskutik azalduko du El Salvadorren hark eta beste hainbat emakumek bizitako espetxeratze eta errepresioa, fokua ahizpatasunean, erresilientzian eta elkartasunean jartzeko helburuarekin.

Podemos-Ahal Duguk auzoak indartzea lehenetsiko du

Hauteskunde-programa Arrasateko auzoetako bizilagunen ekarpenekin osatzea aurreikusi du

H.L. ARRASATE

Arrasate Podemos Ahal Dugu alderdiak maiatzaren 28ko udal hauteskundeei begirako asmoak plazaratu ditu asteon. Eva Abuin alkategaiak adierazi duenez, "herriko auzo bakoitzak bere aurrekontu propioa izatea" proposatuko dute, obra txikiak zein egitarau kulturalak aurrera ateratzeko, kontuan hartuta "orain arte auzoek jaiak gartzeko partidak bakarrik jaso izan dituztela udal aurrekontu orokorretatik".

Izan ere, alderdikideek desberdintasun asko ikusten dituzte Arrasateko auzoen eta erdigunearen artean: "Erdigunetik auzoetara egiten da politika, eta horrek, historikoki, auzoak abandonatuta egotea ekarri du; bada ordua erdigunetik kanpo dauden guneak politikaren zentrorra ekartzeko".

Auzokideen iritzia eta proposamenak jasotzeko, apirilera arte mahai informatiboak jarriko dituzte astean birritan, 17:30etik 19:00etara. Hurrengo asteko martitzenean Santa Teresan egongo dira, eta egubakoitzean Erguinen.

Ekarpenak aztertu ondoren landuko dute auzo bakoitzean zer egin daitekeen.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Zapatuan Bilbora

Ezkerreko espainiar gobernuak, euskal alderdien babesarekin, %26,5 igo du Espainiako ejertzitoaren aurrekontua, NATOri men eginda. Europa, Estatu Batuen gidaritzapean, morroi txintxo da, eta krisialdi amaiezinetik atera ezinik, NATOren proposamen militaristari heldu dio, Errusia eta Txinaren blokea, bere lehiakide nagusia, ekonomikoki ezin bada, militariki garaitzeko.

Ongizate-estatuaren oinarriak desegiten ari diren bitartean, familien aurrezkiak etxeko gazteei laguntzen hegan doazen bitartean, Europar Batasunak, bertako eliteen interesen menpe, ekialderantz daramatza armak, ukrainarrek errusiarrak hiltzeko erabil ditzaten. Horrela, beharbada, Errusia ahituta geratzen bada, Txina eta aliatuak kikilduta geldituko diren esperantza elikatzen dute; Mendebaldeak beste hamarkada batzuetan mundua kate motzean lotzea lortuko duen ilusioa.

Gerra inperialisten ziklo berri batean sartzen ari gara, arma nuklearrez gainezka. Bada garaia bloke kapitalisten arteko lehia suizidaren aurrean zutitu gaitzen. Lehen urratsa, Bilbon, zapatu honetan. NATOri ez!

OHARRAK

Felix Rodrigo Moraren hitzaldia

Askatasunak eta Giza Eskubideen Aldeko Herri Plataformak antolatuta, bihar, 10:30ean hasita, Kulturaten, idazle soriarrak demokrazia zuzenaren inguruan jardungo du.

Ludoteka ibiltaria San Andresen

Datozen lau zapatuetan Arimazubi plazan izango da Txatxilipurdiren ekimena, 11:30etik 13:30era, bi hezitzaileekin.

'Gipuzkoa martxan' kanpaina Arrasaten

Bihar eta etzi ginkana bat irekiko dute Biterin. Bihar, 11:00etan, martxa nordikoa egingo dute, eta etzi, 12:00etan, emakume ahaztuetan eta Arrasateko Erdi Aroan jarriko dute arreta.

Dirulaguntzen programa estrategikoa, onartuta

Martitzeneko osoko bilkuran hainbat dirulaguntza eta transferentziaren aldaketa onartu zituen udalbatzak. Martxoaren 8ko mozioa ere onartu zuten, eta bilkuraren aurretik Isaias Carrasco omendu zuten, haren hilketaren urteurrenean (Ikus 5. orria)

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Martitzenean egin zuten osoko bilkuran dirulaguntzen programa estrategikoa onartu izana garrantzitsutzat jo zuen Maria Ubarretxena alkateak. "Laguntza garrantzitsuak daude hor: Santa Teresako urbanizaziorako laguntza, Debagoiena 2030 egitasmorako laguntza, ikastetxeetan energia berriztagarrien aldeko apustua egiteko Ikastetxe-klik ekimenerako laguntza edota herriko merkatarientzako laguntza, esaterako, bonuetarako zein erakusleho lehiaketarako. Oposizioaren ezezkorekin zuzur eta lur geratu gara", adierazi zuen.

Hala, EH Bilduko ordezkari Maider Morrasedek zera nabarmendu zuen ezezko botoa arrazoitzeke: "Dirulaguntza gehiago emango genituzke guk eta ez modu horretan, baizik eta eragile gehiagori. Dirulaguntzak emateko gure modua, gure eredu bezala, ezberdina da, ez da EAJk erabiltzen duena". Onartutakoen artean, Debagoiena 2030 egitasmorako laguntza 2.400 eurokoa izango da; Ikastetxe-klik garatzeko, Gizabidea fundazioari 5.250 eurokoa eta Erguin Herri Eskolari 6.500 eurokoa.

Moyua eta atzerapen-egunak

Galdera eta erantzunetan, Kepa Urteagak hartu zuen berba, Juan Arzamendi Musika Etxearen harira: "Duela hilabete batzuk, lanen atzerapenei baiezkua bozkatu genien, aldaketa bat ikusi genuelako LKSk egindako txostenean. Hain zuzen ere, atzerapenengatik penalizazioak eskatzen zitzaizkion Moyua enpresari. Batzordean behin baino gehiagotan galdetu izan dut gaiari buruz, eta txostenaren berririk ez dugu", azaldu zuen.

Victoriano Fuentes zinegotzi sozialistak erantzun zion obra zuzendaritzari eskatu ziotela atzerapen egunak zehazteko eta



Eguazteneko osoko bilkuraren une bat. E.A.

oraindik ez duela la hori egin. Beraz, itxaroten ari direla eta gaia bere prozesua eramaten ari dela.

Martxoaren 8ko mozioa

Onartu zen puntuetako bat Martxoaren 8a izeneko mozioa izan zen, EAJk eta PSE-EEk aurkeztutakoa. Gobernuak zein oposizioak deitoratu egin zuten ezin adostasuna lortu izana. "Zortzi urte daramatzat alkate eta orain arte ez da posible izan ezer adostea Martxoaren 8aren bueltan. Nahiko zaila da ulertzea, Eudelen alderdi guztiek osatutako testu bat izaten da-eta", adierazi zuen Ubarretxenak. Era berean, balioa eman zion Emakume Txokoak zein Berdintasun Sailak egiten duten lanari.

Morrasedek zera gaineratu zuen: "Berdintasuna eta feminismoa ez dira sekula izan Gobernu honen lehentasunak. Duela zortzi urtetik plan bat eginda daukagu, Gobernuak kaxoian sartuta daukana. Beraz, paper huts bat besterik ez da mozioa eta ezin dugu onartu". Podemos Arrasateko Eva Abuinek esan zuen oraindik bete gabe daudela iaz hartutako konpromisoak.

Gimnasia erritmikoko erakustaldia zapatuan Iturripen

Arrasateko Dragoi gimnasia taldeak antolatuta, bihar, zapatua, egingo dute, Iturripen, benjamin mailako topaketaren bigarren fasea. Erakustaldia 16:50ean hasiko dute eta inguruko klubetako gimnastak lanean ikusteko aukera izango da: Bergarakoak, Eibarkoak, Tolosakoak, Azpeitikoak eta Zarauzkoak.



Arrasateko taldeko gimnasta bat. DRAGOI

Aste Santuan hainbat kirol campus izango dira aukeran

Ointxe!-k, Mondrak eta Arrasateko Eskubaloi Taldeak gertu dituzte Aste Santuko campusak. Eskubaloioek apirilaren 3tik 5era bitartean egingo dute campusa, futbolekoek apirilaren 11tik 14ra bitartean, eta saskibaloioek bi txanda egingo dituzte. Eskubaloioen ordutegia izango da 10:00-13:00 -30 euro; Iturripen-, saskibaloioek Mu-

sakolan egingo dute campusa -09:30-13:30-, eta txanden arabera prezio ezberdinak izango dira -80 eurotik hasita-. Eta futbolekoak Mojategin batuko dira -09:30-13:30; 80 euro-. Eskubaloioan izena emateko, aeb@arrasateeskubaloi.eus-ra idatzi edo deitu 619 67 26 96 zenbakira; futboleko campuserako, mondraanpusak@gmail.com edo 667 54 61 86 zenbakia; eta saskibaloio campuserako, kirolzuzendaria@ointxe.eus edo 653 01 48 60 zenbakia.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTEGIAK
AZKARATE AROTEGIA
BERGARA
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

LOREZAINZA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA
EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Kontzertu hunkigarri eta jendetsuaren ordua da

Arrasate Musikalek bere ibilbideko ekitaldirik handiena egingo du bihar, zapatua, 19:00etan, Uarkape udal pilotalekuan. 300 musikarik eta abeslarik Juan Arzamendik konposatutako piezak interpretatuko dituzte, musika eskolaren ereserki eta guzti

Hasier Larrea ARRASATE

Aparteko ahalegina egin du Arrasate Musikalek, 50. urteurrenaren harira halako kontzertu erraldoia antolatzeko. Musika eskolako bandak, orkestrak eta ikasleek alboan izango dituzte Goikobalu Abesbatza, Txorbela Otxotea, Bergarako Orfeoia, Izaskun Murgia elkarre lirikoia eta Arrasateko parrokiako korua; bestela esanda, 300 musikarik eta abeslarik modu koordinatuan jardungo dute. Orain arte Arrasaten ikusi ez den balentria.

Musikariak lehenengo

Bandak emango dio hasiera ikuskizunari, Mikel Markiegiren gidaritzapean *Music for a Solemnity* eskainita. Ondoren, batuta Iker Olazabalek hartuko du, orkestra sinfonikoa zuzentzeko, eta *Danzon nº2* pieza izango dute esku artean.

Hori bukatzean batuko zaizkie koruak musikariei. Ennio Morriconeren *The Mission* taularatuko dute, Alfredo Gonzalez bergararrak moldatuta. Jarraian musika eskolaren sortzaile izandako Juan Arzamendiren piezekin gozatzeko txanda izango da; *Mari Errauskin* haurrentzako operako zenbaki batzuk aurkeztuko dituzte, eta Arrasate Musikalen ereserkiak jarriko dio ginga emanaldiari.

Juan Arzamendi gogoan

Guztien ekarpena modu sinkronizatuan gidatzeko ardura Edu Arzamendik izango du, Juan Arzamendiren semeak. Piano irakaslea eta Arrasate Musikalen orkestrako piano-jole laguntzaile da, eta 1996tik 2002ra izan zen bandako zuzendaria. Aipatu duenez, uztailean egin zion proposamena akademiako zuzendaritza taldeak, eta, kosta zitzaion arren, "aitari omenaldia egiteak ilusio berezia" egiten ziolako eman zuen baiezkkoa.

Hark aukeratu ditu kontzertuan entzungo diren *Mari Errauskin* obrako zenbakiak: "Lan hau pare bat aldiz aurkeztu da jendurrean; azkena, 1997an. Biharkoa mugarria izan dadila etorkizunean opera bere osotasunean berreskuratzeke". Ereserkiak oroitzapen politik ekartzen dizkiola gaineratu du: "Arrasate Musikalen orkestrako kideok kontzertuetara joaten ginenean abestu egiten genuelako autobusean".

Oro har, emozioz betetako eguna izango dela uste du, ez bakarrik oholtzara igoko direnentzako, baita udal pilotalekura bertaratuko diren ikus-entzuleentzako ere: "Kontzertu ederra izango da, guztiok gozatzeko moduko osagai guztiekin". Oraindik sarrerarik ez duenak salgai dauzka 10 eurotan Kajoi eta Ezkiña tabernetan.

EKITALDIA GOIENA TELEBISTAN IKUSI AHALKO DA HILAREN 18AN 22:00ETAN ETA 19AN 17:00ETAN



Kontzertuko zuzendari Edu Arzamendi eta AMko zuzendari Marta Izaguirre. A. MUSIKAL

Erronka handia denez gero, prestakuntzetan lan handia hartu dute. Azaldu duenez, talde bakoitzak bere aldetik entseatu ditu kantuak lehendabizi, eta gero hasi zen zuzendariaren egitekoa, guztiak batu zintenean. Topaketa otsaileko azken asteburuan egin ahal izan zuten San Frantzisko elizan: "Beldur pixka batekin joan nintzen, baina gero, oso lan ona egin genuen; zapatuan musikariekin bakarrik aritu ginen, eta domekan korulariak gehitu zitzaizkigun; gaur azken entsegu orokorra egingo dugu Uarkapen, eta biharko dena prest utziko dugu".

Omenaldi-sorta

Ikasturte berezi honetan egiten dabilzan moduan, aitortzeki tarte berezia izango dute bihar arratsaldean zehar. Musika eskolan jubilatutako langileak, 1972an eskolan lanean hasi ziren irakasle eta idazkariak, lehen batzordeko kideak eta Arrasate Musikalek izan dituen zuzendariak protagonista bihurtuko dira une batez, herri-mailako proiektu musikala urte askoan hauspotzeagatik errekonozituak izango baitira.



MENDIA FONDOA

1890 eta 1940 arteko liburua

Alberto Loiti arrasatearrak herriko argazki zaharrenak liburura eraman ditu, *Arrasate 1890-1940 Mondragon* izenburua jarrita. Proiektua Kulturaren aurkeztuko du, hilaren 15ean, 19:00etan. Jose Mari Velez de Mendizabalek ere hartuko du hitza. Haren esanetan, "sekulako lana" egin du Loitik, garai hartako argazkiak "bilatu eta hobetu" egin dituela iritzita.

Willis Drummond-ek lan berria aurkeztuko du eguen gauean

Iparraldeko laukotea aski eza-guna da Koolturreko jarraitzaileen artean, ez baitira-eta gutxitan etorri Arrasatera, izan herriko plazan, gaztetxean zein Amaia antzokian jotzeko. Oraingoan, ohi bezala, gaztetxean berri ikusteko aukera izango dute datorren astean, hilak 16, gaueko hamarretan hasita. Jurgi Ekiza eta enparauak *Hala ere*

diskoa zuzenean defendatzera etorriko dira, haien ibilbideko zazpigarrena. Bederatzi abestirekin osatutako albuma zuzenean eta metronomoa erabili gabe grabatu dute; beraz, pentsatzekoa da diskoan eta zuzenekoetan entzuten den soinua antzekotasun handikoa izatea.

Willis Drummond-eko kideek diotenez, "kantuetan 90eko hamarkadako eraginak daude, baina 70eko hamarkadan bezala grabatuta, eta, hala ere, egungo soinuarekin".

Stellar zirkuaz gozatzeko aukera gaurtik domekara

Arruena parkea Antartikako negu hotzean girotuta egongo da asteburuan zehar, Valladolideko Stellar zirkuaren barruan icebergak eta elurra izango baitira nagusi; baina, ezeren gaineretik, akrobaziak. Familia osoarentzako ikuskizuna gaur inauguratuko dute, 18:30ean, eta, Ikuslearen Eguna denez gero, 10 eurotan salduko dituzte sarrerak. Bihar, berri, 17:00etan zein 19:30ean hasita ikusi ahal-ko da zirkuak, eta etzi, 12:00etan eta 17:00etan, 14 euroren truke. Leihatilak funtzio bakoitza hasi baino ordubete lehenago irekiko dituzte, baina Internet bidez ere eros daitezke sarrerak, *circostellar.com* webgunera sartuta.

Aiertek kontzertua egingo du Ziar-Olan datorren barikuan

Aiert Alberdi Elorza bakarlariak zuzeneko emango du martxoaren 17an Musakola auzoko Ziar-Ola kultur elkartearen. Sortzaile oñatiar gaztearen emanaldia arratsaldeko zazpitan hasiko da. Ikus-entzuleek aukera izango dute Aiarten pop estiloko kantu samurrak dastatzeko, hark hain gustuko duen giro intimoan.

Ingeleseko zein euskarazko bertsioak egiten ere trebea da, bere ukitua ematen baitie, gitarrekin eta ahots kordekin, beste artista batzuek egindako kantuei. Baina, azkenaldian, barruak mugitzen dizkioten kontuei notak jartzera ausartu da, eta erakutsi du konposatzailer bezala maila handia daukala.

Bi milioi pasako aurrekontua onartu dute

Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontuaren aurka bozkatu zuten EAJko bi zinegotziek; hala, aldeko zazpi botorekin eta kontrako birekin onartu zuten 2023ko ekitaldirako udal aurrekontua. lazkoa baino %14,9 txikiagoa izango da

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
2023ko ekitaldirako aurrekontuak onartu ditu udalbatzak ezohiko osoko bilkuran. Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontuak aldeko zazpi boto eta aurkako bi boto izan zituen. 2.272.000 euroko aurrekontua onartu zuten; iazko ekitaldiarekin alderatuta, %14,9 txikiagoa.

Lierni Altuna alkatearen esanetan, aurrekontu txikiagoa izatearen arrazoi nagusia da Plan Foraleko obrarik ez dutela jaso aurrekontuan –orain egiten dabilen kiroldegiko obra, adibidez, iazko aurrekontuetan sartuta dago–. "Bestalde, Barajuen eta Suña auzoetan proiektuak egitea onartu digute. Orain tokatzen zaigu proiektuak zehaztu eta idaztea, Aldundira bidaltzea eta baiezkotzea. Hori guztia egin orduko 2024a izango dela uste dugu; hortaz, obra horiek hurrengo urterako utziko ditugu", dio Altunak.

2023ko aurrekontuetan jaso dituzten inbertsio nagusiak dira: "Autokontsumo-instalazioa eraikin publikoetan ezartzea izango da inbertsio nagusia; bestalde, Suña eta Barajuengo bi proiektu horiek idazteak 110.000 euroko aurrekontua izango du; parkean hainbat hobekuntza egingo ditugu; baita kultura etxean ere, desfibriladoreak auzoetan jartzea... Hori da ditugun sarre- rek ematen dutena".

EAJko zinegotziak, aurka

EAJko bi zinegotziek aurka bozkatu zuten. "Orain dela hilabete bat hainbat galdera egin genizkion alkateari proiektuen inguruan eta uste dugu ez direla mugitu. Erantzuna izan da ez dela Udalaren eskumena, Diputaziokoa dela... Guk proposatu genituen hainbat proiektu Aramaio herri ilusionagarria izateko, eta ikusten dugu ez dela ezer mugitzen: ilusio falta eta proiektu falta ikusten dugu",



Aramaioko ezohiko osoko bilkura. A.E.G.

AUTOKONTSUMO-INSTALAZIOA ERAIKIN PUBLIKOETAN JARTZEA IZANGO DA INBERTSIO NAGUSIA

azaldu zuen osoko bilkuraren amaieran EAJko zinegotzi Pedro Elosegik. EAJk Aramaiorendako turismo arloko proiektuak eskatu zituen: "Aramaiok aukera dauka turismo eta kultura aldetik, eta hortik ez da ezer egiten. Aurkeztu dugu ideia bat Albinan egiteko zerbait erakargarria. Erantzuna izan da Albinan ezin dela bainatu; baina ez da dena bainua: bizikletak, bidegorria... izan daitezke aukerak. Aberastasuna ekarriko lioke herriari, gastronomia aldetik".

Lierni Altuna alkateak, aldiz, zera erantzun zuen: "Bakoitzak bere iritzia du. Guk ikusten dugu egunerokoa zela den... Herri txikia gara eta Aldundiak eta Jaurlaritzak baldintzatuta gaude. Aldundiko errepidea baldin bada edo tartean Ura baldin badago, guk ezin dugu

nahi duguna egin. Errealitatea jakiteko egon egin behar da eta jakin egin behar da. Egunerokotasuneko errealitatetik egindako aurrekontuak dira guk aurkeztutakoak".

Egoera ekonomiko ona

"Udalaren egoera ekonomikoa ona da. Espero dugu likidazioa ere positibo irtetea; hori horrela, ondoren, txertaketak egingo zaizkio gaur aurkeztutako aurrekontuari", gaineratu zuen alkateak. Ekain inguruan izango dute likidazioaren datua; hori horrela, beste hainbat lan egiteko dirua izatea espero dute udal arduradunek.

Beste puntu batzuk

Ezohiko bilkuran onartu zuten baita Gizarte Zerbitzuak mantentzeko Foru Aldundiarekin duten hitzarmenari prologoa ematea ere. Aho batez onartu zuten zinegotzi guztiek. Bestalde, Plan Foralaren baitan dagoen kiroldegiko obraren ziurtagiriak bideratzeko, alkatea eskuordetzea onartu zuten, baita Linatzako lursail baten salerosketa formalizatzeko alkatea eskuordetzea ere.



NIRE USTEZ

JESUS ARREGI BENGOA

Aurkezpen gisa

Onartu egin dut zutabe hau noizbehinka idazteko konbitea. Lehenengo honetan, nire burua aurkezteko ahalegina egingo dut, kortesia legeei jarraituz.

Aretxabaletarra naizen arren, espero dut Aramaion egindako 20 urteak nahikoa izatea Aramaioko orrietan azaltzeko. Dagoeneko erretiroa hartuta banago ere, lan ibilbidearen gehiena UPV/EHUn egin dut, bertan ikasitako fisikari eta astrofisikaren alorrean eginiko tesiari lotutako gaien inguruan. Gai horiek lanbide ez ezik zaletasun ere izan dira kosmologiarekin batera, unibertsoaren erraiak ezagutzeko egarritz edo. Inozoa! Mendizaletzat ere badut nire burua; agian, berau ezagutzeko ahaleginek tontorretara bultzatuta. Inozoa?

Ez dut gustuko politika, baina gogoz kontra onartu behar izan nuen aspaldi hil ala biziko kontua dela bi estatu inperialistaren mendean bizi den gure herriarentzat. Inozokeria gutxi kontu honekin; *stablishment*-ak desagerpenera garamatza.

Udaleku ibiltaria, 15 eta 18 urte bitarteko gazteendako

Uemak antolatzen duen Salto! udalekua ekainaren 26tik uztailaren 4ra bitartean izango da, eta, ohi bezala, ibiltaria izango da. Orozkotik Dimarako bidea egingo dute udalekuan parte hartuko duten 120 gazteek. Aurtan, 2005 eta 2008 urteen artean jaiotako gazteek izango dute udalekuetan parte hartze-ko aukera.

Izena emateko hiru modu egongo dira: *Uema.eus* atarian dagoen galdetegia bete daiteke; 943 81 66 99 telefono zenbakira deitu; edo *arnasguneak@uema.eus* helbidera datuak bidali daitezke –izen-ematea, helbidea, jaiotza-data, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa–. 120 euroko prezioa izango du udalekuak eta izen-ematea zabalik egongo da martxoaren 31ra arte.

Orozkoan, Areatzan, Otxandion eta Diman pasako dituzte gauak; herri bakoitzean bi gau.

Sagardo Eguna egingo dute Oletan martxoaren 18an

Martxoaren 18an Sagardo Eguna ospatuko dute Oletan, Iturrietako sagardoarekin. Eguna osoko egitaraua prestatu dute, eta musikak girotuko du eguna goizetik gauera arte. 12:00etan hasiko dute eguna, Txot! inaugurazioarekin eta Trikipintxopotearekin. 13:00etan, Ramiro Llanos eta Claudia Muñoz aikolariek erakustaldia egingo dute. Bazkaria 14:30ean izango da, Herriko Tabernan. Izena eman nahi duenak 945 09 72 54 telefono zenbakira dei dezala. Arratsaldean, Manex Agirrek eta Paula Amilburuk bertsotan egingo dute; eta 20:30ean, A Triki Punk taldeak kontzertua egingo du.

Bertsogintzan murgildu eta ondo pasatzeko aukera

Arabako Bertsozale Elkartek antolatuta, Udaberriko Bertso Abenturak egonaldiak egingo dituzte apirilean Espejon. Bi txanda izango dira; Gorbeialdeko haurrek lehenengo txandan parte hartuko dute: apirilaren 11n, 12an eta 13an. Eskualdeko 10 eta 13 urte bitarteko haurrei zuzendutako egonaldia da. Autobus zerbitzua egongo da, eta izen-ematea itxi ondoren jakinaraziko dituzte autobusaren ibilbidea, ordutegiak eta geltokiak. Prezioa 50 euro da antolatzaille diren udal eta kuadrilletako parte-hartzaileentzat. Parte hartzeko, dagokion eskualdeko galdetegia bete beharko da martxoaren 24a baino lehen.



Urretxindorra egitasmoan diharduen kuadrilla bat. SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA

Kanpotik etorritako nerabeei lehen babesa

SOS Arrazakeria Gipuzkoak abian jarritako Urretxindorra egitasmoa Debagoienara iritsi da eta Aretxabaletako Gu Haziak Gara elkarteak hartu du horren ardura; mentoretza programa bat da eta 10 eta 14 urte arteko migratzaileekin hasiko dira lanean

Mirari Altube ARETXABALETA

Urretxindorra egitasmoa Debagoienera iritsi da. SOS Arrazakeria Gipuzkoak daraman Mentoretza Sozialeko ekimena da eta Aretxabaletako Gu Haziak Gara laguntza elkarrearen bitartez proiektu pilotua jarri dute abian. Kanpotik etorritako 10 eta 14 urte arteko neska-mutikoak unibertsitate eta goi-mailako ikasketak egiten diharduten ikasle boluntarioekin harremanetan jarriko dituzte astean hiru bat ordu elkarrekin pasatzeko.

Bikoteka, zaletasunen arabera

Aretxabaletan izango du abiapuntua, baina gainerako herrietara zabaltzeko asmoa du Gu Haziak Gara elkarteak datorren ikasturtean. Hala adierazi du horren ardura izango duen Joana Manzisidor arrasatearrak: "Ikasturtea bukatu bitartean egingo dugu proba, proiektu pilotua. Eta, ondo bidean, irailetik aurrera jarraipena izango du, herri gehiagotara zabalduta".

Gaztetxoaren ongizate pertsonala, emozionala eta soziala zaintzea da egitasmoaren helburua, horretarako autoestimua, trebetasun pertsonalen eta harremanen garapena, esperientzia berrien bizipena eta bizi diren tokiko espazioen ezagutza sustatuta: "Gure artean denbora gutxi daramaten eta ingurua ezagutzen ez dutelako, harremanak egitea

kosta egiten zaielako edo hizkuntza menperatzen ez dutelako egunerokoan zailtasunak dituzten horiekin egingo da lanketa". 10 eta 14 urteko neska-mutiko horiek 18 eta 30 urte arteko eta goi mailako ikasketak dituzten gazteekin, hau da, mentoreekin, jarriko dituzte harremanetan: "Bikoteka elkartuko lirateke; betiere, zaletasunak kontuan hartuta. Astean arratsalde bat pasatzea elkarrekin da kontua".

Zinemara joan, igerilekura, futbol partidu bat ikustera... Aukera zabala dagoela uste du Gu Haziak Gara elkarteak ordezkariek, eta horretarako erraztasunak ematen ahaleginduko dira: "Donostialdean, esaterako, akordioak dituzte Aquariumarekin eta Txuri-Urdinekin, eta haiei esker debalde sartzeko aukera daukate. Gure asmoa da hemen ere antzeko adostasunetara iristea elkarrekin".

Mentore bila

Proiektu pilotua abian jartzeko lehen pausoak dagoeneko eman ditu Gu Haziak Gara, eta hiru gaztetxo gertu egongo lirateke

NERABEAK GOI MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN GAZTEEKIN ELKARTUKO DIRA ASTEAN BEHIN

egitasmoan parte hartzeko. Orain, horien lagun izango diren mentoreak behar dituzte. Interesa izanez gero, elkartera jo behar da, Iralabarra plazako 5. atarian duten egoitzara joanda edo telefonoz deituta: 681 65 59 39. Aurtengo ikasturtea bukatu aurretik mentore interesatuen zerrenda izan gurako luke, datorren ikasturtetik aurrera, gaztetxoak iritsi ahala, bikoteak egin eta lehenbailehen hasteko prozesuarekin.

Kataluniatik datorren ekimena

Egitasmoa orain dela hamar bat urte jarri zuten abian Gipuzkoan, Kataluniako eredia oinarri hartuta. Eusko Jaurlaritzak proiektuarekiko apustua egin duela adierazi dute SOS Arrazakeriatik, "azken urteetan eman dituen emaitzak ikusiz", eta horri esker Erkidego osora zabaltzen dabil-tza. "Astean behin hiru orduz elkarrekin gozatzen dute aisialdiaz eta horrek mentoratuari zein mentore direnei izugarriko onurak ematen dizkie". Batarendako eta bestearendako "bizi-ikaspen" handia dela iriz-tzita.

Gu Haziak Garako dinamizatzaile den Manzisidorrek onartu du Urretxindorra egitasmoak ilusio berezia egiten diola. Lau bat hilabete dituzte orain abian jartzeko, eta irailetik aurrera bete-betean sartzeko da asmoa.



NIRE USTEZ

MALENA GONZALEZ ALTUNA

Terrore sexualaren aurrean, zer?

Alcasser, la manada, uda honetan izan diren ziztadak... Denok ezagutzen ditugun gertakariak dira, mediatikoki oso famatuak izan direnak, baina denongan ez dute eragin bera izan.

Horien bitartez emakumeoi mezu oso gardena bidali digute: "Kaleak ez dira zuenak". Borroka luzeen ondorioz irabazitako espazioetatik kanporatu gaituzte segurtasunaren izenean. Kaleetatik, gauetatik, jailetatik... bota gaituzte, etxean hobeto gaudela esan digute.

Hori behin eta berriz gertatu da historian zehar eta argi geratu da beldurra baino fenomeno konplexuagoa dela: terrorre sexuala da, hain zuzen ere. Emakumeak beldurraren bitartez zapalduta eta kontrolatuta mantentzen dituen fenomeno da. Gainera, gudan jartzen dute ardura, emakumeok etengabe entzuten ditugun esaldien bitartez: "Ez joan kalean bakarrik", "ez jarri hain gona motza", "kontuz zer egiten duzun"... Ez egin hau, ez egin bestea, behin eta berriz; baina gurea al da ardura?

Horri guztiorri aurre egiteko eta betiko putzu berberetan ez erortzeko, eman diezaiozun merezi duen garrantzia sexu hezkuntzari.

Erregularizazioaren aldeko mozioa babestu du udalbatzak

Mugimendu Feministak aurkeztu zuen migratzaile estatuta administratiboki erregularizatzeko eskaera

M.A. ARETXABALETA

Pertsona Atzeritarren Ohiz Kanpoko Erregularizatorako Herri Ekimen Legegilearen aldeko mozioa aurkeztu zuen Atxabaletako Mugimendu Feministak eguaztenean, martxoaren 8an, egindako ohiko osoko bilkuran. Migratzaile eta errefuxiatuentzat migratzaile estatuta administratiboki erregularizatzea eskatu zuten egoitza eta lan-baimenak lortzeko. Udalbatzak aho batez onartu zuen mozio hura, eta, horrela, herri ekimen legegileari babesa erakutsi zion eta bes-

te erakunde batzuetara zabaltzeko konpromisoa hartu zuen.

Zerbitzuen kontratu luzapena

Bestetik, Gizadi Laguntza Zerbitzuak enpresari etxeko etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua beste urtebete luzatzea ere onartu zuen udalbatzak. Baita Ibarra kiroldegian ematen diren hainbat zerbitzuren kontratua Athlon Kooperatibari luzatzea ere; besteak beste, kirol jardueren, sorosle zerbitzuaren, fitness gelako aholkularitza zerbitzuaren eta mantentze-lanen ardura.

Basabe kalea asfaltatu egingo dute datozen egunetan

Basabe kalea asfaltatzeko lanak egingo ditu Udalak egunotan; biribilgunetik Durana kaleraino doan bidean, hain zuzen ere. Lanek eragina izango dute inguruko garajeetarako sarrera-irteeretan. Horregatik, Mitarte kalearen amaieran jarritako piboteak kendu egin dituzte, behin-behinean, Durana kalera sartu ahal izateko.

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Hil ostean familiari laguntza ematea helburu

San Jose-San Martin kofradiak batzar orokorra egingo du martxoaren 18an Arkupen; pandemia sasoian ez zuten egiterik izan eta aurreko berreskuratu egingo dute; 3.376 bazkide dituen elkartearen zuzendaritza batzordeko lau kide aldatuko dituzte



Nagore Olave, Deiane Madinabeitia, Xabier Berridi –presidentea– eta Oier Garziaetxabe. PELI BELTRAN DE HEREDIA

Mirari Altube ARETXABALETA

Ia 170 urte dituen San Jose-San Martin kofradiak ez du batzarrik egin azken bi urteotan, pandemia tarteko, eta aurreko bazkideak elkartzeko gura dute berriro. Martxoaren 18an izango da hori, zapatua, Arkupen –lehen deialdia 10:30ean eta bigarrena 11:00etan–. Zuzendaritza batzordea berrituko dute orduan: lau lagunek bukatu egingo dute bi urteko jarduna eta beste lau sartuko dira, bazkideek boto bidez hautatuta; horretarako paperak Arkupeko sarreraren utzikatu dituzte egunean bertan.

Kofradiak 3.376 bazkide ditu gaur egun –1.751 emakume eta 1.625 gizon– eta horien batez

besteko adina 55 urte da. Azken urtean 53 kide hil dira; aurreko urtean baino hiru gutxiago. Herrian bazkide gehien dituen elkarte da, hain zuzen ere.

Bi zerbitzu-mota

Hildakoaren familiari laguntzeko helburuarekin sortu zen 1855ean, eta gaur egun ere horretan dihardu borondatez lan egiten duen zuzendaritza batek.

Bi zerbitzu-mota eskaintzen ditu elkarteak: bata, Aretxabaletan bertan hil edo ehortzita-koendako; eta bestea, herritik kanpo hildakoendako –EAE barruan edo Iruñeko ospitalaren batean–. Azken agurra elizan ematen diete hildakoei gehienek,

baina hileta zibilak ere sartu dituzte laguntzen zerrendan, eta herriko zerbitzuan onartutakoa ordaintzen da.

Bulegoa Iralabarri plazan

Kofradiaren bulegoa Iralabarri plazan dago –Gu Haziak Gara elkartearen egoitzaren alboan– eta han artatzen dituzte bazkideak zein argibide eske doazen herritarrek. Horretarako, hileko lehen astelehenean elkartzen dira –hurrengoa apirilaren 3an–, eta ordutegia honako hau da: 18:00etatik 19:30era. Kontsultak posta elektronikoki bidez ere bidera daitezke; hona hemen helbidea: aretxabaletakofradia@gmail.com.

MARTXOAK 8

Emakume ijitoak hizpide egunean, 'Romipen' filmarekin

Martxoaren 8aren bueltako emanaldia da, solasaldiak borobilduta; umeek ipuin kontaketa izango dute

M.A. ARETXABALETA

Emakume ijitoen aniztasuna lantzen duen Helena Bayona zuzendari nafarraren *Romipen* dokumentala emango dute martxoaren 16an, eguna, Arkupen (19:00). Adin eta toki askotariko zazpi emakume dira protagonistak eta gai askoren bueltan jardungo dute ikus-entzunezkoan, besteak beste, egunerokoaren, etorkizunaren eta feminismoaren gainean. Filmaren ostean solasaldia izango da Nafarroako

ijitoen Gaz Kalo elkartearen kide eta dokumentaleko protagonisten parte-hartzearekin.

Umeek, oster, *Ameli* ikuskitzuna izango dute eguaztenean (18:30). Amagoia Elizagoien narratzaileak 3 eta 6 urte bitarteko umei ipuinak kontatuko dizkie Txiki-Txokoan.

Aurretik, martxoaren 12an, Aresko emakume-martxa egingo dute Eskoriatzara; 12:00etan abiatuko dira, Herriko Plazatik –argibide gehiago 16. orrian–.

Udaberri Saria pilota txapelketako hainbat partidu gaur, etxean

Udaberri Saria eskuz binakako txapelketa aurrera doa eta herriko pilotariak maila polita erakutsi dute. Gaur, egubakoitza, hiru partidu izango dira Iturri-gorri pilotalekuan, 18:30ean. Nagusiak, Zugasti eta Uribebarria, final-laurdenetan daude eta Tolosako bikote bat hartu beharko dute mendean aurrera egiteko. Kadeteen mailan bi bikotek jardungo dute: bata Villabonako aurkariak izango ditu eta besteak, Oñatikoak.

Infantilak ere eskuz binakako txapelketa jokatzeko dabil, eta bigarren mailako bi bikotek etxean izango dituzte partiduak, gaur. Hala, harmailak betetzera gonbidatu dituzte herritarrek.

OHARRAK

Trialsin txapelketa

Iparaldeko zonako trialsin txapelketa jokatu da domekan, Oztopo trial parkean. 10:00etan, hasiberrien eta alebiren txanda izango da, eta 12:00etan, infantil, kadete, gazte, elite eta master mailetakoa. Partaideen artean munduko txapeldunak izango direla iragarri dute.

Zinema asteburuan

Irati filma emango dute berriro: egubakoitzean (19:30), zapatuan (22:00), domekan (21:30) eta astelehenean (19:30). Ohiko ordutegian *Almas en pena* de Inisherin izango da eta umeentzat, *Axterix* y *Obelix y el Reino Medio*.

Durana
Hartz Klinika

RPS: 83/19

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

MARTXOAK 8



Aresko Emakumeen Martxako laugarren edizioak utzitako irudietako bat. IMANOL SORIANO

Emakumeen indarrari eta lanari balioa emateko, martxa etzi

Domekan, 'Emakumeok bidea eraikiz' lelopean, Aretxabaletatik Eskoriatzara egingo dute bidea, 12:00etan hasita, eta Ainara Urrutia eta Rosarito Oianguren izango dira Aresko Emakumeen Martxako bosgarren edizioan omenaldia jasoko dutenak

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Emakumeen Nazioarteko Eguneko manifestazioaz gain, *Elbira* dokumentalaren proiektzioa, literatur jardunaldiak, Aresko Emakumeen Martxa, herriko emakume sortzaileen lanen azoka eta askoz gehiago egongo dira martxoan, Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan.

Olatu morea sortzeko asmoz

Domekan, esaterako, Aresko Emakume Martxaren bosgarren edizioa izango da. Aretxabaletako plazan hasiko da ekitaldia, 12:00etan, eta Eskoriatzara oinezko bidea egin ostean, Fernando Eskoriatza plazan izango dira zenbait ekitaldi. Egunerako izena emandakoen artean martxarako kamisetak banatuko dituzte lehenbizi, hala, olatu morea sortzeko asmoz. Aurtengo edizioa Aretxabaletan hasita,

Ainara Urrutia mendi-lasterkaria omenduko dute lehenbizi, eta ohorezko aureskua dantzatuko diote, besteak beste. Eskoriatzarainoko bidea egin, eta Rosarito Oiangurenek jasoko du ondoren aitortza. 13:00etan, berriz, azoka feminista egingo da, eta 14:30ean, zeresan handia izan duen saski erraldoiaren zozketatuko dute. 15:00etan, *Zuk ekarri, zuk jan* bazkaria egingo dute.

Bestelako hitzorduak


Gaur, egubakoitza, 19:00etan, *Elbira* dokumentala proiektatu-

GAUR, 'ELBIRA' DOKUMENTALA PROIEKTATUKO DUTE, 19:00ETAN, ZALDIBAR ANTZOKIAN

ko dute Zaldibar antzokian, doan. Lanak Elbira Zipitria Irastortza irakasle zumaiarraren bizitza kontatzen du. Berdintasuna eraman zuen garaiko irakaskuntzara berdintasunaz hitz egin gabe.

Horrekin batera, martxoan zehar, astelehenetan eta egubakoitzetan, emakumeen kirol jarduera sustatzeko ekintza bereziak egingo dira Manuel Muñoz kiroldegian. Fitness gelak eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko, maila guztietarako saioak eskainiko dituzte eta horretaz arduratuko da Elaitz Iregi eskoriatzarra. Astelehenetan 11:00etatik 13:00etara eta egubakoitzetan 18:00etatik 19:00etara izango da Iregi fitness gelak eskaintzen dituen aukerak irakasten. Interesdunek 943 71 53 28 telefono-zenbakira deitu dezakete.

Omenduak izateko arrazoi ugari




ROSARITO OIANGUREN
ESKORIATZARRA

Adorea soberan duenak aitortza jasoko du

1938an jaio zen Oianguren, Bolibar elizateko Altzarte baserrian. Hamar anai-arrebaren artean gazteena, bizitza osoa izan da etxekoandre, eta, horrekin batera zerbitzari gisa ere aritu da inguruko hainbat jatetxetan. Katekista ere izan zen, eta, haren etxekoek diotenez, irakasle izan nahi zuen, baina egoera oso desberdina zen 60ko hamarkadan.

Yoga praktikatzan aritu zen Oianguren, 2021ean Aresko Emakumeen Martxan omendu zuten Lidia Garcia irakaslearekin, eta tai txia ere praktikatzan hasi zen. Istripu larri baten ondorioz pelbisa hautsi zuen, eta errehabilitazioa ondo eginez eta igerilekuan ordu dezente emanda errekupeatzea lortu zuen.



AINARA URIBARREN
ARETXABALETARRA

Esfortzuaren fruituak jaso bezala omenduko dute

41 urteko mendi lasterkaria euskal selekzioiko kidea da, eta, gaztetatik kirolzalea izan arren, bi alabaren ama izan ondoren 2018 amaieran hasi zen lasterketetan parte hartzen. Gaur egun, Domusa Teknik Team izeneko proiektuan ari da, izen handia duten hainbat korrikalari bidelagun dituela. Lehiatzen hasi zenetik, sekulako emaitzak lortu ditu; honako hauek, adibidez: 2021ean, bigarren postua lortu zuen Euskadiko RFEA txapelketan; 2022an, EMF Kopako txapelduna izan zen eta Euskal Herriko txapeldunorde; eta 2023an, Espainiako RFEA Trail Running maratoi txapelketan hirugarren postuan sailkatu da, besteak beste. Hiru urtean lortutako palmaresagatik izango da omendua.

Saskia osatzeko babes izugarria

Saski feministaren zozketa domekan egingo dute 14:30ean, eta Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideak eskertuta agertu dira jaso duten laguntzarekin. "Aresko Emakume Martxa egunean kirol elkarteak kideak arduratu izan dira saskia zozketatzeaz, baina



aurtenguri eskatu digute antolatzeke eta, apurka-apurka, hasi gara zenbait gauza batzen. Herriko hainbat lekutan eskatzen hasi, eta 40 establezimendu edo norbanakorengandik jaso dugu materiala. Izugarria izan da: hotel baten gaua pasatzeko gonbidapena dago, Akeitan bi afari, dentistarenean ahoko garbiketa bat... Batzen duguna hitzaldiak edo formakuntzak egiteko erabiliko dugu". Txartelak Akeita, Inkernu, Naira, O'Dogerty eta Urrestilla tabernetan, Ixkur eta MKM ile-apaindegietan eta Kuttuna estetika zentroan daude salgai.

Dirulaguntzak eskatzeko aukeren berri, buzoietan

Eskoriatzako Udalak 2023rako aurreikusita duen dirulaguntza deialdien informazioa banatu du etxez etxe. Zein sailetarako eskatu daitekeen, zertarako, nor eskatu dezakeen eta noiz irekitzen den horiek eskatzeko epea zehazten du eskuorriak

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Lau sailetan banatuta –Kultura, Euskara, Garapen Ekonomikoa eta Gizartea– 2023an eskatu daitezkeen dirulaguntzen berri eman du Eskoriatzako Udalak. Etxez etxe banatu dituzte triptikoak, eta bertan zehazten da informazio guztia; udal webgunean ere irakur dezakete interesdunek.

Lau sailetan banatuta

Kulturaren barruan, kultura arloko ekintzak finantzatzeko eskatu ahal izango da: urte osoko egitarauetarako nahiz ekintza puntualetarako. Horrekin batera, Eskoriatzako kaleetan eta kaleko auzoetan jaiak antolatzeke eskatu ahal izango da. Euskarari dagokionez, berriz, egindako euskara ikastaroak ordaintzeko eskatu daitezke. Garapen Ekonomikoari dagozkionez, establezimenduak euskaraz errotulatzeko eta irudi korporatiboa hobetzeko, negozio bat irekitzeko edo eskualdatze-



Banaturako eskuorriak. IMANOL BELOKI

ko lokalak alokatzeko edo erosteko, edo herriko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuetan erosketak sustatzeko. Azkenik, Gizarteari dagokionez, adikzioen tratamenduetan tratamendu-zentroetarako joan-etorriak ordain-

tzeko, gizarte larrialdietarako laguntzetan baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonen laguntzeko, energia-bonua eskatzeko –kasu horretan, baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonen, etxebizitzako energia-gastua finantzatzeko laguntzeko–, gobernuz kanpoko erakundeek garapen bidean diren herrialdeetan lankidetzako proiektuak gauzatzeko eta gizarte arloko ekintzetan gizarte zerbitzuen arloan jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak laguntzeko.

Dirulaguntzak eskatzeko erak

Eskaerak bi modutan egin ditzakete eskoriatzarrek: aurrez arre, udaletxean, *H@zi* zerbitzuaren bitartez, 08:00etatik 14:30era bitartean; edo era telematikoa, etxez etxe banatu dituzten eskuorrietako QR kodea irakurritik edo Eskoriatzako udal webguneko tramiteetan urratsak jarraituz.

'Cromlech' antzerkia domekan Zaldibar antzokian

Evaren Alabak antzerki taldearen *Cromlech* lan berriaz gozatu ahal izango dute domekan Zaldibar antzokira joaten direnek. 19:00etan hasiko da antzerkia, eta Nieves Peña, Sonia Sanz eta Marta Garcia antzezleek antzerki ganberro baina mamitsua eskainiko dute, Elena Aranbarriren gidaritzapean.

Familiako aita hil ondoren, hiru emakume, ama bat eta bi alaba berriz elkartu dira. Ezer ez da gauza bera izango bilera horren ostean. Familiaren sekretuak agertzen joango dira, eta horrek gaizki-ulertuak, harridura eta errua eragingo ditu. Hala ere, egoera horrek ikusleen barrea eragingo du.

'Pinchazos, fantasmas y cero rock & roll' hitzaldia Huhezín

Hilaren 23an 18:00etan egingo du hitzaldia Laura Macaya-Andres ikertzaile eta feminismoan adituak

I.B. ESKORIATZA

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Berdintasun Batzordeak hitzaldi irekia antolatu du Eskoriatzako Campusean. Martxoaren 23an, Eskoriatzako campuseko D.0.3 gelan, Laura Macaya-Andres ikertzaile eta feminismoan adituak *Pinchazos, fantasmas y cero rock & roll: pánicos sexuales, capitalismo y regulación de la sexualidad* hitzaldia egingo du. Saioa 18:00etan hasiko da eta irekia izango da interesa duten guztiendako.

Laura Macaya-Andres (Bartzelona, 1979) gizarte-hezitzailea da, aditua genero-ikuspegian, ebaluazioan, esku-hartzean eta gizarte-kalteberatasuneko egoeran dauden emakumeen laguntzan. Gainera, irakaslea da unibertsitateko hainbat graduongo eta graduatzen, eta profesionalak trebatzen ditu genero-indarkerietan. Nabarmentzen da punitibismoari egiten dion kritikagatik, sexu-indarkeriak abertzeko orduan, eta feminitate transgresoreen alde egiten duen defentsagatik.

LEINTZ GATZAGA | 17



Zikloturistek argazkiak ateratzeko aprobetxatu zuten hitzordua. IMANOL SORIANO

Dorletako ama birjinari debozio handien, Arabako zikloturistek

Joan den domekan, zikloturista ugari batu ziren Arlaban mendatean lore-eskaintza egiteko, urtero moduan

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Urtero, martxoko lehenengo domekan, Arlabango mendatean dagoen Dorletako ama birjinarengana joaten dira zikloturistak lore-eskaintza egitera –txirrindularien zaindaria da–, eta, bide batez, Dorletako Ama Txirrindularien Elkarteko kideek salda prestatzen dute bertaratzen direnentzat. Aurten ere batu dira txirrindulariak han; batez ere, arabarrak.

Batez ere, arabarrak

Zikloturista gehienak taldeka joan zirela domeka goizean lo-

re-eskaintzara adierazi du Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteko kide Joxerra Agirreurretak: "Talde handienak arabarrenak izan ziren: Vitoriana, Durana eta Mercedes, baina gehiago ere izan ziren. Horrekin batera, Galdakaotik etorritako hogeitaz lagunek taldea izan genuen, sorpresa moduan. Eskoriatzarrek iaz kale egin zuten, hitzorduarekin ahaztuta, eta aurten zintzo etorri dira. Haiez gain, Arrasatekoak izan dira, baita Bergarako Lokatzako Ziklismo taldekoak ere... Askok batu ziren; Oñatikorik ez".

GORA ETA BEHERA



Lata mordoia errepede bazterrean

Eskoriatzatik Gatzagarako bide bazterrean plastikozko botilak, zerbeza- eta freskagarri-latak daudela adierazi du herritar batek; haren ustez, sastrakak garbitzen aritu diren langileek botata.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

MARTXOAK 8



Pentsio duinen eta erregularizazioaren beharraz hausnartzeko mahai-ingurua plazan, Martxoaren 8ko manifestazioaren aurretik. J.B.

Antolaketa feminista urte osoan, "modu jarraituan"

Justizia feministaz, bizitza duinez eta begirada ekofeministaz hausnartzeaz gain, Martxoaren 8az harago antolatuta egoteko beharra aldarrikatu dute Martxanetrek: "Kaleak hartzea bezain beharrezkoa da urte osoan zehar, modu jarraituan, antolatuta egotea"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergaran ere hainbat herritar batu ziren Martxoaren 8ko mobilizazioetara (Ikus 2. orria). Martxanetrek deitutako manifestazioaren aurretik, pil-pilean dauden hiru gairen inguruan hausnartu zuten plazan mahaiaren bueltan. Hala nola, honako hauen gainean: justizia feminista eta *Soilik baietz da baietz* legea; zaintza, erregularizazioa

eta pentsio duinak; eta herri bizien aldeko begirada ekofeminista.

Justizia feministaren "beharra" Espainiako Diputatuen Kongresuko asteko gaia izan da *Soilik baietz da baietz* legea: "Justizia eredu patriarkal eta arrazista honek ez gaitu asetzen. Beharrezkoa da gaur egungo justizia ereduari kritika egin eta alternatibak

planteatzea. Ezin gara soilik zigor eta kondenetara mugatu; erasotua izan eta prozesu judizial batek dakarrena oso gogorra da. Eta, beraz, errepazioak leku gehiago izango duen eta birbiktimitzaila izango ez den justizia eredu behar dugu. *Soilik baietz da baietz* legeak gogoetarako asko eman eta aurrerapauso batzuk ere ekarriko dizkigu. Hala ere, herri mailan gure esku gauza

asko daude: prebentzioa eta formakuntza eguneratzea, gune seguruak sortzea, kudeaketari begira ardurak partekatzea eta erasoak ez errepikatzeko bermeak ezartzea...

Denondako bizitza duinak

Denondako bizitza duinak bermatzeko hiru errealitate azalartu zituzten Martxanetrek: pentsiodunen mugimendua, erregularizazioaren aldeko ekimenak eta zaintzak. Honako hau eskatu zuten: "Zaintza-sistema publikoa eta ondo hornitua; pentsiodunekin herri honek duen zor patriarkala ezabatzea eta gutxieneko pentsio duina bermatzea; Atzerriartasun Legea bukatzea, eta Euskal Herriko 37.600 pertsonaren erregularizazioa onartzea".

Begirada ekofeministatik

Begirada ekofeministaren garrantzia ere azpimarratu zuten: "Eguneko sistema kapitalista, estraktibista eta suntsitzailaren aurka borrokatuko gara, luraren suntsiketaz gain herriaren eta bertako bizitzaren desagerpena dakarrelako. Horregatik, gure lurra babestuko dugu, bizitza duina izango duten baserritar gehiago egon daitezen... Herriko denda eta zerbitzu-guneak mantentzearen alde egingo dugu, ekoizpen eta salmenta sistema ondasun komunala hobetzera bideratuz, gure kontsumo ereduaz hausnartuz, herrira eta gertukora hurbilduz, denok hobeto bizi gaitezen".

Feminismoaren giharra indartu

Amaitzeko, "modu jarraituan" antolatu beharra ere azpimarratu zuten: "Eduki feministak kontsumitzearekin ez da nahikoa. Mugimendu feministaren giharra

eta pertsona konprometituen kopurua indartu behar dugu. Zaindu dezagun konpromisoa eta militantzia: asko eskertzen dugu gaur [eguztena] zuek denok hona etorri izana, baina dei zuzena egin nahi dizuegu: kaleak hartzea bezain beharrezkoa da urte osoan zehar, modu jarraituan, antolatuta egotea".

Datozen egunetako ekintzak

Hainbat ekintza egongo dira datozen egunotan. Gaur bertan, Berriketan taldearen *Arima* dantza ikuskizuna (Ikus 21. orria) egongo da Seminarixoan (20:00). Bihar, hilak 11, bazkaria egingo dute gaztelekuan -han eman behar da izena-. Martxoaren 30ean, *Katuen kontuak* ikuskizuna aurkeztuko dute Seminarixoan (20:00) Ines Osinagak eta Joseba Sarriondiak. Gainera, martxoaren 19ra arte zabalik dago Bergarako emakume artisten *Hitza eta artea* erakusketa.

Bestalde, ZinemaOn zineklubak Martxoaren 8ra egokitu ditu martxoko eguztenetako proiektioak, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin: hilaren 15ean, *Women talking* pelikula; hilaren 22an, *Ramona*; eta hilaren 29an, *Corsaje*. Era berean, pentsiodunek, Bedelkarrek eta ludotekak, besteak beste, bat egin zuten Martxanteren deialdiekin eta herriko hiru ikastetxeetan askotariko ekimenak egin zituzten aldeztu aurretik.

HAINBAT EKINTZA ORAINDIK; EMAKUME ARTISTEN LANAK IKUSGAI AROZTEGIN, HILAREN 19RA ARTE

Sormen txokoa sortu nahi du Jardunek Erramu-zapaturako

Erramu-zapatuan klasikoa izan da hainbat urtez gaztetxoendako txorimalo lehiaketa. Aurten, baina, berrikuntzekin dator Jardun euskara elkarte eta sormen txokoa sortu nahi du 6 eta 12 urte artekoendako: "Helburua da sormena lantzea azokan ikusi ahalko duguna kontuan hartuta". Hau da, feriarene bueltako gai bat oinarri hartuta, marraz-

ki, eskulan, mural, txorimalo, jakiak edota lore sorta bat sortzeko proposamena egin dute; hori bai, lan bakoitzak euskaren gaineko esaldi, lelo edo bertso bat izan beharko du. Izena eman behar da hilaren 22rako, gaztejardun@topagunea.eus helbidera idatzita, 605 71 24 69 telefono-zenbakira deituta edo Jardunen bulegora joanda. Martxoaren 27tik 29ra Jarduneko bulegora eroan behar da sortutako lana eta asmatutako esaldia; sariak egongo dira.

Ur-jarduerak antolatu dituzte umeentzat martxotik ekainera

Udalak umetxoei zuzendutako ur-jarduerak antolatu ditu martxoaren 25an hasi eta ekainaren 17ra bitartera, 6 hilabete eta 4 urte artekoentzat: "Helburuak gurasoei ur-jardueren bidezko garapen motorrerako oinarritzko irizpideak ematea da; era berean, beldurra uxatzea eta guraso zein umeei erabateko autonomia ematea ere lortu nahi dute, pre-

mia eta gogoetara moldatuta, betiere, ur-jarduerekin goza dezaten. Jarduera horien bidez, umearen garapen motorra aberastu eta ume eta gurasoen arteko harremana garatuko da".

Izena eman daiteke hilaren 16ra arte, eta hurrengo egunean argitaratuko dira behin-behineko zerrendak; hilaren 20an egingo da zozketa behin betiko zerrendarako. Plaza librerik baldin bada, hilaren 20tik 22ra beteko dira. Argibide gehiago: 943 77 70 95 edo agorrosin@bergara.eus.

Monzon-Ganuja saria jasoko du Amurizak martxoaren 16an

Xabier Amurizak martxoaren 16an jasoko du Monzon-Ganuja Euskal Utopikoei saria, Seminarixoan (18:30). Amuriza omentzeaz gainera, bertsoaz eta musikaz gozatzeko aukera egongo da irekia izango den ekitaldian, Maialen Lujanbiorekin eta Bergarako bertso eskolako kideekin. Iker Serranoren *Haitz_erra* artelana jasoko du Amurizak.

Bergararren ekarpenak jaso nahi ditu Letek, programa osatzeko

EAJko alkategaia "gogotsu" dago herritarrekin bertatik bertara egoteko: "Bergara bergararrekin eraiki nahi dugu"

J.B.L. BERGARA

EAJko alkategai Mikel Lete herriko "hainbat" elkarterekin egon da haien proposamenak jasotzeko: "Oso aberasgarria izaten ari da, eta ildo horretan jarraitu nahi dugu bergararren-gana hurbiltzen, haiek entzuten eta haien kezak eta proposamenak gertutik ezagutzen". Udal hauteskundeetarako programa "bergarar guztiekin" osatu nahi dutela adierazi du Letek: "Bergarar guztien proposamenak jaso nahi ditugu".



Lete, EAJko beste kide batzuekin. EAJ

Leterekin harremanetan jartzea

Letek dio ekarpenak bertatik bertara jasotzeko "gogoz" dagoe-la: "Pertsonak erdigunean jarri nahi ditugu erabakiak hartzerakoan. Esperientziak erakutsi digu proiektu parte-hartzaileekin erakundeotan izan ditzakegun ideiak aberastu egiten direla".

Bi modu zehaztu dituzte Leterekin harremanetan jartzeko: 688 73 52 88 telefono zenbakia -whatsapp mezuak barne- edo eajpnb-bergara@gmail.com helbide elektronikoa. Telematikoki betetzeko inkestak ere atera dituzte: labur.eus/bergaraentzunez.

Monzon hil zela 42 urte: hura gogoratzeko murla saihebidetan

Atzo bete ziren 42 urte Telesforo Monzon hil zela, eta, hura gogoratzeko, *Lorontzia berreraikiz* irudi artistikoa jarri du Sortuk asteon saihebidetan: "Euskal Herria berreraikitzeke gure konpromisoa adierazi nahi dugu; Euskal Estatu feminista, sozialista, euskaldun eta batua eraikitzeke deia zabaldu nahi diegu herritar guztiei".



Murala saihebidetan. SORTU

Ernai: Arrano pilota txapelketarako izen-ematea zabalik dago

Arrano pilota txapelketa herrikoia antolatu du Ernaik. Aukera dago izena emateko martxoaren 19ra arte, Bergarako Arrano, Elgetako Haizea eta Antzuolako Aitz Garbi tabernetan; bikote bakoitzak 22 euro ordaindu beharko du eta kamiseta bana jasoko dute. Apirilaren 3an hasiko da txapelketa; finala maiatzaren 20an izango da.



Jaurilaritzaren Spri erakundeak kudeatzen duen Larramendiko industrialdeko H partzela, artxiboko irudi baten. GOIENA

Ingurumen-baimenari demanda jarri dio Udalak

lazko ekainean bide administratiboa amaitu ostean, Udalak epaitegietara jo du Larramendiko plantaren auzian; Jaurilaritzak Valogreene enpresari emandako ingurumen-baimenaren aurkako salaketa jarri du EAEko Justizia Auzitegi Nagusian

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Paper-fabriken hondakinak azpiproduktuak tratatzeko Larramendin aurreikusita zegoen plantaren etorkizuna epaitegietan dago. 2022ko ekainean bide administratiboa itxi ostean, Bergarako Udalak epaitegietako bideari ekin dio Larramendiko plantaren aferan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian demanda jarrita.

Udalak arrazoiak berretsi ditu

Eusko Jaurilaritzako Ingurumen Sailak Valogreene enpresari planta hori egiteko eman zion ingurumen-baimen bateratua eman izanagatik jarri du demanda Udalak. Salaketa jartzea-

ren arrazoi nagusiak bi dira, Udaletik prentsa ohar bidez berretsi dutenez: "Prozesu hau hasi zenetik esan moduan, udal planeamenduaren defentsan egin beharreko urratsak egingo ditu Udalak. Izan ere, Udalak ulertzen du enpresa horri aipatutako baimena emateak, bate-tik, Bergarako udalbatzak aho batez onartutako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren kontra egiten duela, eta, beste-tik, ez duela aintzat hartzen Bergarako hiri ordenamenduak dioenari jarraituz emandako kontrako hirigintza bateragarritasun txostena ere".

Bestalde, Eusko Jaurilaritzako Ingurumen Sailera ere jo du

GOIENAK, proiektuaren gainean duen irakurketaren berri jasotzeko, baina ez du oraindik erantzunik jaso.

Manifestazioa maiatzaren 20an

Proiektuaren aurkako Larramendiko Arnasa taldeak "kezka" bizi du prozesua, eta, adierazi dutenez, maiatzaren 20an Gasteizen egingo den *Lurraren defentsan, Euskal Herria bizirik* lelo izango duen manifestaziora begira ari dira "buru-belarri" lanean. Euskal Herri mailako manifestazioa izango da eta bertan parte hartuko dute "landa-eremua industrializatuko duten azpiegitura" ugariren aurkako beste "hainbat eragilek" ere.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

121
K
KALITATEA

Enpresa Registrada N°99/625

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

'Kaiola'-ko txapelen jabe izateko finalistak, prest

Soraluce lau eta erdiko txapelketako promes mailan Beñat Zubizarreta eta Unai Amiano lehiatuko dira eta nagusietan, berriz, Javier Oskoz eta iazko txapeldun Gaizka Carregal; lehiaketa ezagunaren 13. edizioko finalak hilaren 14an jokatu dira, 19:30ean hasita

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Martitzenean jokatu ziren Soraluce lau eta erdiko pilota txapelketako 13. edizioaren barruko bigarren finalerdiak, promesen eta nagusien mailetan.

Zubizarreta vs Apeztexea: 22-13 Promes mailako bigarren finalerdi Beñat Zubizarretaren eta Beñat Apeztexearen artekoa izan zen; Zubizarreta gailendu zen (22-13). "Zubizarretak sakez min handia egin zion Apeztexeari, eta ezkerreko paretara hainbat pilota zail sartu zizkion. Zubizarretak erakutsi zuen oraindik ere Apeztexearen gainetik dagoela", dio BKEko Pilota Saileko arduradun Julen Aranburuk. Zubizarretak Unai Amianoren aurkako jokatu du promes mailako finala, martxoaren 14an, 19:30ean hasita.

Oskoz vs Canabal: 22-21

Nagusien mailako bigarren finalerdi, berriz, oso lehiatua izan zen. "Oso partidu gogorra eta luzea izan zen. Oskoz jarri zen aurretik, baina bazirudien bigarren zatian Canabalek buelta emango ziola, fisikoki hobeto zegoela zirudielako... Hala ere, Oskozek ez zuen amorerik eman eta erreperatzen joan zen tantotik tantora. Tanto oso gogorrak



Nagusien mailako Javier Oskoz eta Oihan Canabal, epaileen ondoan. BKE-KO PILOTA SAILA

TXAPELKETA ONDO DOA, ANTOLATZAILEEN ARABERA: "EA FINALEK IKUSKIZUNA ESKAINTZEN DUTEN"

jokatu zituzten, bereziki, partiduaren azken txanpan; Oskoz hobeto aritu zen tantoak amaitzeko orduan. Horren adibide da 21-21 zihozela Canabal zabalera joan zitzaion", zehaztu du

Aranburuk. Oskozek iazko txapelduna izan zen Gaizka Carregal izango du aurrez aurrez martxoaren 14ko finalean.

Finaleko ikuskizunaren zain

Txapelketa ondo doala dio Aranburuk, nahiz eta onartu duen promes mailan pare bat partidu desorekatuak izan direla. Nagusien mailan, berriz, "gogorrak eta lehiakorak" izan dira partidu gehienak. Finalerdietan zale asko izan ziren: "Pozik gauden, alde horretatik; ea finalek ikuskizuna eskaintzen duten".



GOIENA

'Bretxa', agertoki berrien bila

Donostiako eta Bergarako emanaldi arrakastatsuen ostean, amaitu da, oraingoz, *Bretxa*-ren ibilbidea. Egileek, baina, nahiko lukete gehiago zabaldu. "Asmoa badugu *Bretxa* gehiago mugitzeko, baina honaino iritsi zaizkigu sosalak; horregatik, ezinbestekoa izango zaigu erakunde publikoen edo beste eragile pribaturen baten laguntza", aitortu du musikaleko zuzendari Oihan Vegak.

Erakusketa egiteko argazkiak eskatu ditu Xaxau konpartsak

Xaxau konpartsa lanean ari da maiatzaren 26tik 30era ospatuko diren Pentekosteetarako. Ez dakite ziur txosnagunea Bideberrin edo Oxironon jarri beharko duten Masterreka kalea berriro urbanizatzeko lanek eraginda: "Ez dakigunez Masterreka zabalik egongo den jaiak heltzen direnerako, iaz moduan Oxironon kanpoan jarri beharko dugu-

la uste dugu, eta ikuspegi horrekin ari gara lanean. Gainera, iaz oso ondo egon ginen Oxironon". Bestalde, aurtun 15 urte bete dituztela ospatzeko "hainbat ekintza" egin nahi dituzte; esaterako, erakusketa bat antolatzen ari dira eta Xaxauren bueltako "askotariko argazkiak" bidaltzeko eskatu dute; argazkiak xaxaukomunikazioa@gmail.com helbide elektronikora bidali behar dira. Erakusketa Pol-Pol tabernan jarri nahi dute, apiril erdialdetik aurrera.

OHARRAK

Gorlako kantina: kontzertua eta bertso bazkaria

Martxoaren 19an, Hizpide taldeak joko du, 13:00etan. Martxoaren 25ean, bertso bazkaria izango dute, Xabi Igoarekin, Ane Zuazubiskarrekin eta Gari Lopez de Munianekin. Aldez aurretik izena emateko eskatu dute, 943 58 50 28 telefono zenbakira deituta. Prezioa 30 euro da -kafea eta kopa barne-.

Kukubaso: bertako zuhaitzen landaketa

Martxoaren 26an elkartuko dira, Miguel Altuna institutuaren egoitza berriaren atarian, Agirretxeberri zuhaitzak landatzeko. Izena emateko eskatu dute: kukubasoelkarte@gmail.com.

Lokatza Ziklismo Eskolaren aurkezpena

Denboraldia aurkeztuko dute hilaren 14an Seminarixoan (19:00).

'Maddiren trajeria' pastoralerako sarrerak

Martxoaren 25ean frontoian (18:00) egingo den ikuskizunerako sarrerak salgai daude www.seminarixoa.eus-en, 15 eurotan.

Mariaren Lagundia: elkartrukerako zozketa

DBHko laugarren mailako ikasleek antolatutako zozketa da, Herbehereetara joan daitezen. Zenbaki irabazlea 3.718 da.

Barrocal, onena Ados txapelketan

Eskuz binakako Ados txapelketa irabazi zuten Maddi Barrocal bergararrak eta Olatz Ruiz de Larramendi ameskoarrak joan den domekan Zumarragan (22-12). "Oraindik ez dut sinesten, sekulako txapelketa egin dugu; oso pozik nago. Ez dugu partidurik galdu, plazera izan da Olatzekin jokatzeko", dio Barrocalek. Txapelketako pilotaririk onenaren saria jaso zuen bergararrak.



Barrocal eta Ruiz de Larramendi, Ados txapelketa irabazi berriak. M.B.



Isladak taldeko Burgos, Altube, Garitano, Irizar eta Narbaiza, Zabalotegin. I.A.A.

Oholtza zapaltzeko gogoz dator Isladak

Isladak antzerki-proiektua sortu dute Bergaran eta martxoaren 17an egingo dute aurreneko emanaldia, Seminarixoan; Jabi Burgos eta Mikel Irizar dira sortzaileak, eta, azaldu dutenez, antzerkigintzako interesa sortzeko eratu dute taldea

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Jabi Burgosek eta Mikel Irizarrek aspalditik zuten antzerki talde bat sortzeko asmoa, eta nahia egia bihurtu da. Duela urtebete pasatxo hasi zituen Isladak Antzerki Sozialak entseguak, eta lan horien emaitza taularatuko dute hamabost lagunek hilaren 17an, 20:00etan, Seminarixoan. Lau antzerki labor prestatu dituzte lau talde txikik, eta, tartean, Leire Moñux abeslariaren kantuen izango dira entzungai.

Gizartearen isla izateko asmoz

Bergarak kultura musikala baduela ikusi zuten Burgos eta Irizarrek; herritarrek "antzerkikira afizionatzeko edo, gutxienez, interesa sortzeko zerbait sortu" nahi zutela diote: "Mundu honetara gerturatzeke zailtasunak dituztenei aukera bat ematea".

Antzerki sozial bezala definitzen dute euren burua, antzerkia egiteko zailtasunak dituzten kolektiboei ere aukera bat eman nahi baitiete. Hamabost lagunek gorako antzerki-taldea osatu dute, Bergarako, Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako adin askotariko herritarrekin. Burgosen esanetan, "badaude kolektibo batzuk ezin dutenak parte hartu halako gauzetan. Adibidez, jubilatutako batzuk daukagu eta batzuk lehen aldiz igoko dira oholtzara; baita downen sindromea duten bi gazte ere".

Aldi berean, mezu sozialak ere zabaltu nahi dituzte. Horregatik jarri diote Isladak izena proiektuari, "gizartearen isla" izan nahi dutelako. Irizarrek gaineratu duenez: "Oso erritmo azkarrean bizi gara, gauza txi-

kiekin konturatu barik, duten garrantziarekin".

Lehen aldiz publikoaren aurrean

Mertxe Altube, Rosarito Garitano eta Blanca Narbaiza dira jubilatuetako hiru. Altube eta Garitano Isladakekin murgildu dira antzerki munduan; Narbaizaren kasuan, zenbait urtetan Bergarako Antzerki Musikalean hartu zuen parte.

Garitanok aipatu duenez, Mikel Irizarrek bere asmoen berri eman zion amaginarrebari, eta azken horrek lagun artean za-

LAU ANTZERKI LABOR TAUARATUKO DITUZTE HAMABOST ANTZEZLEK HILAREN 17AN

baldu zuen. Horrela, ahoz aho, sei emakume jubilatutako elkartu ziren eta taldeetako bat osatu zuten. Narbaizak dio "saltsero" hutsa dela eta koru parrokiako entsegu batean jaso zuela Garitanoren proposamena: "Esan bezain pronto esan nuen baietz".

Denera, lau talde eratu dira, eta, 2022ko urtarrila ezkeror, astero egin dituzte entseguak. Tailerrekin hasi ziren antzerkiarekin lehen kontaktua izateko, eta uztail aldera sartu zituzten testuak. Aitortu dutenez, abuztuan soilik hartu dute atsedena, eta ez dute egun batean ere hutsik egin.

Seminarixoa beteta

Azken hilabeteetako lana publiko egitea egokia zela pentsatu zuten bi sortzaileek, "hainbeste denboran" lanean jardun ostean. Hortaz, martxoaren 17an, 20:00etan, Seminarixoan izango dira ikusgai lau taldeek antzeztutako 10-15 minutuko lau mikropieza. Ia sarrera guztiak agortuta, gustura daude izandako erantzunarekin, uste baino arrakasta handiagoa izan baitu.

Horrela hasi zen dana izeneko obrarekin hasiko da emanaldia. Sei emakume jubilatutako izango dira taula gainean, eta Isladak proiektuaren muina izango du ardatz: antzerkia eta elkar konbentzitzea. Rosarito Garitano eta Mertxe Altuberekin batera antzeztuko dute R. Mari Larrañagak, Conchi Arregik, M. Tere Muruamendiarek eta Maritxu Barrenak.

Ondoren, Harold Pinterren *Disturbios en la fábrica* piezaren txanda izango da, eta Mikel Izurategik eta Mikel Irizarrek antzeztuko dute. Hirugarrena Blanca Narbaizaren bakarrik-

keta izango da: *Autobus geltokia*. Dioenez, emakume "koitadu" bat du protagonista: "Aurreiritzi asko ditut, bakarrik dago, ezkorra da, amorratuta, eta triste bizi da". Azkenik, *En el restaurante*. Marieta Lopez de Pinedok idatzitako *Diamantes de ciudad* antzeztanaren zati baten moldaketa egingo dute Beñat Barrutiak, Paula Marcosek, Maren Bruñak eta Eider Sanchezek.

Halaber, antzerkiari "beste goxotasun bat emateko eta ondoren datorren piezari testuingurua emateko", Leire Moñuxek antzeztanarekin zerikusia duten abestiak kantatuko ditu.

Proiektu irekia

Hauxe diote Burgosek eta Irizarrek: "Hamabost pertsona gaude, eta badirudi denek jarraitzeko gogoia dutela. Hala ere, datorren urtera begira jendea animatzen bada eta gogoia badute, ongi etorriak izango dira".

Antzeztuak bai, baina edozein ideia edota gai proposamen ere esku-zabalik hartuko dutela diote, Isladak ez baita antzezteko bakarrik: "Obrak idazteko ere bada. Norbaitek gai interesgarria badu taularatzeke, gu gertu gaude gaia hartu eta antzezten laguntzeko; baita euren esperientziak kontatzeko ere".

Horrekin batera, eskerrak eman nahi dizkiete Isladak proiektu sozialean parte hartu duten guztiei, baina proiektua osatzen dutenei ere: "Eduki duten jarrera, jarri duten ilusioa, esfortzua eta hartu nahiz bete duten konpromisoa ikaragarria izan da. Puntu honetan gaudela, oso gustura gaude emaitzarekin, sortu dugunarekin, eta hurrengo egubakoitzeko ekitaldia polita izango dela uste dugu".

Berriketan konpainiaren 'Arima' dantzaldia gaur iluntzean

Flamenkoa eta txalaparta uztartuko dituzte Askoa Etxebarrieta 'La Pulga' dantzariaren emanaldian

I.A.A. BERGARA

Berriketan konpainiaren eskutik, *Arima* izeneko dantza-emanaldia izango da ikusgai gaur, arratsaldeko zortzietan, Seminarixoan. Sarrerak salgai daude dagoeneko www.seminarixoa.eus webgunean.

nean, zortzi euroren truke. Konpainiaren bigarren sorkuntza-proiektua da bihar eskainiko dutena, eta txalapartaren eta flamenkoaren arteko fusioa egiten dute artistek oholtza gainean ordu eta erdiko ikuskizunean.

Konpainiaren hitzetan, euskal txalaparta bertso nahiz kantu eta flamenkoaren pasio, dantza eta doinuekin osatutako "binomio orekatua" da.

Askoa Etxebarrieta flamenko dantzaria, *La Pulga*, igoko da oholtzara eta ondoan izango ditu txalaparta jotzen Mikel Aveiro eta Aitor Korta, gitarra-jole Miguel Linares eta perkusioan Adrian Larrañaga. Musikari haien doinuei Eider Elorzak eta Angel Lopez de Torok jarriko diete ahotsa.

Askoa Etxebarrieta *La Pulga*. GOIENA

Familiendako antzezlana bihar Seminarixoan

Gorakada Teatroak 4 urtetik gorako haurrei zuzendutako *Kelonia eta itsasoa* obra taularatuko du bihar, 18:00etan, Seminarixoan. Sarrerak salgai daude www.seminarixoa.eus webgunean, lau eurotan. Dortoka bat da protagonista eta adiskidetasuna eta biziraupena ditu oinarri abesti itxura duen antzeztan.

Indarberritzeko nahia du Antzuola Lagunkoia

Pertsona nagusienak jomugan jarrita lanean diharduen taldea da. Zortzi eremutan jarduten dute, baina orain, batik bat, norbanako pertsonengan jarri nahi dute arreta. Etorkizunera begiratzeko nahia ere badute. Hala, parte hartzeko gonbita egin dute

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Herritarrek, baina, batik bat, pertsona nagusienak, "seguru eta bizi-kalitate onarekin" bizi daitezten, lanean dihardu Antzuola Lagunkoia 2014 ezker, herrian dauden hutsuneak edo hobetu beharrak detektatzen eta ikusitakoak Udalari zein Mankomunitateari helarazten. Alabaina, taldekoek ohartarazi dute gero eta gutxiago direla, eta, beraz, "indarberritzeko eta egonkortzeko" nahia dute.

Kontxi Elorza eta Pilar Etxaniz taldekideek azaldu dutenez, zortzi eremutan jarduten dute: garraioa, etxebizitza, partaidetza



Hilaren 2an egin zuten Antzuola Lagunkoia aurkezpena, Landatxopen. A.R.K.

eta ehun soziala, errespetua eta inklusioa, herri partaidetza eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, osasuna eta gizarte zerbitzuak, eta kanpoko guneak eta eraikuntzak. Hala, arlo horietako batzuetan detektatutako 75 eginbehar zerrendatu zituzten lehen urteetan, eta ondoren, jasotakoak garatzen aritu dira.

Horrela jarraitu nahi dute aurrerantzean ere, baina, batez ere, norbanakoengan dute jarria arreta: "Auzoetan pertsona indibidualak izan ditzaketan arazoak detektatu nahi ditugu: bakardadea, etxetik irten ezina... Hori detektatu eta nola lagundu genezakeen pentsatu".

Etorkizuneko herria

Horrez gainera, etorkizunera ere begiratu nahi dute. "Nola eboluzionatuko duen populazioak, ea orain arteko zerbitzuak nahikoa diren ala ez... Unea iritsi aurretik, hori guztia aurreikusi nahi dugu, horren planifikazioa parte-hartzearen bidez gauzatu".

Taldea "dinamikoa" dela nabarmendu dute, eta euren arteko harremana "errespetuzkoa"

dela. Ordea, gonbita egin diete parte hartu nahi dutenei.

Landatxopen ere aldaketak

Lotura estua du egitasmoak Landatxo jubilatuta eta pentsioidunen elkartarekin, parte baita. Eta, hain justu, elkartekoak ere aldaketa prozesuan daude, zuzendaritza batzordea berri nahi baitute.

Azaldu dutenez, taldearen lana da, besteak beste, ospakizunak prestatzea, bidaiak antolatzea eta diru kontuez arduratzea, hiru urtez. Baina horretarako, boluntarioak eskatu dituzte, pandemia ezker "normaltasunera itzultzea" kostatzen ari zaiela nabarmendu baitute.

Agenda soziokulturala

Hala ere, ez daude geldirik. Hilaren 15ean, Arantxa Bengoetxeak testamentuei buruzko hitzaldia egingo du elkartean, 17:30ean. Martxoaren 20an eta 22an, erorketa tailerrak egingo dituzte; 23an, Ordiziako Umore Ona koralaren ikuskizuna egongo da; eta, 30ean, egun osoko irteera egingo dute Tolosara, museok eta herrigunea ezagutzeko.

Olatz Lezeta Urzelai izango da EH Bilduren alkategaia

45 urte ditu hautagaiak, eta herriko elkarte eta ekimen ugari hartu du parte. "Ilusioz" ekingo dio erronkari

A.R.K. ANTZUOLA

Olatz Lezeta Urzelai izango da Antzuolako EH Bilduren alkategarako hautagaia maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskundeetan. 45 urte ditu, antzuolarra da, eta adierazi du "ilusio handiarekin" ekingo diola esku artean izan dezakeen erronkari.

Goi Mailako Mekanizazio zirklo ikasketak eginak ditu Lezetak eta 23 urte daramatza Matz Erreka kooperatiban lanean, sarbide eta ate automatizatuaren negozioaren arloan jardunean. Horrez gainera, bi seme-alabaren ama da eta ezkon-duta dago, Antzuolako EH Bilduk jakinarazi duenez.

Herritarrekin batera

Alderdiaren arabera, Antzuolan "pertsona ezaguna" da eta ekimen eta elkarte ugari hartu izan du parte urteetan. Are gehiago,



Lezeta, EH Bilduko hautagaia. EH BILDU

Lezetak berak ere nabarmendu du aurrerantzean lanean jarraitzeko gogoz dagoela: "Konpromisotik, herritarrekin batera, herriaren alde lan egiteko gogoz nago".

Bada, orain, zerrendakideak ezagutzea falta da.

HAPOren aukeren berri emanda, jendaurrean jartzeko txanda da

Lantzeko arloak dira mugikortasuna, espazio libreak eta ekipamenduak, jarduera ekonomikoa eta etxebizitza

A.R.K. ANTZUOLA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra garatzen dabil Antzuolako Udala, eta, herritarrekin lurren hausnarketa eginda, aurrerapen-dokumentua aurkeztu dute Hirigrama kooperatibako arkitektoek. Erabakirik, ordea, ez da hartu; jendaurrean egongo da hiru hilabetez, eta, ostean, beste biz, alegazioetarako. Alabaina, eginiko proposamenak mahai gainean daude.

Mugikortasunean, Etxezuri alboan biribilgune bat egitea da aukera bat; horrek bide emango luke errepidea estutzeko eta oinezkoena zabaltzeko, bidegorriri jarraitutasuna emanez. Lizarraga hiribideko biribilgunean eta Antiguako bidegurutzean aldaketak egin daitezkeela adierazi dute, eta osasuna hirigintzan barneratzearen garrantzia ere azpimarratu dute,

horretarako propio zirkuituak eginda herrian.

Espazio libreak

Erreka alboan parke bat egitea dago proposamenetan, bainatze-gune ere izan daitekeena: Matz Erreka ingurua, Ibarreko zelaia eta ahateen alboko espazioa proposatu dituzte. Ekipamenduetan, berriz, autokarabamentzako gune bat egitea bisitarietarako, Matz Errekan.

Ekonomia eta etxebizitza

Jarduera ekonomikoa, Goizper handitzeko eskariari men eginez, aukeratutako inguruan lur batzuk zehaztea. Horrez gain, Matz Errekan pabiloi bat egiteko aukera ere bada.

Etxebizitzan hiru zonalde posible daude: Oerlikon Balzers ingurua, Lizarraga hiribidea eta Kalebarren, Eperra alboan.

Ate irekiak eta bisita gidatuak elizaren 500 urteak ospatzeko

Duela 500 urte eman zuen aita santuak Errukizko Amaren parrokia eraikitzeke bulda, eta urteurrena ospatzen dabilta. Bihar, zapatua, ate irekiak eta bisita gidatuak egingo dituzte, 11:30etik 13:00etara eta 18:30etik 20:00etara. Etzi, berriz, Donostiako apezpikuak meza esango du 11:00etan, eta, ostean, bulda ikusgai izango da sakristian.

OHARRAK

Erakusketa

Euskal Herriko bazterrak argazki erakusketa, asteburuan, Orlanen.

Pilota topaketa

Debagoieneko neskak, bihar, 16:00etan, frontoian.

Ikuskizuna

Beatriz Egizabalen *Magma Mia* bakarriketa, etzi, 18:00etan, Torresorotan.

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA

Debagoieneko gazteak kazetari 'Galdegazte'-n

Abian da 'Galdegazte'-ren bederatzigarren aldia eta hirugarren saioan Ane Zuazubiskar bertsolari eta kazetaria elkarriketatuko dute Oñatiko Institutuko ikasleek; atal berri bat eguenero ikusgai, 21:30ean eta 23:30ean, Goiena telebistan

Galdegazte saioaren bederatzigarren edizioa dagoeneko emision dago eta, beste denboraldi batez, Debagoieneko 14 eta 18 urte bitarteko ikasleak kazetari lanetan arituko dira pantaila aurrean. Bailarako ikastetxeekin eta Mankomunitatearekin egindako elkarlanaren emaitza da egitasmoa, telebistako saioaz harago doana.

Guztira, hamar saio eskainiko dira, eta, hortaz, hamar ikastetxe eta beste horrenbeste gonbidatu pasako dira *Galdegazte*-ko platotik. Gazteek kamera aurreko nahiz atzeko lanak ezagutuko eta egingo dituzte, eurak baitira protagonistak.

Imanol Beloki aurkezle

Zenbait berritasunekin iritsi da bederatzigarren aldia, baina nagusia aurkezle aldaketa da, oraingo honetan Imanol Beloki kazetaria baitute bidelagun ikasleek. "Gogoz" hartu du erronka eta orain arte egindako graba-

ketak "aurreikusitako baino hobeto" joan direla aitortu du.

Prestaketaren egitura urterokoa izan da: formakuntza, gidoiaren lanketa, produkzio-lanak eta grabaketa. Aurkezleak formakuntza-saioak eman ditu ikastetxeetan, proiektuaren eta Goiena Komunikazio Taldearen xehetasunak emateaz gain, kazetari multimediaren figura azaltzeko: "Besteak beste, MOJO ekipoei eskuko telefonoarekin grabaketak nola egiten ditugun adierazi diegu, oinarritzko kontzeptuak azaldu eta praktikan jarri. Ikasleen erantzuna paregabea izan da".

Saio bakoitzean ikasle seikote batek hartuko du parte. Hiru

izango dira elkarriketatzailerak eta beste hiru errealizazio-gelan egongo dira. Goienak Arrasaten duen egoitza bisitatu dute eta *Galdegazte*-ko lantaldearekin findu dituzte elkarriketak. Imanol Belokiren hitzetan, "ikasleak gonbidatuaren gertukoekin ere jarri dira harremanetan programarako bideotxoak eskatzeko".

Proiektuaren asmoetako bat "ohiko telebistatik haragoko ikus-entzunezko piezak sortzea" da. Arrazoi horrenatik, *Zut* aldizkari digitalerako ere egin beharko dituzte lantxoak neska-mutilek. Grabaketen ostean, elkarriketatuari *quiz* azkarra egingo diote, minutu batean, ahalik eta galdera gehien erantzuteko. Hala, sailkapena osatuko dute gonbidatu guztien artean.

Gustuko gonbidatuak

Kazetari lanaren baitan, ikasleek egin dituzte elkarriketatuen proposamenak. Lehen bi saioetan *El conquis* saioko Ainize



Imanol Beloki eta Bergarako Aranzadi Ikastolako ikasleak Aiert Alberdirekin. A.A.

Lizarralde eta Aiert Alberdi abeslaria elkarriketatu dituzte eta datorren eguenean, hilaren 16an, Ane Zuazubiskar bertsolaria gertuagotik ezagutzeko aukera egongo da Oñatiko Institutuko ikasleen eskutik. Ondoren, bailarako beste aurpegi ezagun batzuk pasako dira platotik, hala nola Neomak

taldeko Leire Etxezarreta, Etxepe taldeko Markel Mendizabal *Axeri*, Alaves taldeko Elene Errasti eta Nhil taldeko abeslari eta Gazteako esatari Sara Alonso.

Beraz, ez galdu *Galdegazte*-ren atal berriak, eguenero, 21:30ean eta 23:30ean, Goiena telebistan. Familia osoarendako saioa.

Zelan ikusi
Goiena
telebista

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
943 25 05 05



Antena bidez

Lurreko telebista digitalaren seinalea jasota, antena bidez ikusi ahal izango da Goiena telebista etxeetan. Kasu honetan, 25. kanalean topatuko duzu.



Euskalteleko kable bidez

Euskaltelek duen telebistaren eskaintzaren barruan dago Goiena telebista ere. Debagoienean, hamaikagarren kanalean topatuko duzu.



Nahieran 'Goiena.eus' atarian

Goiena.eus atarian ikusi ahal izango dituzu telebistako ikus-entzunezko edukiak; zuzeneko zein norberak aukeratutako saioa nahieran.



'Goiena' aplikazioa

Goiena telebistako edukiak nahieran ikusteko aukera erraza eta erosoa klik bakarrean. Zure eskuko telefonoan edo tabletan deskargatu aplikazioa.

'Hemen Debagoiena' eguneroko magazina

Astelehenetik ostiralera emisioan dagoen saioa erreferentea da Goiena telebistan, Debagoieneko istorioak modu zabalean lantzen baititu; iaz bezala, bailarako jaietako ekitaldirik garrantzitsuenen kontaketa egingo du zuzenean

Larraitx Zeberio gidatutako *Hemen Debagoiena* saioan elkarrizketak, erreportajeak, berrie-mailak eta albisteak jasotzen jarraituko du, baina tarte finkoak ere izango dira ikusgai.

Tarte bereizgarriak

Astelehenetan, Txomin Madinak bailarako hainbat baserri eta ustiategi bisitatuko ditu *Landa-*

ra atalean. Eneko Azurmendik munduan zehar bizi diren bi debagoiendar elkartuko ditu martitzenero *Mundutik binaka* tartean, eurak bizi diren herrialdeetako gaiez berba egin eta alderaketak egiteko. Aurreko urtean bezala, egubakoitzetan, Mireia Bikuñak kirolari bat gertutik ezagutzeko aukera emango du *Luzapena* tartean. Halaber,

tarte berria estreinatuko du laster Iñigo Barrena kazetariak; hain zuzen ere, *Debagoienean* egina, eta bailarako enpresek zer egiten duten jasoko du astean behin.

'Hemen Debagoiena' jaietan

Ibarreko festetan murgilduko da aurreko *Hemen Debagoiena*-ko lantaldea, eta, iaz bezala, zuzenekoari garrantzi handia emango zaio. *HD jaietan* saio berezia herri guztietatik egingo da formatu berean; hain zuzen ere, jaien hasieraren bueltan ekoiztuko da saioa eta herriko protagonisten hitzak jasoko dira elkarrizketetan, eta, nola ez, baita festa lehertzen den unea ere. Laburbilduz, jaietako ekitaldirik garrantzitsuenetan egingo da Goiena.

Lehenengo saio berezia maiatzaren 26an izango da, orduan emango baitiete bergarrek Pentekoste jaiei hasiera, Bitorianatxoren jaitsierarekin.



Txomin Madina eta Goiatz Arana aurkezleak. GOIENA

Udal eta foru hauteskundeak jarraipen zabala maiatzean

Saio bereziak ekoiztuko dira Ahaldungai eta alkategaiekin nahiz hauteskundeek emandakoarekin

Udal eta Gipuzkoako foru hauteskunderi jarraipen berezia egingo die Goiena Komunikazio Taldeak, eta hauteskunderi lotutako saio bereziak eskainiko ditu. Foru Aldundiko hauteskunde kanpainaren bueltan mahai-inguruak eta elkarrizketak elkarlanean ekoiztuko ditu Goiena telebistak Goierri telebistarekin, 28 kanalarekin eta UKTrekin. Maiatzaren 12an ahaldungaien mahai-ingurua egingo dute telebistan. Ondoren, maiatzaren 15ean hasita, banan-banan elkarrizketatuko dituzte.

Udaletakoei jarraipena

Era berean, udal hauteskunderi ere jarraipen zabala egingo die Goiena telebistak. Debagoieneko herri bakoitzeko alkategaiekin –Leintz Gatzaga izan ezik– mahai-inguruak egingo dira platoon, herri bakoitzeko bat, Goiatz Arana eta Txomin Madina kazetariak gidatuta.

Hauteskunde egunean ere, maiatzaren 28an, hauteskunde gaueko zuzeneko saio berezian, emaitzei jarraipena egingo zaie, adituek analisiak egingo dituzte eta bailarako herrietatik protagonisten hitzak jasoko dira.



Larraitx Zeberio *Hemen Debagoiena*-ko aurkezlea. GOIENA

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA



HEMEN DEBAGOIENA
EGUNERO
18:00, 20:00 ETA 22:00



ALBISTEAK
EGUNERO
14:00, 15:00, 16:00 ETA 17:00



HARMAILATIK
ASTELEHENA
21:30 ETA 23:30



HARIRA
MARTITZENA
21:30 ETA 23:30

Mendi lasterketen garaia 'Harmailatik' saioan

Debagoieneko kirol hitzorduen eta kirolarien emaitzen errepasoa egiten jarraituko du astelehenero Xabi Urzelaik 'Harmailatik' saioan; aurten ere, urtean behin bailaran antolatzen dituzten kirol ekitaldietan jarriko dute arreta berezia

Denboraldi honetan ere Debagoieneko taldeak, kirolariak eta bertako kirol hitzorduak izango dira protagonista astelehen gaueko Xabi Urzelaik aurkezten duen *Harmailatik* saioan. Asteburuko kirol hitzorduen errepasoa egiteaz gain, kirolariei eta kirolaren bueltako pertsonaiei egindako elkarrizketak ere izango dira ikusgai.

Hitzordu bereziak

Urzelaik adierazi duenez, azken urteetan egin duten moduan, urtean behin antolatzen diren hitzordu horietan jarriko dute indarra: "Esaterako, azken hamarkadan izugarri hazi dira mendi lasterketak, eta Debagoienan ia herri guztiek dute mendi lasterketa propioa. Bada, horiek behar den moduan jasotzen ahaleginduko gara, jakinda batzuetan erronka izaten dela, eguraldi makurratetik edota kilometro asko dituen ibilbideen berri eman nahi izaten dugula-



lazko Arrasate-Udalatx mendi lasterketaren irudi bat. GOIENA

ko". Horren adierazle da, adibidez, apirilaren 2an egingo den Arrasate-Udalatx mendi lasterketaren inguruko *Harmailatik* berezia apirilaren 3an.

Hala ere, Oñatiko duatloia, Antxintxika krosa eta halako

hitzorduak ere hor daude eta horietan ere izango dira *Harmailatik*-eko lankideak. Hortxe beste erronka: asteburuan bertan gertatutakoak astelehen iluntzean erakutsi ahal izatea, ordu erdiko saioan.



Liher taldea, Arrasateko gaztetxean emandako kontzertuan. GOIENA

Kooltur Ostegunak ekimeneko kontzertuak Goiena telebistan

Kooltur Ekintzen eta Goiena telebistaren elkarlanari esker, hainbat talderen kontzertuak izango dira ikusgai

Musikak ere badu lekua Goiena telebistako programazioan. Arrasateko Kooltur Ekintzak elkarrekin Kooltur Ostegunak kontzertuak antolatzen ditu astero. Elkarrekin eta Goienaren elkarlanari esker, zuzenean Arrasateko gaztetxera joaterik izan ez duten horiek ere estilo askotriko hainbat talderen emanaldiak etxetik ikusteko aukera izango dute Goiena telebistan, egubakoitzero, gaueko hamaketan hasita.

Gaur, egubakoitza, Bartzelonako Againsters taldearen punk-rock doinuen kontzertua eman-

go da telebistan. Datozen asteetan, berriz, Liher, Eddie Cirta, Toc, Sua, Etxekalte, Sofa eta Kristonak taldeen musika bertatik bertara ikusi ahal da.

50. urteurreneko kontzertua

Asteroko musika emanaldiak bai, baina egun zehatzetan antolatzen diren ekitaldiak ere jasoko ditu Goienak. Hurrengo, adibidez, Arrasate Musikalek 50. urteurrena ospatzeko emango duen kontzertu erraldoia izango da. Telebistan ikusteko, baina, hilaren 31ra arte itxaron beharko da.



HARA, BII
EGUAZTENA
21:00 ETA 23:00



ELKARRIZKETTAP
EGUAZTENA
21:30 ETA 23:30



GALDEGAZTE
EGUENA
21:30 ETA 23:30



KOOLTUR
EGUBAKOITZA
21:00 ETA 23:00



KANTARI
ZAPATUAN
16:00
DOMEKAN
09:00

"Haurren talentuaz gozatzea zoragarria da"

BEÑAT ARIZABALETA AURKEZLEA

Kantari saioaren zortzigarren aldian gidari lanetan jardungo du Debagoieneko 7 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoekin; euskal kantuak abestu eta dantzatzeko dituzte

Aitor Agiriano Arrese ARRASATE

Debagoieneko karaoke-ikuskizun arrakastatsuena bueltan da. Beñat Arizabaleta aretxabaletarrak jardungo du aurkezle lanetan eta jada denboraldi berriaz gozatzeko aukera bada, astebururo, Goiena telebistan.

Parte-hartzaile, entseguetan dinamizatzaile, gonbidatu eta aurkezle. Saioa norbaitek ondo ezagutzen badu, zeu zara.

Saioaren lehenengo bi aldietan, txikia nintzenean, parte hartzaile ibili nintzen. Hain oroitzapen ona dut, oraindik egin nuen kantua eta dantza gogoan dut. Urte batzuk geroago, gonbidatu moduan. Eta orain, aurkezle. Ez dakit... etorkizunean saioiko zuzendari izatera helduko naiz, akaso; kar-kar.

Emanaldiak eta entseguak bete-be-tean; nola doa zortzigarren?

Ziztu bizian. Bergaran, Aretxabaletan eta Oñatin izan gara. Neska-mutiko pila igo dira da-goieneko oholntza gainera. Giro



Beñat Arizabaleta, Kantari saioiko aurkezlea. GOIENA

ezberdina egoten da entsegu eta emanaldi egunetan. Urduritasunak pil-pilean, azken momentuko zalantzak... baina gero, ezin hobeto pasatzen dugu denok. Azkenean, hori da saio horrek duen onena, musika-doinuekin

momentu on batez gozatzeko aukera ematen digula.

Aldi berri honetan bada berrikuntzarik?

Kantuen zerrenda berritu egin da. En Tol Sarmiento, Nogen eta Huntza taldeen abesti berriak

estreinatu ditugu, besteak beste. Izugarritzko martxa dute kantu horiek eta haurrei emanaldia prestatzerako orduan aukera asko ematen die horrek. Gainera, irratitik eta telebistatik askok ezagutzen dituzte. Ondorioz, lan pixka bat ere aurreratzen dute kantuen hitzak ikasteko orduan.

Ilusioa, urduritasuna... Artista txikiak, baina handiak.

Sekulako artistak ditugu Debagoienean. Sekulakoa bat da horrenbeste entsegu egin eta gero talde bakoitzak prestatzen duen emanaldia: izugarritzko koreografiak, akrobaziak... Denetarik eskaintzen dute agertokian. Ziur nago saioa ikusten dutenak aho-zabalik geldituko direla behin baino gehiagotan.

Gurasoak, beste modu batean, baina badira protagonista ere.

Izugarritzko ilusioa egiten die seme-alabak oholntza gainean ikusteak. Eta horregatik, sekulako inplikazioa izaten dute. Entseguetan laguntzaile, emanaldi eguneko arropak eta atrez-zoa prestatzen... Azkenean, haiek ere ikasten dute etxeko txikienek prestatu beharreko kantua eta dantza. Agian, etorkizunean, helduentzako edizio berezi bat egin beharko dugu.

Kulturaren transmisioa oinarri duen saioa da, ezta?

Euskal kulturari balioa eman nahi diogu. Euskal Herriak izugarritzko historia dauka. Askotan, kanpora begiratzeko joera izaten

dugu, etxean duguna begiratu gabe. Horregatik, gaur egungo gaztetxoei lehenengo eta gaur egungo musikaz gozatzeko aukera eskaintzen die saioak, euskal produktu onak interpretatu eta debagoiendar txikien artean ezagutzera emanez.

Zer ematen dizu zuri Kantari saioak?

Emozio ezberdin pila bat. Alde batetik, nostalgia-puntu bat sentitzen dut. Nire txikitako oholntza gaineak uneak dakartzkit gogora saioak. Goxotasun eta pasio handiz gogoratzen dut etapa hura. Bestalde, umeek duten ilusioa ikusteak ez du preziorik; oholntzara igo, kantua abestu eta dantzatu ondoren izaten duten aurpegia ikusita, munduko oparirik onena zabaldu izango balute moduan, hori bai dela sentazio ezin hobea. Eta zer esan saio horrek pertsonalki ematen didan aukeraz: musikarekin zerikusia duen lan bat egitea amets bat betetzea da niretzat.

Zergatik ikusi beharko genuke?

Haurren talentuaz gozatu eta euskal kantu berriak ezagutzeko aukera ematen digulako saioak. Familia giroan ikusteko ezin aproposagoa ere bada. Hor-taz, ez hutsik egin!

"UMEK LEHENGO ETA GAUR EGUNGO EUSKAL MUSIKAZ GOZATZEKO AUKERA DUTE SAIOAN"

'Hara, bi!': nola ikusten dute mundua eta gizartea txikienek?

Oñati, Eskoriatza eta Elgetako ikastetxeetako LHko ikasleak izango dira protagonista denboraldi berrian

Aitor Agiriano Arrese ARRASATE

Mundua eta bizitza haurren ikuspuntutik ezagutzen jarraituko du Goienak *Hara, bi!* saioaren bigarren denboraldian.

Nola ikusten ote dute txikienek mundua? Eta bizitoki duten herria? Zer aldatuko lukete herrian? Eta mundua hobetzeko egingo luketena? Galdera horien guztien eta beste askoren erantzuna emango dute Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailako neska-mutikoei. Eta ez hori bakarrik: pantailaz bestaldean dauden ikus-entzuleak

jolasean jarriko dituzte, hitz ezkutuarekin.

Oñatiko Ekar Hezi ikastetxeko txikienak aritu dira lehen saioan kontu-kontari. Besteak beste, pantailarik gabeko mundua imajinatzen ote duten kontatu dute. Datorren astean, berriaz, Elgetako txikiak izango dira protagonista saioan, eta ondoren etorriko dira Arizmendi Ikastolako Almen guneko gaztetxoek. Euskal musikariak eta idazleak, genero berdintasuna eta beste hainbat gai izango dituzte berbagai.



Elgetako Herri Eskolako eta Arizmendi Ikastolako ikasleak grabazioaren une batean. GOIENA

Makina bat gauza dute kontatzeko debagoiendar txikienek, eta gu entzuteko prest gaudel! Hala, buru txiki horietan dagoena ezagutzeko aukera egongo da eguaztenean, 21:00etan eta 23:00etan, Goiena telebistan.



Elgetako Ixotu energia komunitatea eratu dute

Urri hasieran egin zuten Elgetako energia berriztagarrien komunitatea sortzeko lehenengo batzar irekia. Sei hilabete eta hamar lan bileraren ostean, kooperatiba izaerarekin eratu dute. Eguaztenean egingo dute jendaurreko aurkezpen-ekitaldia

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Espaloia kafe antzokian egingo dute Ixotu kooperatibaren aurkezpena, eguaztenean, 18:30ean. Herrian energia berriztagarrien komunitatea sortzeko Elgetako Udalak egindako deialditik abiatutako prozesuaren ondorioa da Ixoturen eratzea. Talde eragileko kideek azaldu dute herritar guztiei zabalik dagoen egitasmoa dela, eta eguazteneko batzarrean orain arte egindako urratsen eta hartutako erabakien berri emango dutela.

Sei hilabeteko lanketa

Urritik hona hamar lan-saio ireki egin dituzte, dozena bat lagunene parte-hartzearekin. Batzar horietan, formakuntza eta aholkularitza jasotzeaz gainera, energia komunitatearen helburuak zehaztu, izaera legala erabaki eta hasierako proiektuak zeintzuk izan daitezkeen adostu dute. "Herritarrek saretzea, kontzientziazio-lana bultzatzea eta autokontsumo partekatuko ekimenak martxan jartzea dira helburu nagusiak. Uste dut herritarrek probetxuzko informazioa atera dezaketela ekimen honetatik", azaldu du Ana Gillegik.

Kooperatiba izaeraren alde egin dute talde eragilean. "Diru ekarpen bat egin beharko da hasieran. Eguazteneko batzarrean emango dugu kooperatibaren funtzionamenduaren gaineko informazioa", jakinarazi du Enaitz Ezpeletak. "Horrekin batera, argituko ditugu autokontsumo partekatua eta halako kontzeptuak eta azalduko dugu zeintzuk izango diren lehen proiektuak".

Talde eragileko kideen ustez, ekimen berria interesgarria da energia herrian bertan sortzeari zein energia berriztagarriei lehenetsuna ematen dieten herritarrendako. "Momentuan nahiko argi dugu lehenengo

proiektua zein izango den, baina taldearen helburua bada bestelako aukerak ere aztertzea. Ez dakigu oraindik bulego formatua izango duen edo ez, baina badugu buruan herritarrei aholkularitza eta formakuntza zerbitzua ere ematea", gaineratu du Ezpeletak.

Instalazio fotovoltaikoa

Ixotu kooperatibaren lehen proiektua Udalak frontoiko teiltuan eskainitako espazioan instalazio fotovoltaiko bat egi-tea da. "Dimentsionatuta duguna da 45 kilowatteko instalazio bat. Inguruko beste herri batzuetako datuak kontuan hartuta, 60-70 bat argi-kontagailu beharko genituzke proiektua bideragarri izateko, baina datuok Elgetako errealtaterara ekarri behar dira. Horregatik, orain jakin behar duguna da interesik dagoen, eta zenbatekoa den",

LEHEN PROIEKTUA 45 KILOWATTEKO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA IZANGO DA



Ixotuko Mari Karmen Larrañaga, Ana Gillegi, Enaitz Ezpeleta eta Mikel Elkorok. L.Z.L.

azaldu du Ezpeletak. "Horrekin batera, interesa duten herritarren kontsumo-ereduak aztertu behar ditugu", azpimarratu du Mari Karmen Larrañagak. "Instalazio fotovoltaikoak eskatzen du energia sortzen den unean kontsumitzea; horregatik aztertu behar ditugu kontsumo-ereduak; jakiteko benetan nori komeni zaion". Hala, interesa duten herritarrei eskatu diete argindar faktura batekin eta nortasun agiriaren kopia batekin bertaratzeke eguazteneko batzarrerara. "Fakturak behar ditugu, jakiteko zein garaitan kontsumitzen den etxe bakoitzean", azaldu du Larrañagak. "Aholkularitza ezinbestekoa izango da", gehitu du Mikel Elkorok.

Proiektua autokontsumo partekatuan oinarritzen dela zehaztu du Larrañagak, eta ez dela beharrezkoa energia konpainia aldatzea. "Eta etxean ez da ezer berezirik jarri behar. Energia sortzen den unean kontsumitzen da, eta fakturan ez da agertu ere egiten". Herriko hainbat eragilerek eta enpresarekin izan dira harremanetan. Pozik dira jasotako erantzunarekin.

MARTXOAK 8



Alicia Garcia, plazan ikusgai egon den erakusketa prestatzen. L.Z.L.



Itsaspetik azalera, azaletik plazara ipuin kontaketa liburutegian. L.Z.L.

Erantzun ona izan dute Martxoaren 8ko ekitaldiek

Erakusketa, 'Ainarak' ikus-entzunezkoa eta ipuin kontaketa saioa izan dira, besteak beste

L.Z.L. ELGETA

Ekitaldi jendetsuena plazan egindako elkarretaratzea izan da, baina aurreko mende hasieran Maulera lanera joateko Pirinioak zeharkatzen zituzten *ainaren* istorioa jasotzen duen dokumentala ikusteko hogei

lagun elkartu ziren, eta *Itsaspetik azalera, azaletik plazara* kontaketa saiorako, berriz, hamar. Isildutako makina bat istorio jaso da saio horietan. Herri Eskolan eta ludotekan ere parekidetasunaren gaia presenten izan da egunotan.

Elgetako artista gazteen lanak, kultura etxean ikusgai

Gaztelekuak antolatuta, bederatzi gazteren lanak daude ikusgai kultura etxeko hormetan. Izei Arizmendiarrietaren, Jurgi Elorriagaren, Maialen Ormaetxearen, Irea Alberdiren, Paula Carmonaren, Amañur Guridiren, Paola Tizianaren, Kimberli Gonzalezen eta Olatz Cruzen lanak dira. Hilaren 17ra arte egongo dira jendaurrean.

OHARRAK

Frontenis lehiaketa

Neska-mutikoen jokatu dute gaur arratsaldean frontoian.

Ipuinen Ordua

17:30ean hasita, hiru saio gaur liburutegian.

Antzerkia eta kirola

Zapatuan Afizioz lehiaketa jokatu da antzokian eta domekan mendizaleek Ibiltarien Jaia egingo dute.



Umeak udalekuetako ekintza batean. OIHANA ELORTZA

Gaztetxoek izango dute non gozatu udan

Udako kanpaina, udaleku irekietan eta arte udalekuetan parte hartzeko aukera izango dute. Izen-emateak datorren astelehenean irekiko dituzte: udako kanpaina martxoaren 22a izango da epemuga eta beste bietan, berriz, 24a

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Udako kanpainari dagokionez, martxoaren 13an hasi eta 22ra bitartean eman beharko da izena. Ondoren, 28an zozketen emaitzak banatuko dira posta elektroniko bitartez. Martxoaren 29tik apirilaren 5era bitartean, berriz, bajak emateko epea izango da; libre gelditzen diren plaza txarote-zerrendan dauden artean banatuko dira.

Kontuan hartu behar da txanda bakoitzean gehienez hiru jardueratan eman ahaliko dela izena eta jardura bakoitzean gehienez hiru ordutegitan. Lehenengo txanda ekainaren 26tik uztailaren 7ra izango da eta bigarren txanda, uztailaren 10etik 21era. Txanda bakarraren kasuan, berriz, ekainaren 26tik uztailaren 21era arte izango da.

Izen-ematea kiroldegiko webgunean egin beharko da eta beharrezkoa da webgunean erregistratuta egotea, bazkide izan edo ez. Ezinbestekoa izango da datu pertsonalen artean harre-

manetarako telefonoa eta helbide elektronikoa agertzea. Prezioak aldakorrek dira kirolaren arabera eta kiroldegiko bazkide izan edo ez.

Udaleku irekiak

Aurten ekainaren 26tik uztailaren 21era izango dira, 10:00etatik 13:00etara. Gainera, berrikuntza nagusi batekin datoz: elkargunea goizetan Eltzia izango da, eta ez gaztelekua, orain arte bezala.

Izena emateko epea astelehenean irekiko da eta hilaren 24ra arte iraungo du. Hain zuzen, online bidez egin beharko da eta, inskripzio-orria bete ondoren, ordaindu izanaren ziurtargiria eta legezko tutore baten

MARTXOAREN 13AN IREKIKO DUTE IZEN-EMATEA; ITXI, UDAKO KANPAINA 22AN ETA BESTEAK 24AN

nortasun agiriaren kopia erantsi beharko dira. Prezioa 74,88 euro da eta bigarren haurretik aurrera merkeagoa izango da. Zaintza zerbitzua ere izango da, 08:15etik 10:00etara.

Arte udalekuak

Marraskigintza, eskultura, margolaritza eta beste arte-adierazpen batzuk lantzeko aukera ere izango dute haurrek, arte udalekuen bitartez. Udaleku irekien data eta ordutegi berak izango ditu, baina jarduerak gaztelekuan egingo dituzte. Izena emateko epea ere datorren astelehenean hasi eta martxoaren 24an bukatuko da; online bidez egin beharko da.

Prezioa ere udaleku irekien bera da, baina plazak, ordea, mugatuak izango dira, udalekuen ezaugarriak direla eta. Izena ematen dutenen artean zozketa egingo da eta emaitza izen-emate epea bukatu osteko astean jakinaraziko dute; zeintzuk izan diren hautatuak.

Energia Bulegoa, herritarrek informatu eta aholkatzeko

Bidebarrieta kalean egongo da eta teknikari bat izango du goiz eta arratsalde herritarrei laguntzeko

I.B.K. OÑATI

Argiaren eta gasaren gaineko informazioa emateko bulegoa zabaldu dute Bidebarrieta kalean. Argindarrari eta gasari buruzko informazioa, merkatu librearen eta arautuaren arteko desberdintasuna azaltzea, bi horien artean zein aukeratu gomendatu ere bai –gasaren kasuan, tarifa arautua hartzea, kasu– eta norberak kontratatuta duen potentziaren eta kontsumoari buruzko erlazioa esplikatu zaie herritarrei, besteak beste, Energiaren Bulego horretan. Energia Planaren barruan dauden zortzi puntuetako bat da. Argindarraren enpresa merkaturatzailea sortzea da beste bat.

Aurretik txanda hartzea komeni

Teknikari bat egongo da han, Alaia Alvaro, eta informazioa eta laguntza eskainiko du; hala,



Energia Bulego berria. OIHANA ELORTZA

herritarrek fakturak eskuetan dituztela joan daitezke haren-gana zalantzak argitzea. Goiz eta arratsalde egongo da zabalik bulegoa, baina komeni da aurretik txanda hartzea, 943 71 64 03 zenbakian edo energia.bulegoa@onati.eus helbidean.

Disuasio-aparkalekuen gaineko azterketa egingo dute

Disuasio-aparkalekuen gaineko azterketa abiaraziko du Oñatiko Udalak. Hain zuzen ere, ekinbideak Oñatiko Hiri-Mugikortasun Iraunkorreko Plana du erdigunean –disuasio-aparkalekuei buruzko azterketa egiteko beharra identifikatu zuten–. Haren bidez, ikusiko da halako azpiegitura baten beharrik dagoen, eta, egotekotan,

zein litzatekeen harentzako kokaleku egokia.

Hiru hilabete iraungo du disuasio-aparkalekuen gaineko azterketak, eta RAT Tresna Digitalak enpresak izango du hori egiteko ardura. Halako azpiegitura baten beharra identifikatu balitz, mugikortasun iraunkorraren ikuspegiarekin bat eginda eta HAPoren aurrekinean jasotakoarekin koherentzian egon beharko lukete kokaleku- eta edukiera-proposamenek.

Estimulazio goiztiarrari buruzko jardunaldiak

Elkar Hezi ikastetxean azken zazpi urteetan garatzen ari den estimulazio goiztiarreko eta adimen askotariko proiektuan aurrera egiten jarraitzeko asmoz, Nuria Sanchez Povedanok –gaian aditua– estimulazio goiztiarraren gaineko jardunaldiak zuzenduko ditu gaur eta bihar; hamabi ordu iraungo du ikastaroak.

Zuhaitz landaketa atzeratu egin dute martxoaren 19ra

Elurraren eraginez, 2023ko Zuhaitz Egunean egin beharreko landaketa martxoaren 19ra atzeratu dute. Aloñako magalean dagoen Unaimendin (Duru) goizeko hamarretan elkartuko dira eta 25 zuhaitz landatuko dituzte: urkiak, hostazuriak, mendiko haritzak eta otsalizarrak. Izena aloinalagunak@gmail.com helbidean eman beharko da.

"Urtiagainera igoko dira bizikletako proban"

ANDONI CORREAS ALOÑA MENDI TRIATLOI TALDEKO KIDEA

Martxoaren 18 arratsaldean egingo da aurtengo duatloia, plazatik abiatuta eta plazan bukatuta. Ohiko distantzia izango du lasterketak, eta berritasun ugari

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Martxoaren 18an egingo da aurtengo Oñatiko duatloia; 30.a izango da. Euskal Herriko duatloi proba zaharrena da. 11:00etan izango da umeena eta 16:00etan, aldiz, nagusiena. Berritasun asko ditu aurtengo probak eta Euskadiko Txapelketa ere duatloi horretan jokatu da.

Ohiko distantzia izango du aurtengo duatloiak, ezta?

Bai, hori da: bost kilometro oinez, 40 bizikleta gainean eta azkenengo bostak ere korrika. **Udana itxita egoteak baldintzatu egin zuen iaz errepideko zirkuitua; aurtengoa nondik norakoa izango da?**

Aurtengo aldapak Urtiagaingoak izango dira. Elorregi aldera joango dira lehenengo, eta handik bueltan Urtiagain igoko dute. Bigarren itzulia motzagoa izango da eta Santipillaotik pasako dira, baina ez dira berriz Urtiagaineraino helduko.

Plazan bertan egongo da irteera eta amaiera puntua, baina ez betiko tokian; non jarriko duzue helmuga? Eta boxak?

Helmuga plazan egongo da, bai, baina plaza erdian, ez aurreko urteetako tokian. Ondorioz, boxak ere lekuz aldatu ditugu, plaza erditik kenduta. Aurten, Atzeko kalean utziko dituzte



Andoni Correas. A.C.

bizikletak, behar dituztenerako; plazatik gora kolokatuko ditugu. **Duatloi egokitua ere bueltatuko da aurten.**

Bai. Duela bi urte egin genuen eta joan den urtean ez, proba bera ere ez zelako izan ohikoa. Baina aurtengoak betiko osagarri guztiak izango ditu, berritasun asko barne, eta berriz egongo da duatloi egokitua, bai.

Izan ere, sari banaketan ere egongo dira berrikuntzak: sari gehiago emango dituzue aurten.

Aurten pentsatu dugu kategoria guztietan osatzea podiuma, eta,

hortaz, bai, normalean baino sari gehiago banatuko ditugu. Orain arte, beteranoetan, adibidez, lehenengoei bakarrik ematen genien saria, baina aurten maila guztietan emango ditugu hiru; podiuma osatzen duten hirurak sarituko ditugu.

Proban zehar jarritako kamerekin eta motorretan eramaten dituzue-nekin zuzenean eskaini izan duzue proba aurrekoetan; aurten ere bai?

Bai. Aurten, gainera, pantaila erraldoia jarriko dugu plazan eta jendeak zuzenean jarraitu ahal izango du lasterketa osoa. Aurreko urteetako esperientzia oinarri, hor ere beste berrikuntza bat izango dugu.

Zer moduz doa izen-ematea?

Dagoeneko 160 kirolarik baino gehiagok eman dute izena. As-telehen gauean itxiko da epea eta 200 inguru izango direla aurreikusten dugu. Federatu gabeak ere etor daitezke.

Zer gelditzen zaizue lotzeko?

Berritasun asko ditu aurtengo probak eta denak ondo prestatzen eta lotzen ibili gara lanean taldeko denok. Orain, egunera begira gaude. Boluntario-taldea ari da osatzen, eta eskertuta gaude. Boluntario asko beharko ditugu egunean eta laguntzeko prest dauden guztiak izango dira ongi etorriak.



NIRE USTEZ

ITZIAR ALONSO

Feminismoaz

Mundu zabalean, feminismoaz hitz egitean, ezagunak dira Olympe de Gouges -1789an Emakume eta Herritarren Eskubideen Adierazpena idatzi zuena- New Yorkeko Seneca Fallseko Konbentzioa edota XX. mendeko sufragistak, emakumeen boto eskubidea aldarrikatu eta lortu zutenak. Baina gurean ere baditugu ezezagunak bezain garrantzitsuak diren feminista eredugarriak. Maria de Maeztu, Julene Urzelai, Elbira Zipitria eta Maria de Cortazar oñatiarra, besteak beste.

Feminismoa deserosoa da, batez ere, dagoen ordena aldatzera datorrelako. Ezarritako egitura ondo dago jarri zutenentzat; hau da, hortik onurak dituztenentzat. Feminismoa ez da bestelako teoria bat, baizik eta emakumeen eta gizonen arteko harremanak eraldatzen dituen motorra.

Euskal kanta ezagun bat oinarri hartuta, ama-alabak jokotik irten eta aita- semeekin batera tabernan, espazioa konpartitzeko unea da. Emakumeek eremu publikoan lidergoa hartzeko garaia da, betiere, emakumeen arteko elkartasuna eta politika publikoak lagun izanda.



IMANOL BELOKI

Oñatiarrak 'Galdegazte'-n

Oñati Institutuko ikasleak izango dira datorren asteko *Galdegazte* saioan Ane Zuazubiskar bertsolari eta kazetari arrasatearra elkarriketatzen. Hauek, hain zuzen: Elizabeth Nkuba, Haizea Arregi, Haizea Daroka, Malen Aranburu, Ane Guridi eta Maddi Urrestarazu. Saioa martxoaren 16an emitituko da, 21:30ean eta 23: 30ean, Goiena telebistan.

Ziklo-kros txapelketarena

Duela 70 urte, 1953ko martxoaren 8an, Oñatin egin zen Munduko Ziklo-kros Txapelketa, eta urteurren horren seilua eta postala atera ditu Oñatiko Filatelia eta Numismatika Elkarteko kideak. Seiluaren irudia orduko egitarautik hartu dute eta postala, Pollangoa etxean zegoen beirate batetik. Biak daude salgai Turismo Bulegoan; 3,50 eurotan eros daitezke.



ZEKA

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Bessulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

MARTXOAK 8

Emakume gazteena izango da gaur oholtza


Zarta antzerki taldeak 'Isiltasunaren gatibu' antzezlan eskainiko du iluntzean Santa Ana antzokian, 20:30ean. Emakume gazteek jasaten dituzten zapalkuntzak oinarri dituen lana da taula gainean eskainiko dutena; umore ukituak ere ez dira faltako

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Pandemia aurretik Irazan Gazte Taldetik sortutako antzerki taldea da Zarta. Hasieran, hamar kidek osatzen zuten taldea, baina, pandemiak eta partaideen gorabeherak medio, gaur egun lau kidek osatzen dute: Lide Arregi, Eider Hipolito, Naroa Sanz eta Aiora Davenne. Hain zuzen, taldea ez desagertzearen arrazoietakoa bat lauren antzerkian jarraitzeko zuten "gogo" izan zela azpimarratu du Hipolito. Horretaz gain, aukera ezin hobe iritsi zitzaizen duela urtebete. "Oñatiko ikastolek proposatu ziguten Martxoaren 8rako antzezlan bat egitea, eta jendearen erantzun ona ikusi ostean erabaki genuen hori izango zela gure proiektua", dio Hipolito.

'Isiltasunaren gatibu'

Horixe da Zarta taldeak gaur gauean Santa Ana antzokian



Zarta antzerki taldeko kideak, kartela eskuetan dutela. IÑIGO BARRENA

taularatuko duen lanaren izenburua. Bertan, emakumeek eta, batez ere, emakume gazteek jasaten dituzten zapalkuntzen inguruan antzeztzen dute, arreta lau egoeratan jarrita: adin desberdintasuna erlazioetan; emakumeei ematen zaien ahotsa hainbat tokitan; parrandetan jasaten dituzten eta fintzat hartzen diren erasoak; eta sare sozialetan ikusten den feminismoa, lanetarik ez duena. Urtebete taldea eta antzezlan ere aldatu egin

dira. "Lehenengo aldian dena oso azkar joan zen eta ikusi genuen zerbait hobea egiteko gai ginela, eta, nahiz eta erraza ez den, izan aurreko urtekoa baino landuagoa den antzezlan egitea lortu dugu", adierazi du Naroa Sanzek.

Urduri eta gogotsu

Lehen aldia izango dute horrelako antzoki batean eta urduritasuna nabari da, baina lan "txukuna" egiteko prest daudela adierazi du Davennek.

Broadwayko musikalak entzungai domeka eguerdian

'Musikaldia'-n, Candem Town dantza akademiako 100 kidek baino gehiagok koreografia jarriko diete piezei

I.B.K. OÑATI

Entzunaldia kontzertu-denboraldi laugarren kontzertua eskainiko du Oñatiko Musika Bandak (OMB) domekan (13:00) pilotalekuan. *Musikaldia* izenburupean eta Aitor Biain Bidartek zuzenduta, Broadwayko musikaletako sei pieza joko dituzte. Horiek, gainera, koreografia izango dute, Bergarako Candem Town dantza akademiako 100 dantzari baino gehiagoren eskutik; oñatiarrak ere izango dira tartean. Guztira, 200 pertsona baino gehiago batuko dira kiroldegiko pilotalekuan.

Musika Eskolako kide direnek OMB ezagutzeko aukera izango dute zuzendariaren eskutik. Kontzertua hasi baino ordubete lehenago, 30 ikaslek bandako sekzioak ezagutuko dituzte eta instrumentuak gertutik ikusteko eta entzuteko aukera izango dute. Sarrerak agortuta daude, baina dei egin dute sarreraren bat soberan duenak Txokolateixan uzteko edo, bestela, beharrean dagoen norbaiti emateko. Era berean, pilotalekura garaiz joatea eskatu dute.

MARTXOAK 8

Emakumeek musikan duten tokia babesteko kontzertua

Domekan arratsaldean izango da, Agustindarren elizan, 19:00etan. *Emakumeen HOTS-a* izenburua du kontzertuak eta Martxoaren 8aren bueltan egingo da. Zoritzarrez, musika munduan ere emakumeen presentzia oso txikia da, eta, hori dela eta, Ganbara Faktoriak

errebindikazio hori babesteko asmoarekin antolatu du, eta, hain zuzen ere, Hots Abesbatzak egingo du.

Aukera horretarako programa berezia hautatu dute eta hamai-pieza entzuteko aukera egongo da; nola ez, guztiak emakumeek konposatutakoak. Pianoan Amaia Zipitria egongo da. Sarrerak salgai daude www.oñati.eus-en eta Txokolateixan, 5 euroren truke.

GOIENA TELEBISTAK
8.000 IKUSLE EGUNERO.
ESKERRIK ASKO!

Iturria: CIES, 2022 (Gipuzkoari dagozkion datuak)

goiena
Zu hemen zaude.



GAZTEK
GAZTEENTZAT

BERRITUA

DESKARGATU
ALDIZKARI
DIGITALA DOAN!



Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Oraingo denboraldian UDA futbol elkarteak izan da etxeko zale talde batek izandako jarrera txarra publikoki salatu duen azken kluba, baina ez da izan adibide bakarra. Izan ere, Aloña Mendiko ohorezko gazte mailako taldeak zigortuta hasi zuen 2023a; urtarrilaren 8an etxean jokatu beharreko partidua etxetik kanpora jokatu behar izan zuten gazte txantxikuek. Izan ere, Azkoagain itxita egon zen astebetez, zale talde gazte bat epailea eta kontrarioak iraintzen ibili zelako. "Nekatu gara dagoeneko, jarrera horiek ez ditugu nahi Azkoagainen", adierazi zion orduan GOIENARI Javi Azpiazu presidentek.

Futbolearen soilik gertatzen da?

Gipuzkoako futbolaren bueltan lanean dihardutenek diote pandemia ostean areagotu egin direla jarrera horiek. Baina egia da, halako muturreko egoerara iritsi barik, partidu asko beroak izaten direla eta jendea errespetu gutxirekin ibiltzen dela, eta hori lehen ere gertatzen zen, eta ez futbolearen soilik. Esaterako, duela aste batzuk Bergararen eta Arrasateren arteko infantil mailako eskubalo partidu batean, gurasoen artean animoak komeni baino gehiago berotu ziren -GOIENAK gutuna jaso zuen partidu hartan gertatutakoarengatik-, eta Ointxe! saskibaloi taldeko zuzendaritza ere badabil gai horren gainean hausnartzen, Iturripeko harmailetan tarteka ere giroa berotu egiten delako. Alegia, gazte batzuen muturreko jarrera horiek futbolearen dabilta bistaratzen, baina arazoa ez dago soilik futbolearen, hori baino orokorragoa da. Eta pandemia ondoren jarrera horiek gogortu egin direla nabarmendu dute.

AGURTZANE ELKORO
UDA-KO PRESIDENTEA

"Arazoa ez dago futbolearen, gizartearen arazo bat da"

"Aretxabaletan nekatu gara futbol zelaian jarrera eta jokabide konkretu batzuk ikusteaz, baina ez dugu uste arazoa futbolarena denik, eta bai gizartearena. Izan ere, halako jarrera duten pertsonak gaixorik dagoen gizarte baten isla dira. Gertatzen dena

Txartel gorria harmailetako jarrera txarrei

Aurtengo denboraldian UDAko eta Aloña Mendiko zale gutxi batzuek izandako jarrera txarragatik klub horiek zigorrak jaso dituzte. Pandemia ostean muturreko jarrerak areagotu egin direla diote futbolaren bueltan lanean dabiltzanek, baina beste kirol batzuetan ere entzuten dira irainak eta errespetu faltak

da futbolak gauza bat duela oso ona; alegia, jende asko batzeko gaitasuna daukala. Eta hor azaleratzen dira halakoak. Zoritzarrez, guk ez dakigu non dagoen konponbidea; bistan dago arazoetako bat dela jendea futbol profesionala ikustera joaten den jarrera berberarekin etortzen dela herri mailako partiduak ikustera; izan ere, denok dakigu Reale Arenako harmailetan, Bernabeun edota Nou Campen zelakoak entzuten diren, eta hor sortzen dira arazoak, zelaian handi horietan entzuten diren irain eta errespetu faltak Ibarren ere entzuten direla".

"Guk klub moduan erabaki duguna da arazoa azaleratzea, eta ez dakigu zein den konponbidea, baina uste dugu soluzioa egon daitekeela sareak osatzen, gaia gizarteratzen eta arazo honi askoren artean heltzen. Ez da UDAREN ardurapean dagoen gauza bat soilik; herri mailako eragile askok egon beharko lukete atzean, eta Udalak ere izan beharko luke zeresana. Bistan dagoena da klubak etengabe izun ekonomikoa jasotzearekin bakarrik ez direla gauzak konpontzen".

JABI AZPIAZU
ALOÑA MENDIKO PRESIDENTEA

"Klubeko jokalariek gazteei eskatu genien laguntzeko"

"Aloña Mendin, urte hasieran jardunaldi batez futbol zelaia itxita izan genuen, gazte mailako partiduetan zale kuadrilla batek izaten zuen jarrera txarrearagatik. Zorionez, egoera poliki-poliki baretzen joan da, eta, neurri handian, gure taldeko jokalariei zor diegu hori; izan ere, zuzendaritzatik jokalariei eskatu genien inplikatzeko eta euren adin tarte bereko lagun haiei futbol zelaira beste jarraera batekin etortzeko eskatzeko, edo, bestela, ez etortzeko. Horrenbestez, jokalariek euren lana egin izana ere garrantzitsua izan zen egoera baretzeko".

"Baina halako egoerek errepikatzen jarraitzen dute; UDAkoa jakin berri dugu, baina Elgoibarko klubak arazo berdintsuagatik ohar bat kaleratu berri du aste barruan, eta zelaian askotan gertatzen dabilen zerbait da. Nik ez dut halakorik inoiz ikusi; izan ere, gauza bat da parti-

du bat berotzea eta beste bat partidu batera alkoholez betetako motxila batekin eta liskarrrerako gogoz joatea. Baina gai delikatuak izaten da, herri txikiak garelako eta denak ezagunak, eta salaketak jartzea ez delako soluzioa. Berriz diot, gurean arazoa konpontzeko jokalarien parte-hartzea oso garrantzitsua izan da".

MANU DIAZ
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

"Gipuzkoan protokolo bat ezarriko dugu bizpahiru astean"

"Lehenengo eskutik jakin dut Aretxabaletan gertatutakoa, eta uste dut halako egoerak puntualak direla baina egon badaudela, eta ez Aretxabaletan bakarrik: pandemia ostean futbol zelaia izan ziren zabaldu ziren lehenengo aisialdi-guneak, eta gazte koadrila batzuek ohitura hori hartu dute; alegia, futbol partiduetara etortzen dira liskar bila, jendea iraintzera... Eta hori fenomeno berria da, pandemia ostean ikusi dugu lehenen-

goz. Lehen, egoten ziren partidu beroak, epailearekin haserreak, zaleen artean irainak... Baina orain, partidua hasi aurretik jada liskarrak sortzen hasten dira; ez datoz futbola ikustera".

"Gipuzkoako Federaziotik protokolo bat jarriko dugu abian; zirriborroarekin ari gara lanean eta bizpahiru astean martxan jartzea espero dugu. Badakit ez dela erraza izango, arazoaren muinera iristeko etxeetaraino sartu behar dugulako, baina saiatu egin behar dugu gaia bideratzen".

OIHANE AGIRRE
OINTXE! KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Epaileekin elkarlana abiatuko dugu"

"Nik uste dut hemengo saskibaloiaren ez ditugula futbolearen bizi izaten diren egoerak bizitzen, eta, seguruenik, hor eragina izango du elite mailan ere ez direla halako muturreko egoerak ikusten. Alegia, Baskoniaren partiduetan jendeak ez dituela halako jarrerak izaten. Baina horrek ez du kentzen saskibaloi partidu batzuetan jendea komeni baino gehiago berotzen

dela, eta gure harmailetan ere errespetu faltak entzun izan ditugu, eta baita etxetik kanporako partiduetan ere. Uste dut hor ere tokatzen zaigula autokritika egitea, eta Ointxe!-n horretan gabilta, halako egoerak zelan apaldu hausnartzen gabilta. Hori horrela, erabaki dugu ekimen bat abian jartzea, eta da epaileak gure talde nagusien entrenamenduetara gonbidatzea. Helburua da, batetik, hartu-ema-na estutzea, eta, bestetik, jokalariek ikustea zeintzuk diren epaileek erabakiak hartzerakoan erabiltzen dituzten irizpideak, ze zailtasun izaten dituzten...".

ALAIN ANTON
SASKIBALOI EPAILEA

"Liga amaieran urduriago jartzen da jendea"

"Gabonak arte jendea, gutxi gorabehera, lasai egoten da, eta, denboraldia aurrera doan neurrian, urteko helburuak geroago eta gertuago daudenez, jendea urduritzen hasten da, eta, ondorioz, partiduetan tentsioak gora egiten du. Alegia, goiko postuengatik borrokan zabiltzalako edo kategoria galtzeko arriskuan zaudelako, jendea urduritzen joaten da eta harmailetan giro beroagoa izaten da Gabon ostetik liga amaierara arte".

"Bestalde, ez dakit pandemia-tik hona kantxetan jarrera txar-ragoak ikusten ote ditugun, horretaz ez naiz jabetu, baina bai ikusi dudana da geroago eta epaile gutxiago ditugula. Horrek esan nahi du epaileek lan-karga handiagoa daukatela, asteburuetan partidu gehiago epaitu behar izaten dituztela, eta errendimenduan behera egiten duela epaileak. Eta ez da gauza bera lurralde mailako partiduak epaitzea edo goiko mailetan ibiltzea, eta egia da, baita ere, lurralde mailako epaileek formakuntza txikiagoa izaten dutela".

"Hori horrela, nik uste dut balioa eman behar zaiola epaileak egiten duen lanari; jakinda geroago eta epaile gutxiago daudela, zaindu egingo nituzke gehiago, bestela ez dago-eta saskibaloirik. Horrekin batera, ez dut uste saskibalo partiduetan futbolean ikusten ditugun jarrerak ikusten ditugunik, baina egia da partidu batzuetan giroa asko



Agurtzane Elkoro. GOIENA




Javi Azpiazu. GOIENA



Manu Diaz. GOIENA



Oihane Agirre. GOIENA



Alain Anton. GOIENA



Ane Herrero. GOIENA

berotzen dela. Eta hor, ezberdina da epaile moduan promozionatzeko lanean dabilen gazte batek izan dezakeen jarrera edo nik izan dezakedana. Alegia, 15-20 urte daramatzat epaile lanetan, ez dut inora promozionatzeko asmorik eta gustatzen zaidalako egiten dut lan hau, ez behar-ragatik. Eta ez dut halakorik egin, baina partidua asko berotzen badabil ez daukat norgehiagoka bertan behera uzteko arazorik, askatasun eta esperientzia nahikoa daukat hori egiteko. Alegia, epaile gazte batek nekez hartuko duela halako neurri bat".

"Azkenik, epailea entrenamenduetara gonbidatzea ekimen positiboa da. Batetik, jokalarien eta epaileen artean harremana estutzeko, baina epaileek ere ikus dezagun talde horiek aste barruan ze lan egiten dabilzan, eta kontziente izateko guk ere gure lana behar den moduan egin behar dugula".

ANE HERRERO

ARRASATE ESKUBALOI TALDEKO BOZERA-MAILEA

"Taldeen arteko lehia ezin da muturrera eramán"

"Eskubaloian pandemia ostean ez dugu ikusi liskar kopurua hazi egin denik, guk ez ditugu halako muturreko egoerak ikusi. Baina ni bai konturatu naiz pandemia ostean gazte belau-naldi konkretu batzuen jarrera aldatu egin dela; konpromiso gutxiagoz ikusten ditut gazteak eta euretako batzuen jarrera ez da egokiena. Entrenamendura kale egin eta abisatu ez... Eta, gainera, ezin ezer esan...".

"Horren harira, egia da duela aste batzuk gure infantil mailako taldeak Bergaran jokatu zuen partiduan gurasoen animoak komeni baino gehiago berotu zirela, eta partidu haren bueltan gertatu zirenak ikusita klub moduan hausnarketa egin genuen; gurasoek ere euren partetik hausnarketa egin zuten. Autokritika egin genuen eta ondorio beretara iritsi ginen: alegia, kategoria txikietan ezin dela helburu nagusia bistatik kendu; hau da, gazteek eskubaloian jokatzen dutela ikasteko eta kirolaz gozatzeko, eta lehia ez dela garrantzitsuena, ezin dela edozein preziotan lehiatu".

Goienakideen txokoa

MARTXOKO SARIAK

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora

ERRIGORA



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
ONATINO DAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.hartzenendak.org
Bidezko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"Serien izarra" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez gero (LFP 15/1998) inguru orotara jakinarazten da gure taldearen bidez Goiena Komunikazio Zirkuluaren iturriaren automatizazioaren artuko direla. Datuak biltzeko haren helburu bakarra da indarrez gero gure taldearen gaitasuna.

Ez da bidezko gaitasuna duten pertsonak, haiek zuzentzeko edo ezarritako helburuaren ondorioz goienakide@goiena.eus



Realaren eta Elxen arteko partidarako sarrerak futbol zelako tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Elx norgehiagoka beste modu batera

ikusteko aukera bikoitza dazue eskua zuk

eta zuk eukeritutako beste lagun batek

Real Arena futbol zelako premium

gunetik. Partida martxoaren 19an,

domeka, 16:15ean izango da.

Parte hartzeko azken eguna: martxoak 13



Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

'Hobe txiki' antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Martxoak 19 | 19:30

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "Hobe txiki"

[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez gero (LFP 15/1998) inguru orotara jakinarazten da gure taldearen bidez Goiena Komunikazio Zirkuluaren iturriaren automatizazioaren artuko direla. Datuak biltzeko haren helburu bakarra da indarrez gero gure taldearen gaitasuna.

Ez da bidezko gaitasuna duten pertsonak, haiek zuzentzeko edo ezarritako helburuaren ondorioz goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

SANTA ANA JATETXEARI ESKER

Behar duzue aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: martxoak 14.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Antzerkigile amauterrak, abilak taularen gainean

Euskal Herriko bost antzerki taldek hartuko dute parte DAPEk bihar, zapatua, Elgetako Espaloia antzokian egingo duen Afizioz lehiaketan; 'DAP.eus' atarian daude sarrerak eskuragarri: egun osoko bonua eta goizekoa zein arratsaldekoa aukeran

Aitziber Aranburuzabala Juldain ELGETA

Debagoieneko Antzerki Plafor-
mak (DAP) abian duen *Plazara!*
lan-lerroaren baitan antolatua
du Afizioz antzerki amateur
lehiaketa. Bost talde izango dira
taularen gainean; horien artean,
Debagoienean sortutako bi an-
teztan izango dira lehian.

Hasiberriei bultzada

Euskarazko antzerki sorkuntza
sustatzea eta sortzaileen lana
ezagutzera ematea da DAPEk
Afiziozekin lortu nahi duen hel-
burua. "Antzerkia modu ama-
teurrean lantzen duten taldeen
jarraitasuna bultzatu nahi dugu;
izan ere, Euskal Herrian antzer-
ki amateurak jende ugari mu-

gitzen du, profesional bilakatzen
diren sortzaile asko hortik has-
ten dira. Horregatik, horren
aldeko apustua egitea ezinbes-
tekoa ikusi dugu. Guztira, 2.000
euro banatuko ditugu saritan".

Sarrerak eskuragarri daude

Egun osoko egitaraua prestatu
dute: 12:00etatik 14:30era bi tal-

de izango dira Espaloia antzo-
kiko agertoki gainean lehian,
Tolosako Katiuska antzerki
taldea eta Debako Goaz konpai-
nia; 18:00etatik 20:30era, berriz,
Bermeoko Buselektrikue antzer-
ki taldea, Oñatiko DAP Helduen
taldea eta Iker Plazaola oñatiar-
raren Triskantza ekimena.

Interesa duten guztiendako
daude ateak zabalik eta dagoe-
neko sarrerak eskuragarri dau-
de *DAP.eus* atarian. Bi sarrera
mota daude: egun osoko bonua,
12,50 eurotan –langabeentzako
eta gazteendako, 10,50 eurotan–
eta goizeko zein arratsaldeko
emanaldietarako, berriz, 6 eu-
rotan bakoitza.

Askotariko kontakizunak

2012an Tolosan sortutako Ka-
tiuska taldeak zabalduko du
egitaraua, *Armiarma* lanarekin.

"Armiarma SA enpresan sartu-
ko gara han gertatzen diren
gauza zentzugabeak kontatzeko",
diote Tolosakoek. Debako Goaz
taldeak hartuko du lekukoa eta
"katu bat eta horrek elkartu
dituen pertsona adina istorio"
batuko dituzte *Bilakatu* lanean.

Bermeotarrek ekingo diete
arratsaldeko saioei, eta zera
diote, misterio handiz, eskaini-
ko duten *Añenak publikoari*
buruz: "Ikusteko ezer ez duen
ikuskizun bat ikusiko duzue".

Debagoieneko txanda izan-
go da ondoren. "Alzheimerra
duen emakume baten istorioa
eta haren bizipenak kontatuko
ditugu", diote DAP Helduak tal-
dekoek, eta zera gaineratu du
Triskantzako Iker Plazaolak:
"Gizarte likidoarekin ez-batera-
garria den gazte baten abenturak
kontatuko ditut nik".

Elgetako Espaloia antzokian ikusgai izango diren antzezlanak



'ARMIARMA'
Katiuska / Tolosa / 12:00



'BILAKATU'
Goaz/ Deba/ 13:30



'AÑENAK PUBLIKOARI'
Buselektrikoe / Bermeo / 18:00



'EZ, EZ NAIZ AKORDAITTEN'
DAP Helduak / Oñati / 19:20



'AGUR DRAMAK'
Triskantza/ Oñati / 19:55



Realaren eta Elxen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Elx norgehiagoka beste modu
batera ikusteko aukera bikaina duzue
eskura zuk eta zuk aukeratutako beste
lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko *premium*
gunetik. Partida martxoaren 19an,
domeka, 16:15ean izango da.

Parte hartzeko azken eguna: martxoak 13



Ezin errazagoa
da zozketan
parte hartzea!



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



goiena"
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia

8. ALDIA Kantari

Oñati 2023-03-05

Urgain herri eskolako, Txantxiku ikastolako eta Elkar Hezi ikastetxeko 7 eta 11 urteko ikasleak domekan izan ziren gaztelekuan saio berriak grabatzen. Apiril hasieran Aretxabaletako Arkupe kultura etxean grabatutako saioen emanaldien ostean izango dira Goiena telebistan ikusgai. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO ETA IRINA ALVAREZ



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. Apartamentua ematen da errentan Oñatin, 60 metro koadrokoa. Logela bat du, egongela, sukalde eta bainugela. 618 72 11 29

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Errentan hartzeko etxe bila nabil. Gehienez 500 euro ordainduko nituzke. Telefonoa: 657 59 57 65

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan, hiru pertsonarendako modukoa. 663 46 66 73

2. GARAJEAK

204.ERRENTAN HARTU

Bergara. San Antonio inguruan garaje bat hartuko nuke errentan, asteburuetarako. 653 74 91 23 edo 617 72 05 96

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta eta inguruak. Goizetan nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako egiteko gertu nago. 678 15 23 76

Arrasate. Arrasateko neska arduratsua eta atsegina pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko gertu. Ondo moldatzen naiz haurrekin. Telefonoa: 695 73 87 95

Arrasate. Asteburuetan orduka lan egingo nuke pertsona nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen. 612 27 82 34

Arrasate. Esperientzia duen neska euskalduna nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko gertu. 688 66 76 91

Arrasate. Goizetan lan egingo nuke garbiketara edota ume eta nagusiak zaintzen. Soziosanitario titulazioarekin. Telefonoa: 651 02 03 14

Arrasate. Zaintza lanak egingo nituzke orduka, egunka zein etxean bertan bizi izaten. 635 87 73 04

Bergara eta inguruak. Astean zehar, goizez zein arratsalde, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. Neska euskaldun arduratsua naiz. Haur Hezkuntzako teknikaria eta graduatua. Haurrak zaintzen esperientzia. 634 42 85 11

Bergara. Astean zehar, arratsalde, haurrak, adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko garbiketarako

egiteko eskaintzen naiz. Neska arduratsua naiz eta hiru arlo horietan esperientzia dut. Erizain laguntzaile titulatur naiz eta Haur Hezkuntzako graduak azken mailako ikaslea. 664 29 58 71

Debagoiena. 18 urteko esperientzia duen gizona nagusiak zaintzeko gertu. 672 55 67 35

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar orduka lan egingo nuke, zaintzan zein garbiketara. 632 19 08 26

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar orduka lan egingo nuke, zaintzan zein garbiketara. 632 63 77 38

Debagoiena. Baso garbiketara lan egingo nuke. 607 86 77 59

Debagoiena. Emakume arduratsua garbiketara edo zaintza lanetan jarduteko gertu. 663 48 05 25

Debagoiena. Emakume arduratsua lan bila. Orduka, lan jardun osoan edo etxean bertan bizi izaten. Sozio-sanitario tituladuna. Telefonoa: 631 25 26 67

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka, asteburuetan edota etxean bertan bizi izaten. 651 96 78 69

Debagoiena. Emakumea lan bila, etxean bertan bizitzeko edo orduka. Haur eta pertsonen zaintza lanetarako, garbiketarako. 663 65 76 85

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko. Soziosanitario ikastarorekin. Telefonoa: 747 42 79 07

Debagoiena. Erizain laguntzaile gertu orduka zaintza eta denetarikoko garbiketarako egiteko. Telefonoa: 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Orduka, etxean bizi izaten edo gauetan. 666 49 37 17

Debagoiena. Esperientzia handia eta titulazioak dituen neska asteburuetan zaintza lanak egiteko gertu. Bai etxean eta baita ospitalean ere. Autoa daukat. 600 00 51 00

Debagoiena. Esperientzia duen neska, titulazioarekin, nagusiak zaintzeko gertu. 15:30etik aurrera eta asteburutan ere bai. 688 72 88 97

Debagoiena. Etxeak, portalak, tabernak. gar-

bizten lan egingo nuke. 610 99 70 43

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, nagusiak zaintzen edota atari eta abarrak garbitzen. Soziosanitario titulua daukat. 643 73 62 83

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka nagusiak zaintzeko edota atari eta abarrak garbitzeko gertu nago. Soziosanitario titulua daukat. 643 73 62 36

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edo orduka zaintza lanak egingo nituzke. 611 75 75 97

Debagoiena. Etxean garbitzen, umeak zaintzen, tabernari eta abarreetan lan egingo nuke. 662 47 28 88 (Julia)

Debagoiena. Orduka, gabiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. Deitu 612 56 13 39 telefono zerbaki honetara: 666 07 42 98

Debagoiena. Neska arduratsua goizetan nagusiak zaintzeko edota atari, elkarre eta abarrak garbitzeko gertu. Telefonoa: 604 88 27 26

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Autoarekin. 678 80 96 01

Debagoiena. Neska arduratsua naiz, esperien-

tziaduna, umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara aritzeko gertu. Erabateko prestasuna. Telefonoa: 602 34 03 00

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiei laguntza emateko, umeak zaintzeko edota atari, elkarre eta abarrak garbitzeko. 612 27 68 33

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara aritzeko gertu. Erabateko prestasuna. Esperientziarekin. Telefonoa: 658 92 43 73

Debagoiena. Neska arduratsua gertu, etxean bertan bizi izaten edo bestela, lan egiteko. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Asteburuetan ere bai. Telefonoa: 632 21 99 06

Debagoiena. Neska arduratsua goizetan nagusiak zaintzeko edota atari, elkarre eta abarrak garbitzeko gertu. Telefonoa: 604 88 27 26

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Autoarekin. 678 80 96 01

Debagoiena. Neska arduratsua naiz, esperien-

tziaduna, umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara aritzeko gertu. Erabateko prestasuna. 631 93 11 90

Debagoiena. Neska gertu garbiketa edo zaintza lanetarako. Orduka, etxean bertan bizi izaten zein asteburuetarako. Telefonoa: 672 78 04 30

Debagoiena. Neska nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako egiteko gertu. Erabateko prestasunarekin. Telefonoa: 602 36 90 31

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke garbiketarako egiten edo pertsonak zaintzen. Baita ordezkapenetan ere. Eskarmentua eta legezko agiriak ditut. Deitu telefono zerbaki honetara: 666 07 42 98

Debagoiena. Orduka, gabiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. Deitu 612 56 12 39 telefono zerbaki honetara: 666 07 42 98

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. 631 57 86 53

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa daukat eta lan egingo nuke gauetan, asteburuetan zein orduka. Deitu telefono zerbaki honetara: 631 12 51 27

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa, legezko agiriak eta autoarekin. Arratsalde edo gauetan lanerako gertu nago. Telefonoa: 680 87 38 66

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat lanean hasteko gertu nago, gauetan zein orduka. Deitu telefono zerbaki honetara: 689 90 85 13

Eskoriatza eta inguruan. Nagusiak zaintzen, garbiketara, saltzaile edota antzeko lanetan aritzeko gertu nago. Deitu telefono zerbaki honetara: 602 51 59 08

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Txakurra desagertuta. Elorri txakur bat desagertu da otsailaren 23an. Menditik inguruko herrietara heldu ahal izan da. Txuria eta marroia da, ile laburra, tamaina ertainekoa da eta lepoko gorria darama. 688 64 27 11

8. DENETARIK

801. SALDU

Irantsube elkarteak. Arrasateko San Andres auzoko Irantsube elkarte gastronomikoa plaza bat salgai. Deitu telefono honetara: 696 20 79 94

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA

Jasone Zabala Ibarra Martxoaren 14an, 44 urte. Zorionak, amaxo! Oso ondo pasatu zure eguna! Besarkada bat etxeko denon, eta batez ere, zure printze txiki Inarren partetik!



ARRASATE

Ekhi Madinabeitia Lasa 10ean, 6 urte. Zorionak! Primeran ospatuko zure eguna! Patxo haundi bat!



ARETXABALETA

Unai Idigoras Gonzalez Martxoaren 10ean, 5 urte. Zorionak, Unaitxo! Primeran pasa eguna. Patxo handi-handia!



ARETXABALETA

Noa Olivenza Iturricastillo 12an, 11 urte. Zorionak! Ondo pasa zure egunean. Segi beti bezain alai eta jatorria izaten!



ARETXABALETA

Lara Pacheco Sopa 11n, 6 urte. Zorionak, Lara! Guraso Maria eta Luis, Marijo eta Manuel izeba-osabak, Yaiza eta Jose.



OÑATI

Tasio Zelaia Marchand Martxoaren 10ean, 9 urte. Zorionak, Tasio! Egun ederra igaro deizula! Maitasun osoz, zure familia.



BERGARA

Iraide Beristain Laskurain Zorionak, Iraide! 9an, 8 urte. Ondo ospatu eguna. Muxu haundi bat!



ARRASATE

Ane Etxebarria Alzola Martxoaren 9an, 6 urte. Zorionak, Ane! Ederto ospatu zure eguna! Asko maite zaitzugu!



ANTZUOLA

Maddi Acosta Segurola 9an, 9 urte. Zorionak, Maddi! Segi holako alai! Muxu asko etxeko guztion partetik!



ESKORIATZA

Aner Orobengoa Nevado 8an, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto ospatu familia eta lagunekin!



OÑATI

Izei Umerez Eceolaza Martxoaren 6an, 4 urte. Zorionak, Izei! Ondo-ondo pasa eguna eta disfrutatu opariekin.



ARETXABALETA

Miren eta Suhar Ulezia Martxoaren 5ean, 3 urte. Bikote bihurtu! Zorionak zuen hirugarren urtebetetzean. Oso ondo ospatu eta opari pilia batu. Familiaren partetik, muxu goxo pilia!



ARETXABALETA

Unax Barandiaran Otxoa Martxoaren 4an, 8 urte. Zorionak, mutiko haundi! Familixakua.



ESKORIATZA

Julen Garcia Isasmendi Martxoaren 3an, 3 urte. Zorionak, Julen! Patxo bat danon partetik, txapeldun!



ARETXABALETA

Beñat Pagoaga Urrea 2an, 3 urte. Zorionak, Beñat! Gure etxeko artistak hiru urte jada. Asko maite zaitzugu!



BERGARA

Jon eta Ander Basauri Davila Martxoaren 1ean, 11 urte. Zorionak, bikote! Familiako danon partetik, muxu haundi bat!



ARRASATE

Markel Bereziartua Zabala 15an, 10 urte. Zorionak! Segi bizitzaz gozatzen eta gure bihotzak alaitzen!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztengoen 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz zuzaitzeko operazioen erantzukizunik.

Bergara

• Beldieta, 65 m², 3 logela, inguruko, trasterikoa, bihotza sartzea. 175.000€

• Etxe, 79 m², 3 logela, trasterikoa, garaje itxi, bihotza sartzea. 220.000€

• Auzotxoa, 85 m², 3 logela, trasterikoa. 180.000€

• Astele, 96 m², 3 logela, bihotza sartzea. 150.000€

• Astele, 60 m², 2 logela, trasterikoa, bihotza sartzea. 100.000€

• Beldieta, bi etxebizitzak: 85 m², 88.630€ eta 46 m², 48.630€. Enbrenatutako gela.

• Beldieta, 96 m², 3 logela, inguruko, inguruko, bihotza sartzea. 179.000€

• Beldieta, 77 m², 3 logela, inguruko, inguruko, bihotza sartzea. 260.000€

• Beldieta, 60 m², 2 logela, inguruko, bihotza sartzea. 117.000€ PREZIO JETSIERA.

• Beldieta, 53 m², 2 logela, bihotza sartzea. 148.000€

• Beldieta, 75 m², 3 logela, bihotza sartzea. 149.000€ PREZIO JETSIERA.

• Beldieta, 75 m², 3 logela, bihotza sartzea. 150.000€ Negozioerria.

• Beldieta, 75 m², 3 logela, bihotza sartzea. 105.000€

• Beldieta, 86 m², 3 logela, bihotza sartzea. 150.000€ PREZIO JETSIERA.

• Beldieta, 86 m², 3 logela, bihotza sartzea. 150.000€ Negozioerria.

• Beldieta, 86 m², 3 logela, bihotza sartzea. 139.500€ PREZIO JETSIERA.

• Beldieta, 75 m², 2 logela, 2 oporlekuak. Bihotza sartzea. 175.000€

• Beldieta, 60 m², 2 logela, bihotza sartzea. 75.000€

• Beldieta, 77 m², 3 logela, garajea zutena. 130.000€

LOKALAK:

• A. Fleming, (julgatoria) 50 m², lekuak eta garajea ditu. Bi sarrera ditu. 65.000€

• Beldieta, 24 m², 3 lokal berriak, bi sarrera. Gurea da. 95.000€

• Beldieta, 114 m², bihotza sartzea. Oso ondo. 80.000€

GARAJEAK:

• Beldieta, 16,47 m². Garaje itxi. 25.000€

OSERIA:

• Gurea, 47 m², 3 logela, trasterikoa, bihotza sartzea. 55.000€

• Gurea, 75 m², 3 logela, trasterikoa, bihotza sartzea. 63.000€ Auzotxo.

BASERRIAK:

• Astele, 100 m², 3 logela, bihotza sartzea. 175.000€

• Beldieta, bihotza sartzea. 150.000€ PREZIO JETSIERA.

ANTZUOLA:

• Kalea, 124 m², duplex, 3 logela, garajea, bihotza sartzea. 290.000€

• Beldieta, 54 m², 2 logela, erretseko berro. 40.000€ PREZIO JETSIERA

• Beldieta, 54 m², 2 logela, bihotza sartzea. 120.000€

• Beldieta, 96 m², 3 logela, trasterikoa eta garajea berria. Bihotza sartzea. 198.000€

• Beldieta, 60 m², 2 logela, inguruko, inguruko, bihotza sartzea. 295.000€

• Beldieta, 60 m², 2 logela, inguruko, inguruko, bihotza sartzea. 295.000€

• Beldieta, 77 m², bihotza sartzea. 51.000€

• Kalea, etxe osoa, bi etxebizitzak eta trasterikoa. 120.000€

RUINA:

• Andra Mari plaza, 80 m², 3 logela, trasterikoa, bihotza sartzea. 758.000€

• Beldieta, 80 m², 3 logela, inguruko, bihotza sartzea. 70.000€

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

**AGAINSTERS TALDEA**


Bartzelonako punk-rock taldeak azaroaren 30ean Kooltur Ostegunetan eman zuen kontzertua osorik ikusteko aukera.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30

**BERGARAKO KANTARI GAZTEAK**

Urte hasieran grabatutako saioak ikusten hasteko ordua da. Beñat Arizabaleak aurkeztutako saioa.

'Kantari' Zapatua, 16:00; eta domeka, 09:00

**MU-RI BURUZ BERBETAN**

MUKo errektore Vicente Atxa eta MUKo idazkari nagusi Idoia Peñakoba egongo dira mahaiaren bueltan Goiatz Aranarekin.

'Harira' Martitzena, 21:30 eta 23:30

**ALMEN GUNeko HAURREKIN BERBETAN**

Egunerokotasunari buruzko egindako galdera batzuen gaineko hausnarketa egingo dute Arizmendiko ikasleek.

'Hara, bi!' Eguaztena, 21:00 eta 23:00

**KAZETARI GAZTEAK ANE ZUAZUBISKARREKIN**

Oñatiko BHIko ikasleek egingo diote elkarrizketa idazle eta bertsolari arrasatearrari, Imanol Belokiren laguntzarekin.

'Galdegazte' Eguena, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENeko EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 10**ELGETA Umeen binakako frontenis txapelketa**

2009 eta 2016 artekoendako. Pilotalekuan, 16:15ean.

ELGETA 'Ipuinen ordua'

17:30ean, HHko 3. eta 4. mailetako umeak; 18:00etan, HHko 5. eta LHko 1. eta 2. mailetakoak; eta 18:30ean, LHko 3., 4., eta 5. mailetakoak.

Liburutegian, 17:30ean.

BERGARA 'Artea eta hitza' erakusketa

Bergarako Emakume Artisten kolektiboaren lanak ikusgai, hilaren 19ra arte.

Aroztegin, 18:00etan.

LEINTZ GATZAGA 'Erraiak' dokumentala

Ekain Martinez de Lizarduyren lana. Debalde.

Gatz Museoa, 18:30ean.

ARRASATE Bertso-clown saioa

Beatriz Elgezabal clown lanetan eta Miren Artetxe, Oihana Bartra eta Ane Labaka bertsoetan.

Kulturaten, 19:00etan.

ARRASATE Kantu jira

Portaloi Kultur Elkartearen eskutik. Herriko Plazan, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Elbira' dokumentala

Donostiako lehen ikastolen sustatzailearen bizitza jasotzen duen lana.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

BERGARA 'Arima' dantza emanaldia

La Pulgarekin eta Berriketan taldearekin. Sarrerak, zortzi euro.

Seminarixoa, 20:00etan.

OÑATI 'Isiltasunaren gatibu' antzezlan

Oñatiko Zarta antzerki taldea. Santa Ana antzokian, 20:30ean.

OÑATI Dardo txapelketa

Izen-ematea 20:30ean. Parte-hartzaileko hiru euro.

Gaztetxean, 21:00etan.

ZAPATUA 11**ARRASATE Emakume artisau eta nekazarien azoka**

Martxoaren 8aren harira. Seber Altuben, 10:00etan.

ARRASATE Felix Rodrigo Morarekin elkarrizketa

Askatasunak eta Giza Eskubideen Herri Plataformak gonbidatuta.

Kulturaten, 10:30ean.

ANTZUOLA Parrokiaren ate irekiak eta bisita gidatuak

11:30etik 13:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

Parrokian.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte artekoendako. Ordutegia: 11:30-13:30.

San Andresko gazte txokoan.

ELGETA 'Afizioz' antzerki lehiaketa

12:00etan, Katiuska eta Goaz antzerki taldea; 18:00etan, Buselektrikue antzerki taldea, DAP Oñati eta Iker Plazaola; eta 22:00etan, sari banaketa.

Espaloian.

OÑATI Bazkaria

Martxoaren 8aren harira. Gaztetxean, 14:30ean.

LEINTZ GATZAGA 'Sorginen' bazkaria

Martxoaren 8aren harira. Toki Eder elkarte, 14:30ean.

ARRASATE 'Sukaldaritza freskoa' tailerra

Gaztetxoendako. Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA 'Kelsonia eta itsasoa' antzerkia haurrendako

Gorakada taldearen eskutik. Sarrerak, lau euro.

Seminarixoa, 18:00etan.

ARRASATE 'Zazpi nota nahi beste kolore' kontzertua

Arrasate Musikalen 50. urteurrenaren harira. Sarrerak, hamar euro.

Uarkapen, 19:30ean.

OÑATI Asgarth eta Basati taldeak

Sarrerak hamar eurotan, Txokolateixan eta udal webgunean.

Gaztelekuan, 22:00etan.

DOMEKA 12**ELGETA Ibiltarien Jaia**

Bazkaria berreskuratuko dute. Mendizaleen plazan, 08:00etan.

OÑATI Zuhaitz landaketa Aloñan

Aloñako Lagunak taldearekin. Unaimendin, 10:00etan.

ANTZUOLA Elizbarrutiko gotzainaren meza

Parrokiaren 500. urteurrenaren harira. Gainera, 1523ko bulda ikusgai egongo da sakristian.

Parrokian, 11:00etan.

BERGARA 'Zirku doinuak' kontzertua

Txistulari Bandaren eskutik. Osoko bilkuren aretoan, 12:00etan.

ARETXABALETA Aresko emakume-martxa

Aretxabaletatik irtengo da eta Eskoriatzan amaitu. Bi herrietan emakume bana omenduko dute.

Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI 'Musikaldia' emanaldia

Oñatiko Musika Banda eta Bergarako Candem Town akademiako dantzariak. Broadwayko musikakal irudikatuko dituzte.

Frontoian, 13:00etan.

ARRASATE 'Familiari jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako askotariko jolasak.

Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ARRASATE Film laburrak

Gaztetxoendako. Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Magma mia' ikuskizuna

Beatriz Egizabalen bakarrikzeta, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira.

Torresoroan, 18:00etan.

OÑATI 'La panadera' antzeziana
Sandra Ferrusek idatzitakoa.
Sarrerak, hamar euro.
Santa Anan, 19:00etan.

ARAMAIO 'Madres paralelas' filma
Zine-ziklo feministaren baitan.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI Hots abesbatza
Emakumeen konposatutako piezak abestuko dituzte.
Agustindarren elizan, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Cromlech' antzeziana
Evaren Alabak taldearen eskutik.
Debalde.
Zaldibarren, 19:00etan.

ASTELEHENA 13

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ESKORIATZA Aitor Estebanekin solasaldia
Eskoriatzako EAJk gonbidatuta.
Zaldibarren, 19:00etan.

MARTITZENA 14

OÑATI Literatura solasaldia
Harkaitz Canoren *Zinea eta literatura* liburuaren gainekoa.
Liburutegian, 18:30ean.

BERGARA Lokatzako taldeen aurkezpena
Denboraldi berrirako taldeak.
Seminarixoa, Bergara 19:00etan



IRIA PRODUCCIONES

OÑATI 'La panadera' antzeziana
Sandra Ferrusek idatzitako eta zuzendutako antzeziana, Cesar Cambeiro, Sandra Ferrus, Elias Gonzalez, Susana Hernandez eta Martxelo Rubio aktoreekin. Sarrerak, hamar euro.
Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.

ARRASATE 'Joyland' filma
Saim Sadiq-en pelikula.
Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 15

BERGARA 'Beste kartzela eredu bat posible al da?' hitzaldia
Ixurko Ordeñanak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoan, 10:00etan.

ARRASATE 'Egurra lantzen' erakusketa
Arrasateko Tailaginen Elkartearen 40. urteurrenaren harira.
Kulturaten, 17:00etan.

ARETXABALETA 'Ameli' ipuin kontaketa
Amaia Elizagoienen eskutik, 3-6 urte bitarteko neska-mutikoendako.
Liburutegiko txiki txokoan, 18:00etan.

ARETXABALETA Literatura solasaldia
Andrea Abreu idazlearen *Panza de burro* liburuaren gainean, Monica Leivarekin.
Liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE 'Arrasate 1890-1940 Mondragon' liburuaren aurkezpena
Alberto Loiti Agirre egilearekin.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA 'Women talking' filma
Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 16

ARRASATE Sasoibide
Gasteizera joango dira.
Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI "Estatu arrazakeriaren geografiak" hitzaldia
Ainhua Douhaibik eta Florencia Brizuelak egingo dute berba.
Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA Irakurketa taldea
El gran cuaderno liburuaren gainekoa, Monika Leivak gidatuta.
Kultura etxean, 18:00etan.

BERGARA III. Monzon-Ganuza Euskal Utopikoei sari banaketa
Xabier Amurizak jasoko du.
Seminarixoan, 18:30ean.

ARETXABALETA 'Romipen' dokumentala eta solasaldia
Nafarroako ijitoen elkarteko kide Gaz Kalo egongo da.
Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE 'La misoginia en el humor gráfico' hitzaldia
Raquel Manchadoren eskutik.
Kulturaten, 19:00etan.

OÑATI 'Broker' filma
Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Willis Drummond
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Tar
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:30.
Momiak (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Almas en pena de Inisherin
Domeka eta astelehena: 19:30.
Momiak
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Ellas hablan
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.
Irati
Zapatua: 19:30.
Mi querido monstruo
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Almas en pena en Inisherin
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.
Irati
Egubakoitza: 19:30.
Domeka: 22:00.
Domeka: 21:30.
Astelehena: 19:30.
Asterix y Obelix
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

As bestas
Egubakoitzetik domekara: 21:00.
Astelehena: 19:30.
Martitzenetik eguenera: 20:00.
El gato con botas
Zapatua eta domeka: 12:00
Asterix y Obelix
Zapatua eta domeka: 11:45.
Los Fabelman
Egubakoitza eta zapatua: 21:45.

Domeka: 21:15.
Astelehenetik eguenera: 17:15.
El triangulo de la tristeza
Egubakoitza eta zapatua: 18:45.
Domeka: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

Ellas hablan
Egubakoitza eta zapatua: 17:15.
Domeka: 16:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

Irati (gaztelearaz)
Egubakoitza: 19:30, 22:00.
Zapatua: 11:30, 19:30, 22:00.

Domeka: 11:30, 18:30, 21:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:00.

Irati (euskaraz)
Egubakoitza: 19:30, 22:00.
Zapatua: 11:30, 19:30, 22:00.
Domeka: 11:30, 18:30, 21:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:00.

Momiak (euskaraz)
Egubakoitza: 16:45.
Zapatua: 11:45,

16:45.
Domeka: 11:45, 16:30.

Momiak (gaztelearaz)
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:00.
Domeka: 16:15, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Creed III
Egubakoitza: 17:15, 19:00.
Domeka: 16:15, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

El hijo
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:00, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

Mari(dos)
Egubakoitza: 17:00, 19:30, 21:30.
Zapatua: 11:45, 17:00, 19:30, 21:30.
Domeka: 11:45, 16:30, 18:30, 20:30.

KRITIKA

Irati ★★★★★
Zuz.: Paul Urkijo. **Herr.:** Espainia (2022). **Aktoreak:** Edurne Azkarate, Eneko Sagardoy, Itziar Ituño. **Iraupena:** 111 minutu.

Naturen indarren matxinada

ANTONIO ZABALA

Irati-n gertakizun historikoein eta fantasia eta kondairarekin lotutako istorioa kontatzen zaigu. Hasiera VIII. mendeko Orreagako batailaren garaian kokatzen da. Pelikulan zerikusi handia du naturak, eta zuzendariak arlo horri behar duen garrantzia ematen dio: maisutasunez filmatu ditu paisaiak eta naturaren edertasuna. *Irati*-n naturaren indar magikoak gizakien gehiegikerien kontra matxinatzen dira. Eta beste alde batetik, ohiturak eta kultura mantentzea eta belaunaldiz belaunaldi horiek gorde eta zabaltzearen garrantzia aldarrikatzen du filmak.

Urkijok asko zaintzen du irudia eta soinua. Natura bere edertasunean filmatuta dago.

Efektu bereziak ere modu egokian erabiltzen dira istorioaren magia azaltzeko. Pertsonaia ugariko bataila odoltsuak indarrez filmatuta daude. Urkijok hartutako eronka oso handia da. Historiarekin eta fantasiarekin jokatzea, eta modu egokian, gainera, ez da gauza erraza. Pertsonaia asko daude: gudariak eta gorteko jendea, kristauak, musulmanak eta mitologiako pertsonaiak. Zaila da guztiei behar duten tokia eta denbora ematea. Batzuk zeharka agertzen dira. Hori horrela, istorioa ez da borobila. Filmak sekuentzietan hobeto funtzionatzen du, baina apur bat falta zaio osotasun dramatikoak lortzeko. Dena den, *Irati* meritu handiko proposamena da.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Eugenio Otsoa

Otsailak eraman zintuen, negu gorria zure ateraino iritsi zen garaian. Ez ginen aspaldidanik lagun, baina elkarren arteko harreman berezia sortu zen zu alkate eta ni diputatu, hainbeste maite zenuen herrian, Gatzagan, bideratu genituen proiektuen jiran.

Oso gaixorik zeunden, Eugenio, eta aste batzuk lehenago esan genion elkarri agur. Biok genekien ez genuela berriz hitz egingo eta biok jabetzen ginen momentu hura errepika ezina zenaz. Niretzat gordeko ditut bihotzean zuk eskaini zenizkidan azken hitzak, lagun. Nire amak bere heriotzaren atarian esan zigun bezala, "zein zaila den agur esatea!". Biok lotzen gintuen herrigintzak, euskal abertzale izateak eta gauza txikien garrantziaz jabetzeak. Gizon alaia, ona, oso esker onekoa eta sektarismoetatik urrun, denon alkatea zinen. Ez da erraza izango, esango nuke ezinezkoa, zure markara iristea Gatzagarekin izan duzun konpromisoa gainditzeko. Izaten dira, ba, denbora gutxian ezagutu dituzun pertsonak baina sekulako arrastoa uzten dizutenak. Oso gutxitan gertatzen da hau, baina zuk niri izugarrizko arrastoa utzi didazu, Eugenio. Egun handira arte.

BUKATZEKO



Maia Zaitegi 8 urteko arrasatearra Belen Rueda aktorearekin, grabaketaren une batean. FILMAX

Arrasateko harribitxiaren debuta, aktore handiekin

Maia Zaitegi 8 urteko arrasatearra zineman estreinatu da Carlota Pereda zinema zuzendari madrildarraren beldurrezko 'La ermita' film luzean. Besteak beste, Belen Rueda aktore ezagunaren alboan lan egiteko aukera izan du

Imanol Beloki Unamuno ARRASATE Urriaren 24an hasi ziren grabatzen *La ermita* filma, Carlota Pereda madrildar zuzendariaren lana, eta dagoeneko amaitu dute grabaketa. Film luzea Laura Fernandez-Britesek eta Carlos Fernandezek ekoitzi dute Filmax-erako, Iñaki Gomezen eta Pablo Echarteren koprodukzioarekin Bixagu Entertainment-erako.

ko. Netflix, RTVE eta EiTb enpresek ere hartu dute parte lanean.

Euskal aktore ezagunak tartean 2019an film labur onenaren Goya saria irabazi zuen Peredak, *Cerdita* lanagatik, eta orain, beldurrezko generoko beste lan bat egitea erabaki du. Pelikula horretan Belen Rueda aktore eza-

guna da protagonista –emakumezko aktore berri onenaren Goya saria irabazi zuena *Mar adentro* filmagatik eta emakumezko aktore onenaren saria jaso zuena *El orfanato* eta *Los ojos de Julia* filmengatik–, baina *La ermita*-ko partaideen artean zenbait euskal aktore ere badaude: Josean Bengoetxea –*Loreak*, *El inocente*–, Loreto Mau-

leon –*Los renglones torcidos de Dios*, *Patria*–, Elena Irureta –*Los favoritos de Midas*, *Patria*–, Nagore Aranburu –*Irati*, *Ane*, *Competencia oficial*, *Loreak*–, Jon Olivares –*Patria*– eta Maia Zaitegi, 8 urte baino ez dituen arrasatearra. Azken horren debuta izan da zineman, eta, Belen Ruedarekin batera protagonista nagusietako bat da.

Euskal Herrian grabatua

Filmak 100 pertsonako lantaldea eta 1.200 figurante inguru izan ditu, eta Euskal Herrian egin dira grabaketak. Adibidez, Leitzan. Parte hartu dutenen artean, musikari profesionalak, kultura elkarteetako kideak eta zirkuko profesionalak izan dira; pelikularako, mitologiako eta jaietako pertsonaiak antzestu dituzte.

XVII. mendeko izurritearen medikuak, *txori gizonak* deiturikoak, ditu inspirazio iturri. Erabat isolatuta bizi ziren, maskara eta tuniken azpian ezkutatuta, makila zorrotzak zeramatzen pazienteengandik babesteko eta kutsatzea saihesteko. Haien iruditik sortzen da lehenaldiaren eta orainaren, suspensearen eta fantasiaren artean nabigatzen duen fabula. Zuzendariaren begiradapean, ama-semeen arteko maitasuna, heriotza, mamuak, adiskidetzeta eta halako gaiak aztertzen dira. Carlota Pereda zuzendariaren arabera: "*La ermita* beldurrezko istorioa da, bai, baina, batez ere, ama eta alaba izatea zein zaila den kontatzen duen istorioa da; batzuetan, ez dugu elkar ulertzen helduak izan arte, mamuen historia guztietan bezala, beranduegi den arte. Edo, agian, ez".

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

HARA, BI!

MARTXOAREN 15EAN, EGUAZTENEAN,
21:00ETAN ETA 23:00ETAN
ARIZMENDIKO ALMEN GUNEKO
HAURREKIN BERBETAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

